que ofrece en vano  
amor al mundo.  
Ha apostado su destino  
por caminos de sangre,  
solitario y cansado está  
de tanta pena acumulada;  
tengo una noche hiriéndome  
  
el iris del corazón.  
Mi cuerpo podrido  
llevado por senderos,  
la llamada de la sima oscura  
me empuja abajo,  
abandono el alma  
en el sueño de las sombras.  
Están huecas, muy huecas  
mis entrañas.  
No las conoce  
la Muerte profunda.

### III

Olerkari ero bat  
askorentzat naiz ni  
alperrik munduari  
maitasun eskaini.  
Odolezko bidetan  
zoria ipini,  
penetan asetzea  
bakarti komeni;  
gaua daukat zauritzen  
bihotzaren nini.

Nere gorputz ustela  
bidez-bide emana,  
amil ilunen deiak  
beheruntza narama,  
itzalen ametsean  
ixuriz arima.  
Hutsik dago, ai! hutsik  
nere errai guna.  
Heriotz minak ere  
ez du ezaguna.

## IV

¡Desgracia de haber nacido!  
Creyéndome libre,  
ligero de corazón,  
arriba el cielo, abajo la tierra,  
salí al camino  
con la cabeza llena de sueños.  
Sería un paraíso para el hombre  
si el sueño no estuviera vacío.

Encerrado por las cadenas del espíritu,  
atado al entorno,  
no podía creer que el abismo estuviera  
más allá del futuro.  
Vana creencia, deseo oscuro,  
cayeron los sueños:  
ahora se hace amarga la senda  
y el dolor camina por delante.

\* \* \*

Flores cuidadas  
por manos primorosas,  
negros cipreses  
que sabéis de la muerte:  
Cualquier día,  
las penas de mi cansado viaje  
me arrojarán bajo vosotras,  
sin haber conocido reposo.

Volverá a su pueblo  
el hermano pródigo,  
que conoció la libertad  
en un sueño vacío;  
por favor, cobijad  
a la sombra de los montes  
ese cuerpo que guardó  
un espíritu librepensador.

## IV

Zorigaitzoko sortu behar hau!  
libre nintzela usterik,  
goian zerua ta behean lurra,  
bihotza aintzin zelarik,  
ibilkaritzat atera nintzen  
burua ametsez beterik.  
Gizonarentzat paradisoa  
ametsa ez balitz hutsik.

Gogo kateak hesiturikan,  
ingurua lotuarren,  
ezin sinestu amiltegia  
geroko muga ondoren.  
Usteak uste, gogoa ilun,  
ametsok erori ziren;  
orain bidea zaida mingotsa  
oinaza delarik aurren.

\* \* \*

Hilerrietañ esku maitalez  
apaindurik diren lorak,  
heriotzaren berri jakile  
zeratela zipres beltzak:  
Orduren baten nere ibilera  
nekegarriaren penak  
zuen oinpera suntsiaz bakez,  
uztartzeke atsedenak.

Itzuliko duk sortzetikako  
anai nabarigarria,  
amets hutsaren barrutietan  
zuena libertatea;  
arren, kupidaz, itzalpe-muga,  
altzo delarik mendia,  
sabelarentzat duen gorputza  
zen libre-pentsalaria.

I

Jardines del cielo,  
latidos vitales  
de mundos infinitos.

Espuma en la piel,  
el átomo en el monte,  
el hombre en la Galaxia.

Materia que resucita.  
El sol en el vientre,  
Galaxia de ágiles alas.

Negación de la luz,  
tantas veces, las células mortales  
tienen contados los días.

Firme la voluntad...  
sin hielo en la sombra,  
estoy solo y de rodillas.

Testigos mudos:  
el sueño del otoño  
ahoga la noche.

I

Zeru baratzak,  
milaka munduen  
bizitz taupotsak.

Gesala inoren azalean,  
atomoa mendian,  
gizona Galaxian.

Berpiztuz, materia.  
Sabeltzan eguzkiak  
hego azkardun Galaxia.

Argitasunari uka,  
naharo, zelula hilkorrak  
beren amil-muga.

Goganbeharra tinko...  
itzalean izozteke,  
bakarti nago belauniko.

Zinaldariak mutu:  
nagu usaiaren ametsak  
gaua ere itotzen du.

## II

Las dimensiones del hombre,  
yo, tú, él... nosotros;  
final de los límites.

Vacio de las horas  
dentro del Cosmos  
y *Eppur si muove*.  
Únicamente respira  
lo que dura  
en la frontera de la muerte.

Somos lo que somos,  
si no fuera notorio  
que nada somos.

Si no somos lo que somos,  
en el prado de las estrellas,  
¿qué es lo que somos?

En el viento del ser.  
En el territorio de Cronos  
no somos lo que creemos ser.

## II

Gizonaren luze-laburgea  
ni, zu, bera... gera;  
oro-mugaren amaigea.

Orduen hutsune  
Kosmosaren barruan  
eta *Eppur si muove*.  
Iragan mendeetatik  
salbatuak bakarrik arnas,  
etorkizun herio-mugatik.

Daukagun izatea,  
nabarmena ez balitz,  
ezer ez garela jakitea.

Gerana ez bagera,  
izarren zelaian,  
gu: zer gera?

Nortasun haizean.  
Ustean ez da izatea  
Kronos-en epean.

EN EL ÚLTIMO CAMINO (1965)

En el último camino  
el juego de la búsqueda,  
en el último camino  
sombras son guías,  
en el último camino  
tiembla la voz.

Deseo mortecino,  
continúa el día  
en las horas quietas.

En el último camino  
algunos denuncian,  
en el último camino...  
los hombres piden  
libertad de expresión.

AZKENENGO BIDEAN (1965)

Azkenengo bidean  
jokatzez bilari,  
azkenengo bidean  
itzala gidari,  
azkenengo bidean  
abotsaren larri.

Gogo hiletari,  
gelditutako orduetan  
egunak jarraiki.

Azkenengo bidean  
zenbait salatari,  
azkenengo bidean...  
hitzaren libertatea  
gizonek eskari.

## CON LAS MANOS VACÍAS (1965)

Con las manos vacías vienen  
al mundo de los vivos,  
andan mendigando  
a lo largo y ancho de la tierra:  
sufren hambre  
y están oprimidos.  
No hay justicia  
que se ocupe de ellos.

Por pedir humildemente  
el pan para los suyos,  
los castigaron  
con el malvado hierro.  
Los sojuzgados tienen  
heridas visibles,  
la boca callada... pero  
la verdad va por dentro.

Las falacias andan  
orgullosas ahora,  
día y noche robando  
los sueños de los demás,  
se enriquecen  
a costa de los trabajadores.  
¿Hasta cuándo han de aguantar  
los corazones de los humildes?

Lloran mis ojos,  
estoy casi ciego,  
callo  
en vísperas de la locura.  
Algo más terrible sucede,  
tras el temblor:  
quiero escuchar  
y todo está callado.

## ESKU HUTSIK SORTUAK (1965)

Esku hutsik sortuak  
bizien herrira,  
errukarri dabiltza  
munduz jira-bira;  
beste batzun mendean  
hoiek gose dira.  
Justutasunik inon  
eztago begira.

Apalki eskatzearen  
berentzat ogia  
zigortzat izan zuten  
gaizkile burnia.  
Menderatuei zaie  
nabari zauria,  
aho isila..., baina  
barnean egia.

Uste okerrez dijoaz  
orain, harroputzak,  
lapurtuaz gau'tegun  
inoren ametsak,  
langileen lepotik  
dira aberatsak.  
Noiz arte iraungo dute  
umilen bihotzak?

Begitarteak bustiz  
nahiz itsituago;  
erotu beharrean  
isilikan nago.  
Lurrikara ondoren  
izugarriago:  
zerbait aditu nahi ta  
dena isil dago.

## HAY RAZONES PARA AMAR... (1965)

Si hay razones para amar  
¿por qué se separan los hombres?

Si hay razones para amar,  
¿por qué estamos solos, perdidos, abandonados?

Si hay razones para amar,  
¿por qué están dolidos los corazones?

Si hay razones para amar,  
¿por qué sufren los necesitados?

Si hay razones para amar,  
¿por qué andan armados?

Si hay razones para amar,  
por qué separados, perdidos,  
dolidos, necesitados, armados?

Si hay razones para amar...

¿Qué es la alegría?  
Alegria,  
momento robado al dolor y a la muerte.  
Alegria,  
hermandad pocas veces sentida.

Nos han robado  
la infancia y la juventud.  
Sabemos quién, pero callamos.

Pedimos la paz y nos dan un fusil,  
abrimos la boca y nos la tapan con tierra.

Las tumbas están abiertas  
al viento sur forjado en llamas,  
al toque de trompeta.

... ... ...

## MAITATZEKO ARRAZOIAK BADIRA... (1965)

Maitatzeko arrazoiaik badira  
zergatik gizonok elkar urrunduak?

Maitatzeko arrazoiaik badira  
zergatik umilak, soilki, galduak?

Maitatzeko arrazoiaik badira  
zergatik, ordea, bihotz saminduak?

Maitatzeko arrazoiaik badira  
zergatik larrigorrian behartsuak?

Maitatzeko arrazoiaik badira  
zergatik dabilta txispaz armatuak?

Maitatzeko arrazoiaik badira  
zergatik urrunduak, galduak,  
saminduak, behartsuak, armatuak...?

Maitatzeko arrazoiaik badira...

Zer da alaitasuna?  
Alaitasuna,  
oinaze eta heriotzai kendutako unea.  
Alaitasuna,  
gutxitan izanen da anaitasuna.

Haurtzaroa eta gazzaroa  
lapurtu zaizkigu.  
Badakigu nork eta gaude mutu.

Bakea eskatu, fusila eman,  
ahoa ireki, lurrez estali.

Sutan goritutako hego-haizean,  
turut hotsaren deira,  
hilobiak zabalik.

... ... ...

Nadie levanta cabeza  
en el pueblo donde oprimen las ideas.  
No habrá paz  
mientras se niegue la libertad.

Ideak zapaltzen diren herrian  
ez da bururik jasoko.  
Libertatea ukatzen denean  
ez da bakerik izango.

MILAGRO (1965)

He visto  
sudor y sangre,  
respiración entrecortada,  
hambre secular  
en la frente de los necesitados.

Silencio!

He visto  
riquezas y abundancia,  
sonrisas  
y el brillo dorado  
en el palacio de Epulón.

Silencio!

He visto  
al Cartaginés a caballo,  
dueño y señor,  
guardando la paz,  
con espada afilada.

Silencio!

He visto  
nuevos Cisneros,  
Maquiavelos leales,  
la sombra del fariseo  
alrededor de la santa cruz.

Silencio!

He visto  
¿baile de akelarres  
en la plaza pública?  
-y si fuera poco—  
...al bendito bajo palio.

## MIRARIA! (1965)

Izerdi odoldua,  
arnasa larria  
eta gose bizia,  
ikusi dut,  
behartsuaren kopetan...

Isi!

Ugarian igariz,  
irribarrea  
eta urre dizdira,  
ikusi dut  
ugazabaren jauregian...

Isi!

Jaun eta jabe,  
ezpata zorrotzez  
bake zaintzez,  
ikusi dut,  
Kartaginesa zaldian...

Isi!

Cisneros-en gisa,  
Machiaveli leiala,  
fariseoen itzala.  
ikusi dut.  
gurutze sainduaren biran...

Isi!

Akelarrre dantza  
hiriko plazan?  
-lehena guti bazen-,  
ikusi dut,  
...bedeinkatua paliopean.

Silencio!

Que hablen los ojos.

Silencio y más silencio!

Isi!

Begiak dira mintzo...

Isi eta isi! Hago isilik!

## SED DE AMOR (1965)

Martín, hombre humilde,  
me enseñó  
la sed de amor  
de la familia necesitada.  
Uncido al yugo del trabajo:  
se le ofrece el cielo  
y se le niega el mundo.  
Martín calla  
su desgracia.  
Sin embargo,  
tiene sed de amar.  
Amaba a su madre,  
le negaron ese don.  
Amaba la luz,  
le negaron ese don.  
Por amor a lo que le negaron  
tiene la frente marchita.  
Por dejar a su madre  
ha enmudecido su boca.  
Por no ver la luz  
tierra cubre sus ojos.  
Sin embargo  
tiene sed de amar.  
En este terrible castigo  
tiene siempre  
sed de amar.  
Condenado está al trabajo  
sin tregua ni reposo,  
sus manos no paran,  
el sonido de Martín,  
semejante al del martinete,  
siempre  
*danba, danba,*  
ruido de trabajo:  
martillo caliente  
y ayuda  
fría.  
¿Quién se acuerda de él?  
El sudor del trabajador

MAITASUN EGARRI (1965)

Behartsu femeliko  
maitasun egarri,  
Matxin gizon umilak  
zidan irakatsi.  
Beregain duclarik lanaren uztarri:  
zerua eskaindu  
mundua ukatu.  
Matxinek zoritzarra  
isil gordetzen du.  
Hala ere,  
maitasun egarri.  
Maite zuen ama,  
ukatu zioten maitatzea,  
maite zuen argia,  
ukatu zioten maitatzea.  
Ukatu ziotena maitatzearren  
darama bekokian tristura.  
Ama gabe uztarren  
orain mutu da.  
Argia ez ikustearren  
begietan lurra.  
Hala ere,  
maitasun egarri.  
Larriminezko kondena honetan,  
beti,  
maitasun egarri.  
Lanaren menpean,  
ekin eta ekin,  
ari eta ari  
Matxinen durunda,  
matxino makina irudiz,  
beti:  
*Danba, danba!*  
lanaren hotsa,  
mailu beroa  
eta laguntza  
hotza.  
Nork du beretzat oroitza?  
Langile behartsuaren nekeak,

tiene siempre  
parca recompensa.  
Carácter duro.  
Sabe  
que su oración no va a ninguna parte.  
Sin embargo,  
tiene sed de amar.  
Sin tregua ni reposo  
en su dura labor,  
firme en su puesto  
girando en la misma rueda.  
El sonido de Martín,  
siempre:  
*Danba, danba.*  
Es  
el ruido cotidiano,  
eje de un pueblo  
que sufre en silencio.  
Y no se avergüenza nuestro Martín.  
El mundo es  
su cuerpo.  
Está enfermo de inquietud.  
Sabe,  
a pesar de no creerlo,  
sabe,  
sí,  
que el pueblo está enfermo  
en su silencio;  
sabe  
que vive  
una negra tragedia.  
A ello se dedica.  
Trabaja  
siempre  
sin tregua ni reposo  
en su dura labor.  
La ciega rueda del mazo  
lo lleva en su girar,  
y nada sabe  
sobre el alma del pueblo.  
Sin embargo,  
tiene sed de amar.

beti  
sari motza.  
Izakera latza.  
Badaki  
ez dijoala inora bere otoitza.  
Hala ere,  
maitasun egarri.  
Ekin eta ekin,  
ari eta ari  
bere betiko lanari  
gurpil berdinaren biran.  
Matxinen durunda,  
beti:  
*Danba, danba!*  
Betiko danbotsa,  
da,  
isil sufritzen duen  
herriaren ardatza.  
Eta, gure Matxin ez da lotsa.  
Mundua,  
berak daraman gorputza.  
Barne-kezkak du eri.  
Badaki,  
usteezarren,  
badaki  
bai,  
bere isiltasunean  
herria dela zauri;  
badaki  
bera dela trajeri  
gorri.  
Baina hortara jarri du bihotza.  
Beti  
langintza  
ekin eta ekin,  
ari eta ari.  
Gabi-gurpil itsuak  
bere biran darama,  
eta ez daki  
arimaren berri.  
Hala ere,  
maitasun egarri.

Oculta sus penas,  
mira sin sufrimiento  
al sol que despierta  
en el futuro:  
siempre  
tiene sed de amar.

Atsekaberik ez zaizkiolarik ageri,  
etsi gabe begira  
urrutian piztu den  
etorkizunezko eguzkiari:  
beti  
maitasun egarri.

## NOS LLAMAN (1965)

*Al amigo Serafín Basauri.*

Están llamando,  
nos llaman,  
al anochecer,  
están llamando  
a nuestra puerta.

¿Quién llama,  
quién,  
a mi corazón?  
Mi alma no espera  
llamadas.  
En la hora de las brujas  
desaparecen los ángeles.

En la habitación oscura  
se agita el viento frío,  
aúlla en el interior,  
tiembla mi cuerpo,  
el silencio muerde la oscuridad  
hasta acallar la misma sombra.

Están llamando a nuestra puerta,  
nos llaman  
de la noche a la mañana,  
ladridos  
de perros lejanos.  
Están llamando,  
no a mi corazón,  
sí a mi conciencia;  
no a mi alma,  
sí a mi carne.  
Soy hermano del hombre,  
soy hijo de la tierra.

Y los enemigos no quieren  
ni mi corazón ni mi conciencia.

## DEIKA DAUDE (1965)

*S. Basauri lagunari.*

Deika daude,  
deika,  
gauerdi aldean  
deika daude  
gure atean.

Nork deitzen ote du,  
nork,  
nere bihotzera?  
Nere arimak deirik  
ez bai du espero.  
Sorginen orduan  
ez da aingerurik.

Gelaren ilunean  
haize hotza mugitzen da  
intzirika gelaren barnean,  
hozkirria nere gorputzean  
Isilak ozkatzen du iluna bera  
itzal izugarria mututu arte.

Deika daude gure atean,  
deika,  
gauerditik goizaldera,  
urrutiko zakur zaunkaren  
oihartzuna.  
Deika daude eta  
ez nere bihotzera,  
bai nere zentzura;  
ez nere arimara,  
bai nere haragira.  
Gizonen anai naiz eta  
lurraren seme naiz eta...

Eta, etsaiak ez dute maite,  
ez nere bihotz eta ez nere arimarik.

Quieren prohibir  
mi carne y mi razón.  
Si pudiera perderse  
mi ser.  
Traen esposas para atarme.  
De la noche a la mañana  
llaman a nuestra puerta.  
El ruido penetra  
a través del silencio y de la oscuridad;  
sonido que es amigo  
del frío espíritu negativo.  
Siendo hora de brujas,  
no decrecen los ladridos de los perros.

Están llamando,  
llaman a nuestra puerta...  
En la habitación oscura,  
cuatro caras pálidas, ciegas,  
como lobos.  
Detención,  
cadenas,  
puerta,  
presidio.

No podríamos entendernos  
ellos y yo con la palabra.

Vaya mundo.  
¿Qué mundo?  
Nada sabía,  
tampoco ellos.  
Me llevan esposado.

El corazón preso.  
La carne herida.  
Soy sangre,  
roja sangre  
de hombre.  
Soy polvo,  
verde polvo  
de tierra.

Galerazi nahi dute  
nere zentzua eta nere haragia.  
Galdu ahal baledi  
nere izatea.  
Katigatzeko gartzaz dakarte  
eta, gau erditik goizaldera  
gure atean deika daude.  
Hotsak zulatzen ditu  
isila eta iluna;  
gogo ukakor hotzak  
kideko duen hotsa.  
Sorgin ordua denez,  
ez da galtzen zakurren zaunka hotsa.

Deika daude.  
Dei hotsez gure atean...  
Gela ilunean,  
otsoen gisa,  
lau aurpegi zurbil, itsu.  
Atxiloketa,  
gartza,  
atea,  
presondegia.

Elkar solas ezin ginddezke ulertu  
beraiek eta ni.

Hau mundua!  
Nola mundua?  
Nik ez neki ezer;  
beraiek gutxiago.  
Eta, aintzigarretan naramate.

Bihotz arimak gartzaren pean.  
Zentzu haragiak zauri bidean.  
Odola naizenez,  
odol gorria,  
gizonarenarena.  
Hautsa naizenez,  
hauts berdea,  
lurrarenarena.

SEA HOMBRE EL HOMBRE (1966)

Yo, señor,  
tú, señor,  
él, señor:  
Cuando todos seamos señores,  
entonces seremos hermanos.

Todos seres,  
todos amigos,  
todo de todos:  
Cuando todo sea de todos,  
entonces tendrá paz el mundo.

Pero esa verdad, en la utopía.

Ni jauna  
zu jauna  
bera jauna:  
Guziok jaun garenean,  
anaitasuna zorionean.

Denok munduko  
denok kideko  
denona dana:  
Dana denona denean,  
mundu guzia bakean.

Baina, egi hori utopian.

## MÁS HUMANO (1966)

Para que sea como un hombre,  
aún más acaso.  
Quisiera llegar al alma de mi hermano,  
acerarme a su interior  
por el camino nuevo,  
por el camino no explorado,  
y hacerle sentir  
lo que nunca ha tenido.  
En el amor más limpio,  
y antes de que se convierta en polvo.  
En un sentimiento amoroso.  
Y, profundizar en su deseo, en mi deseo, de ser,  
hasta compartir la dignidad,  
ambos.  
No para que sea un ángel,  
sino un hombre,  
acaso más humano.

## GIZONKIAGO IZAN DADIN (1966)

Gizon bat bezala,  
gizonkiago izan dadin.  
Nere anaiaaren arimara nahi nuke iritsi,  
nere anaiaaren arimara  
bide berri hartatik;  
zapaldu gabeko bidetik,  
inoiz izan ez duan  
sentipen berri bat sortarazteko.  
Maitasunik garbienean,  
eta hautsbihurtu baino lehen.  
Sentipen maitekor batean.  
Eta, bere eta nere dan gogo izatean sakondu,  
nere dantasuna beretu arte,  
elkarkidetzan.  
Aingeru bat bezala, ez;  
baizik, gizon bat bezala,  
gizonkiago izan dadin.

## EL DESTINO (1966)

El deseo de escribir me hiere al anochecer.  
Fiebre en los ojos,  
escamas en el corazón.  
Sin destino,  
como las hojas secas, tembloroso.  
¿Ha perdido la vida sus alegrías?

¿Dónde están los hijos de Thor-Urtzi?

La tumba de Leizarraga,  
cerrada con cuarenta llaves,  
me parece  
que perdimos la gracia de los cristianos.  
Por ello,  
cada día no puede llevar su carga.

¿Vivimos nuestra vida?  
O,  
¿vivo mi vida?

Lastima de no haber nacido  
en un pueblo norteño,  
en esa Escandinavia  
donde el viento frío azota  
inmensos bosques de pinos.  
Andan libres los vientos limpios,  
el hombre es hombre,  
la fe es fe,  
los pueblos  
permanecen.  
Los cementerios son  
jardines.

Pero nací en el País Vasco  
donde los lamentos de funeral

HALABEHARREZ (1966)

Ilunaldietan olerki minak zauritzen nau.  
Begietan sukarra,  
bihotzean zurda.  
Noraezean,  
orbel ximelen gisara, dardaraz.  
Bizitzak galdu ote du ehti-mina?

Thor-Urtziren semeak, non dira?

Lizarragaren hilobia  
berrogei giltzez itxi zutenez,  
iruditzen zait,  
kristau izatearen grazia galdu genuela.  
Horregatik,  
egun bakoitzak berea ezin du eman.

Gure bizia bizi ote gara?  
Edo,  
nere bizia bizi ote naiz?

Ifarraldeko herriren batean  
jaio behar nintzen,  
haize hotz garbiak  
pinu-basoak barreiatzen dituan  
Eskandinabia partean.  
Haize garbiak aske,  
gizona gizon,  
fedea fede,  
herria herri  
irauntzen duen lur hartan.  
Hilerriak ere lorategi  
bihurtzen diren lekuak.

Eta hileta minezko karrasi larriak  
bizia mingosten duen

amargan la vida.  
Vientos locos del Sur  
agitán,  
se enervan,  
impiden ser de verdad.

El ambiente  
me obliga a ser lo que no soy.

Euskal Herrian sortu nintzen.  
Hego-haize lordin eroak  
lardats errepelak  
leunki miatuz  
egizko izakera galerazten duen lekuan.

Bertako giroak,  
ez naizena izatera behartzen nau.

## AZUL (1966)

En las simas profundas,  
en las altas cumbres  
he sufrido  
con todos los sentidos  
la soledad del vacío,  
el vacío de la soledad.

No hay futuro  
y el presente  
se nos va.

Miro al cielo y aprieto los dientes,  
se fortalece el azul,  
en la parte que oscurece.  
así como mi conciencia.  
Todo es azul...  
sobre el cielo,  
tras el cielo, azul...

Fúndase  
en azul  
todo mi ser.

URDINEZ (1966)

Amilik sakonenetan,  
gailurrik goreneta  
sentitu dut,  
soilik,  
zentzu-bihotzetan,  
hutsunearen bakardadea,  
bakardadearen hutsunea.

Ez da gerorik  
eta  
oraina ihesik.

Gora begira, hortzak estutuz,  
urdina bera indartuaz  
lausotzen den aldera,  
barne-gogoz.  
Oro da urdin...  
urdinaren gainetik,  
urdinaren atzetik, urdina...

Izate guzia  
suntzi  
dadin urdinez.

## CONDENA DE NACIMIENTO (1966)

En vano querrán jugarse  
la vida,  
quien busca  
no encuentra,  
no se puede escuchar  
lo que no se ve,  
si lleva consigo  
todos los sentidos.

Fiebre e inquietud  
son latidos de vida.  
Duele el alma  
en un tiempo ardiente,  
temiendo el calor  
y del frío huyendo:  
se nos va la vida.  
en esa situación

Condena por nacer,  
estrecha tumba:  
la justicia  
en este mundo.  
La muerte nos lleva  
de su mano.  
Miles de veces te maldigo,  
mundo.

## SORTZETIKO KONDENA (1966)

Alperrik nahiko dute  
bizia jokatu,  
bilari dabilenak  
ezin du aurkitu,  
Ikusterik ez dena  
ezin lei aditu  
zentzutasun guziak  
berakin baditu.

Larriminen sukarrez  
bizian taupotsa.  
Giro-gori batean  
minez da bihotza,  
beroari beldur eta  
ukatu nahi hotza;  
era larri horretzek  
darama bizitza.

Sortzetiko kondena,  
hilobi estua;  
gure mundu honetan  
izate justua.  
Herioak garamaz  
emanik eskua.  
Mundu hau, mila aldiz,  
madarikatua!

A MODO DE REFRÁN (1966)

Deseo de libertad no trabajada:  
esperanzas sin fundamento,  
ligeros sueños de los necios.

El pueblo que no me ama  
lleva su propia condena.

Si tú no me amas,  
será peor para los dos.

Si se quiere vivir como euskaldún,  
unámonos con amor,  
sea siempre el euskara nuestro guía.

Trabajemos sin descanso  
en la huerta del euskara,  
hasta que dé sus frutos.

No se enterrará el euskara,  
mientras no le echemos tierra.

Discussiones de incautos  
impiden la unión.  
Patriotas separados,  
culpables del desastre.

Pensando en el mejor futuro,  
el euskara cava su tumba.

Piensa bien y no te avergüences,  
el dinero pierde el corazón.

El bosque de la mentira  
impide ver la verdad;  
la paloma de la paz  
perdió su nido.

El lobo es cordero  
y el cardo clavel;

## ERREFRAU ERARA (1966)

Landu gabeko aske izan nahiak:  
oinarri gabeko itxaropenak,  
buru-arinen amets iraunkaitzak.

Maite ez nauen herriak,  
beragan ditu kalteak.

Ni ez banauzu maite,  
biontzako kalte.

Euskaldun nahi bada bizi,  
elkartu gaitezan maitasunean anaiki  
euskarra dugularik aintzinean beti.

Egin dezagun lan eta lan  
euskararen baratzean,  
ongarriz erne artean.

Euskara ezin lurperatu,  
lurrik ixurtzen ez badiogu.

Burugabeen eztabaidak,  
elkartu ezinezkoak.  
Abertzale sakabanatuak,  
hondamendiaren gurasoak.

Geroko hobeari begira,  
euskarra hilobira.

Ondo pentsa eta izan lotsa,  
diruak galtzen du bihotza.

Gezurraren zantzoak  
galerazi egia;  
bakearen usoak  
galdu zuen kabia.

Otsoa arkume eta  
kardoa krabelin;

y mientras tanto progresá  
la acción taimada.

Han pasado mil años  
y el agua corre por su camino;  
en este mundo triste  
no nos unimos en la lucha.

Aquí está la fuente  
para saciar la sed.

Ocupaos de mí,  
llevaré el agua.

Ley medieval,  
fe obligada.

Soy árbol, soy vida.  
No me hagáis daño,  
sea sombra.

Destruir árboles,  
secar fuentes;  
acabar con la vida.

Y si dos y dos no son cuatro,  
es que no estoy aquí;  
apáguese los sentidos  
y digamos “amén”.

okerreko zeregina  
lasai egin dedin.

Mila urte igaro eta  
ura bere bidean;  
mundu tristean,  
elkartu ezinik pelean.

Hemen da iturri,  
asetzeko egarri.

Izan niretzat ardura,  
nik emango dut ura.

Erdi-Aroko legea,  
zigorrezko fedea.

Arbola naiz, bizia naiz.  
Ez niri kalterik egin  
itzala izan dadin.

Arbolak narrutu,  
iturriak agortu;  
bizia hondatu.

Bi eta bi, lau ez badira,  
ni ez nago hemen;  
zentzua itzaliaz  
esan bedi “amen”.

## PERDIDO AMOR (1966)

Aquello que sucedió antes  
y que ahora de mí se aleja,  
por pertenecer al pasado  
es piedra clavada en mi corazón.,  
Algún día también a ti  
el mundo te causará problemas;  
nunca todos los ojos  
lloran a la misma hora.

A una amada ofrecí  
la llave de mi pasión.  
Recibí de ella la palabra  
de la mujer vasca.  
La tristeza desde entonces  
se ha adueñado de mi interior.  
Y ha avinagrado  
su recuerdo espeso.

## GALDU NUEN MAITEÑOARI (1966)

Lehenago gerta zitzaizkidan haiek,  
orain urrunduz direnak,  
alperrik ditutene oroitzan,  
izanik denbora joanak.

Noizbait hiri ere mundu honetxek  
sortuko dizkin bai lanak;  
negar ez dinez inoiz egiten  
ordu baten begi denak.

Maiteño batieskaindu nion  
ene bihotz-minan giltza.  
Beragandikan jaso bai nuen  
neskatx euskaldunen hitza.  
Harrezkerotik ene barnean  
tristurak erruz dabilta.  
Ene barnean mingostua da  
bere oroi men likitsa.

## ORACIÓN (1966)

Señor:

Mira al huérfano que camina descalzo;  
al anciano que carece de hogar.  
Cúidalos, señor,  
mira al hombre hambriento;  
a la prostituta violada por sus hermanos.  
Protégela.  
Mira al pueblo dominado;  
al hombre preso.  
Extiende tu mano.

Señor,

Muestra tu poder  
a los necesitados.  
Ten en cuenta  
que hay muchos sin luz.  
Que robaron sus bienes.  
Que están enfermos  
y cansados.  
Que la amargura  
secó el pozo de las dulzuras.

Ahora son rudos. Rudos,  
como el mundo  
que contemplan.  
Dales esperanza.

Señor:

Di, ordena, por favor,  
que llegue la hora  
y el amanecer del nuevo día.

Jauna:

Ikus, oinutsik dijoan umezurtza;  
etxerik gabe dabilen agurea.  
Eta eman zure begiramena.  
Ikus, goseti den gizona;  
anaiek bortxatu duten emagaldua.  
Eta eman zure itzala.  
Ikus, herri menperatua;  
presa dagoen gizona.  
Eta eman zure eskua.

Jauna:

Agertu zure ahalmena  
behartsuaren alde.  
Kontutan izan  
asko direla argi gabe.  
Lapurto zituztela beraien ondasunak.  
Nekearen nekez  
galtzen dioaztela beraien osasunak.  
Nahigabearren garratzak  
xurkatu zituztela berentzako ziren eztitasunak.  
Orain, zabarrak dira. Zabarrak!  
Zabarria bai da aurrez-aurre  
dutenean mundua.  
Eta eman itxaropena.

Jauna:

Esan, agindu! Arren!  
helduko dela ordua  
eta egunsentiaren zabalkundea.

## REFLEXIONES A LA ORILLA DEL MAR (1966)

Es mediodía, estoy callado,  
rodeado de agua,  
solo,  
sobre las rocas, en mis pensamientos.  
Abajo, a los pies  
del acantilado,  
agitadas olas  
luchan y rugen espumosas.  
Las gaviotas  
se refugian  
en la guardada orilla,  
vuelan lentamente,  
dueñas del cielo,  
felices en su libertad  
y... allende las aguas  
los hombres y los pueblos en su libertad.  
¿Será ese deseo de amor  
el que aparece en los míos?  
Despacio pero  
tenaz, yendo siempre adelante,  
sobre las aguas  
balancea una barca verde.  
Barca  
que abres las aguas,  
llévame contigo,  
por el camino azul, lejos de esta tierra,  
para que mi alma  
conozca la libertad.

Mar, oh mar,  
hoy te contemplo.  
Si tuviera alas...  
si pudiera ir más allá...  
como Icaro,  
que no quiso asentarse en la isla angustiosa.  
¿Por qué no volar  
en las ágiles alas del pensamiento?  
Como si fuera libre  
sumergido en un dulce sueño.

NEREKIKO GOGOETAN, ITSAS BAZTERREAN (1966)

Eguerdi isilean,  
inguruau ura dudalarik hor-hemen,  
soilki nago  
nerekikoetan amilburuaren gainean.

Behan, haizpean,  
labar amiltsuen oinpean,  
uhin zoroak  
urruma dario dutela borrokan.

Itsas ertzaren  
hegalean dutelarik abaro,  
ur eta ortzien  
jaun eta jabe, hegaz naharo,  
ozkarbia urratuz,  
kaioak libertatean beren zoriona,  
eta... urazandik  
herri eta gizonek askatasuna.

Nere ametsetan  
aurkitzen dudan gogo maitasuna?  
Geldiro baina  
ausarti, aurreruntz joan eta joan,  
itsas azalean  
ontzi musker bat bilin-balau dantzan:  
Urak ildazkatuz  
hoan ontzi! Naramak hirekin!  
bide urdinok  
zehar, lehor hontatik urrin,  
nere gogoak  
askatasuna ezagutu dadin!

Itsasoa, itsasoa!  
gaurkoan hiretzat diat ene soa.  
Hegoak banizkik...  
haruntza abiatu ahal baneza...  
Ikaro-ren gisa,  
uharte larrian dudala nahieza.  
Eta, pentsamenaren  
hego azkarretan zergatik ez hega?  
Amets gozo baten  
murgildurik libre banintza bezala?

Ay, patria mía,  
y la familia que me trajo al mundo  
y la infancia dulce,  
la luz vista por primera vez:  
mi tierra.

Ese recuerdo vivo que llevo,  
cargado de nostalgia:  
no sabía qué era la preocupación.  
Infancia, familia,  
hogar... amada paz perdida.

De nuevo  
se despiertan vuestros recuerdos,  
mueren los sueños.

Atado estoy a esta tierra,  
como un niño castigado,  
los demás son libres  
y yo peno de envidia.

Señor:  
he aquí al pueblo vasco inerme.  
Siempre fuiste suyo,  
creyeron en Ti  
en las horas amargas,  
¿por qué, desagradecido, no le ayudas?

¿Por qué no es,  
Señor, libre como los demás?  
¿Por qué este sofoco?  
¿por qué este ahogo,  
siendo pequeños como somos?  
¿por que estas vísperas de funeral?

Piérdase  
la fe en tu poder y voluntad.

Si lo dicho se ha cumplido,  
tienes que cumplir, es necesario,  
obligatorio,  
sospecho que se oculta en algún lugar:  
sin fariseos,  
nadie de nadie, ni señores ni amos,  
sin opresores,  
ni oprimidos, ni ricos ni pobres.

Tal y como son, sencillas leyes,  
¿hasta cuándo, nuestra Cantabria, dominada?

Ai! jaioterria  
eta mundura ekarri ninduen familia  
    eta haurtzaro eztia  
eta bizitzaren aurrenean ikusitako argia,  
    nere sorterria!  
Zuogatik daramadan oroitzapen bizia,  
    aberriminez betia;  
ez nenkielarik zer zen izate larria.  
    Haartzaroa, familia,  
lurraldea!... galdu nuen bake maitia!  
    Berriz ere zuen  
oroitzak iratzartuz, ametsen heriotza.

Lur honi loturik  
nago, katigaturiko haur errukigarri,  
    besteak libre  
izanean dudalarik nere bekaizkeri.  
    Jaun aldendua!:br/>hara nola indarge euskaldun herria.  
    Beti izan zuena  
Hire alderako sinesmen bidia,  
    ordu larrieta,  
laguntzaren ordez, Hire eskergea.  
    Zergatik ez,  
Jauna, beste guziak bezain librea?  
    Zergatik guri,  
txikiak garelako bizitza itoaz  
    larritasun hau?  
Zergatik, arnas estuz hileta zoria?  
    Galduaz bihoa  
Hire ahalmenen eta borondatearen fedia.

Nahia izana bada,  
Izan behar duk, beharrezko delarik,  
    nahi eta nahi ez,  
somatzen diat nonbait dela ezkutaturik:  
    fariseorik gabe,  
inor inorena ez jaun eta ez jabe,  
    menperatzaile gabe,  
ez uztarpeko, ez aberats eta ez pobre.  
    Lege errazak direla,  
Noiz arte, kantabria gurea, inork zapaldua?

Te encuentro, mar,  
infinito, tan ancho como claro,  
profundo, preocupado, soñador,  
con la vista alegre.  
Tus nerviosas aguas  
arrojan espuma.  
Mis deseos, por el contrario,  
van más allá de tus límites.  
Has rodeado todos los pueblos  
con abrazo azul,  
¿querrás que seamos hermanos?  
Cantemos felices  
“da y extiende”  
rodea los pueblos,  
tú, que los has acariciado totalmente.  
Orilla del mar.

Dichosa orilla del mar.  
Tu viento salado  
trae aromas de libertad  
Tú enciendes  
una luz brillante como un astro  
en la incierta esperanza,  
en la noche oscura de mi tristeza.

Ikusmen alai,  
gogalpentsu, kezkatsu, eta ameskor,  
zabal haina argi  
aurkitzen haut muga gabeko itsaso hor.  
Hire ur-urduri  
apartsuak dituk goruntza jaso.  
Nere opariok,  
ostera, urrutti osertzean begiak so.  
Besarkada urdinez  
herri guziak inguratu eta gerrikatuz dituk,  
kresal lokarriz,  
anaitasunera elkarto nahiko ahal gaituk?  
Hire bidez, zorionez,  
kanta dezagun: "eman da zabaltzazu";  
biraz herriak  
gutziz hik bai dituk maiteki laztandu.

Itsas bazterra!  
Zorioneko itsas bazter atseginori!  
Hire kresal haizez  
libertate usaiak dakarzkik beti.  
Hik pizten diok  
nere barne tristuren gau ilun honi,  
urrutiko itxaropen  
lausoa, izar dizdiratsuen argi.

*A Nikolas Alzola, "Markue", dándole la bienvenida por su entrada en el nuevo camino de la poesía. Porque en el año 1966 inició en la revista "Egan" la sección "Con canto y esperanza".*

Todos estamos cansados,  
todos,  
por esa melodía rota.  
Pero tu felicidad,  
la mía,  
la nuestra no será completa,  
mientras se cierren puertas  
al viento de libertad.

Nos perseguirá a ti y a mí  
el canto amargo del dolor  
siempre,  
y estaremos  
atrapados por la pena.  
Porque son esencia del mundo  
la negrura y la tristeza.

¿Qué es la vida?  
Por haber enmudecido en el sexto sentimiento  
no acierto a expresarlo.

Es muy grande  
mi sinrazón,  
para tomarlo con la simple lógica  
que cualquier animal,  
que cualquier planta  
entiende.

Nada sé de la necesidad  
de la vida. El pan y la libertad  
me son necesarios  
para resistir.  
Como cualquier animal,

## ZATOZ (1967)

*N. Alzola "Markue"ri, olerkaritzako bide  
berrietara ongi-etorria emanaz.  
1966. urtean, Egan aldizkarian  
"Kantuz eta itxaropenez" sailari  
hasiera eman zielako.*

Denok gara nekatuak,  
denok,  
kanta urratu horrekin.  
Baina zure eta nere  
gure  
zorionak ez du helmugarik  
libertatea haizeeri aterik  
irekitzen ez zaion artean.

Oinaze minaren kantak  
beti  
persegituko gaitu zu eta ni  
eta guziok  
oro, tristeziak atzemanik.  
Munduko izakera, beltza eta  
tristea denez.

Zer dela uste bizitza bat?  
Seigarren sentimentuaren mututasunean  
ez zait ezer nabari.

Nere zentzugabetasuna  
oso handia da,  
edozein aberek,  
edozein landarek  
konprenitzen duen  
arrazoi xinplearekin jabetzeko.

Deusik ez dakit bizi  
beharrez. Eta ogia eta  
libertatea beharrezkoak  
zaizkit iraun ahal izateko.  
Edozein aberek,

como cualquier planta,  
yo también,  
nosotros también,  
amamos la vida.

Abriremos  
nuevos caminos,  
nos aprovisionaremos  
en el alma vieja  
del bosque,  
mano a mano,  
codo a codo.

Recogeremos  
la medula del alma  
en el manantial de la tradición,  
cara a cara:  
“vestido viejo,  
espíritu nuevo;  
... médula eterna”.

El canto viejo y dolorido  
morirá en tus labios,  
en los míos,  
y no en los de nuestros compatriotas.  
Durará mientras sean  
hermanos de espíritu. Durará...  
hasta que enraícen las canciones de amor  
en los baldíos.  
Hemos sembrado esperanza  
en la tierra nueva.

De aquel  
rojo  
atardecer  
otoñal  
Al nuevo camino de la esperanza:  
trata de ser feliz.  
“Arratsa gorri, eguraldi,  
abono  
de las  
plantas nuevas.

edozein landarek  
bezala nik ere,  
guk ere, bizitza  
bizi ahal izateko.

Eskuz-esku,  
besoz-beso  
urratuko ditugu  
bide berriak  
oihaneko  
gogo zaharretik  
hornituaz.

Gogoaren muina  
izanaren iturburutik  
jasoaz, mundu zabalari  
aurrez-aurre:  
“soina zaar,  
berri gogoa;  
... muin betirakoa”.

Minezko kanta zaharra  
amaituko da zure eta nere  
ezpainenetan,  
eta ez ordea gure herkideenetan.  
Iraungo du muinez kideko  
direnen artean. Iraungo du...  
amodiozko kantak erroz  
sustraitu artean alor helkorrean.  
Larraka, luberri hezez  
bihurtzean jarririk esperantza.

Iluntze gorrizko  
udagoieneko  
arrats  
hura  
Itxaropenezko bide berrira:  
zorioneko izan bedi.  
“Arrats gorri, eguraldi”,  
landare  
berrien  
ongarri.

Canto dolorido  
es canto de amor.

Abandonemos los campos trillados  
esforcémonos de nuevo.

Ven, amigo;  
ven, hermano  
por la senda amarga,  
mano a mano,  
codo a codo,  
abrazados  
en el amor,  
hacia el amanecer  
que jamás  
oscurecerá.

Minezko kanta  
amoriozko baita.  
    Bide landuak utziaz  
    ekin kemenez berriari.  
Zatoz, adiskide;  
zatoz, anaia  
alor helkorren bidetik  
eskuz-esku,  
besoz-beso,  
    maitasunean  
                        besarkaturik  
inoiz ilunduko  
    ez den egun-  
                        -sentiruntza.

## PROPUESTA DE UNIDAD (1968)

### I


Cuando en 1968 se celebra el Congreso de Arantzazu, que marca el rumbo de la unificación del euskara, se suceden en todo el País Vasco diversas polémicas acerca de la significación y sentido de la letra “h” en el euskara unificado. Juan San Martín, que sería con el tiempo secretario y vicepresidente de la Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, vivió aquel proceso en primer plano y dedicó al mismo el poema que obra en la página adjunta. Está escrito con un gran sentido del humor, y jugando con el letrismo propio de cierta poesía visual, que estaba en boga en toda la década, y que en San Sebastián y País Vasco predicó con entusiasmo el poeta argentino Julio Campal. Éste residió en dicha ciudad y participó en diversas actividades culturales con los artistas de la Escuela Vasca, como Oteiza, con quien compartió experiencias en la Galería Barandiarán de San Sebastián, centro cultural que el propio Campal dirigió durante un tiempo.

Juan San Martín dibuja en el poema la fachada de la basílica de Arantzazu, construida por los arquitectos Sáenz de Oiza y Laorga. En la fachada de la basílica, catorce haches, como los catorce apóstoles de Oteiza.

(Nota de los Editores).

BATASUNA HAUTAGAI (1968)

I



## II

El poeta abunda en la creación de la página adjunta en la discusión que, a la manera de “pelea de carneros”, se suscitó con motivo del proceso unificador del Euskara literario en los años sesenta fundamentalmente.

(Nota de los Editores).

## II

.....  
ao ago aho  
eun egun ehun  
iar igar ihar  
oe oge ohe  
ual ugal uhal  
.....

H H H H H H H H H H  
X X X X X X X X X X  
TX TX TX TX TX TX TX  
IN IN IN IN  
CH  
Ñ CH  
Ñ CH TCH  
Ñ TCH  
...? TCH

EGUNGO AHARI TALKA:

HHHHHHHHHHHH	H
HHHHHHHHHHHH	AIHER
HHHHHHHHHHHH	EIHAR
HHHHHHHHHHHH	IHARRAI
HHHHHHHHHHHH	OHORE
HHHHHHHHHHHH	UHOLDE
	H

EUSKARAREN EHORZLE.

### III

El poeta resume en la página adjunta su actitud frente al proceso modernizador de la lengua vasca y escribe: “*En el nombre de la unificación del euskara. Amén*”.

(Nota de los Editores).

### III

#### Koīnē

HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
H H H H H H H H H H H H H H H H H H  
HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
HHHHHH E U S K A R A, HHHHH  
HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
H H H H H H H H H H H H H H H H H H  
HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
H B A T A S U N A R E N H  
HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
H H H H H H H H H H H H H H H H H H  
HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
HHHHHH I Z E N E A N HHHHH  
HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
H H H H H H H H H H H H H H H H H H  
HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
HHHHHHHH A M E N HHHHHHH  
HHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHHH  
H H H H H H H H H H H H H H H H H H

## ELEGÍA A XABIER ETXEBARRIETA (1968)

*Como el “Cantar de Bereterretxe”.*

Queremos guardar lo antiguo,  
La vieja ley nuestra,  
Si el País Vasco ha de tener futuro como pueblo.

Se llamaba Xabier,  
Nombre verdadero,  
Recordad, hermanos, que murió por Euskadi.

Muerte de Benta-Haundi,  
Ha traído venganzas,  
Porque han matado sin piedad al hermano Etxebarrieta.

Vestido de ideas nobles,  
Ofreció su vida:  
Déle el Señor de los cielos la justicia que no encontró en la tierra.

Callados están los vascos.  
No vayan luego a llorar.  
Mientras dure su recuerdo habrá esperanza para Euskadi.

## ERESIA, XABIER ETXEBARRIETARI (1968)

*"Bereterretxen khanitoria"ren doinuz.*

Gorde nahi dugu lehengoa  
Lege-zaharra hemengoa,  
Euskal Herriak izango badu herri bezala geroa.

Xabier zuen izena  
Egiazkoa izana:  
Oroit zaitezte anai guziok Euskadigatik hil zena.

Benta-haundiko hilketa  
Dago mendekuz beteta,  
Erruki gabe hil dutelako anai Etxebarrieta.

Idea garbiz jantzia  
Eskaini zuen bizia:  
Jaun zerukoak eman dagiola hemen ez den justizia.

Euskal semeok isilik!  
Ez gero egin nigarrik!  
Haren gogoa bizi den arte esperantza du Euskadik.

## MIRANDO AL ANCHO MUNDO (1968)

Yo, desde aquí,  
con nuestro pueblo,  
míro al ancho mundo.  
En todo su superficie,  
no se les puede negar  
la vida  
a pueblos y hombres.

Solo encuentro fatigas  
en el mundo.  
Fatigas y más fatigas,  
el sermón de la montaña  
no trae esperanza.  
Empinada cuesta,  
cansancio amargo,  
subidas que no acaban  
a la hora de la muerte.

Vengo cansado del camino,  
de la empinada senda de un pueblo  
donde los hombres sufren.  
Ofrezco mi mano hermana a los otros,  
vuestra mano apacible,  
queriendo apretar la suya,  
desde la tierra donde la voluntad  
se extingue.

Cuando llego cansado a la noche,  
buscando tranquilidad,  
escucho sin descanso  
el rumor de los otros:  
No duermo, no puedo dormir,  
no lo necesito... mientras mi destino,  
el destino de los hombres,  
lo decidan los demás.

Muchos rostros cansados alrededor.  
Demasiado sudor acumulado en los estómagos vacíos.

## MUNDU ZABALERA BEGIRA (1968)

Ni, niregandik  
gure herriarekin,  
mundu zabalera.  
Munduaren izate orokorrean,  
gizonei zein herriei,  
bizi beharra  
uka ezinezko zaie.

Nik ez dut aurkitzen  
munduan aldatza besterik.  
Aldatza eta aldatza,  
itxaropenik ez dakarren  
mendiko sermoian.  
Aldatz latza eta  
garratza nekean,  
aldatzen ez diren aldatzak  
hiletazorian.

Bidez nekaturilk nator,  
gizonek sufritzen duten  
herrialde baten bide malkartsuetatik.  
Gogo-garra hilzorian duen  
lurraldetik eta  
besteoi anaikiro eskua luzatuz  
estutu nahirik,  
zuon gogoaren eskua...

Gauera nekaturik heltzen naizenean,  
atsedenaren bila,  
deskantsurik gabe entzuten dut  
besteon zurmurra:  
Ez nago lokarturik, ez dut loak hartzerik,  
ez dut behar... nire zoria  
bestek erabakitzuen duten artean,  
gizonon zoria.

Aurpegi nekatu asko nire inguruan.  
Izerdi gehiegi nabari urdail husdunetan.

Castigados por el tiempo.  
En los pueblos débiles,  
los padres llaman al hambre  
en las tierras que les fueron robadas.  
Triste realidad para todos.

Pero miran, están mirando,  
los nuevos profetas,  
encendiendo los deseos  
de los pueblos.  
Ofrecen mensajes  
y hacen despertar,  
nuevos senderos  
que surgirán por entre las heridas.

Miro al futuro,  
lo anticipó y me asombro.  
No desesperes del futuro,  
hazte hermano de los otros,  
sabes que existe  
un horizonte de libertad.

Necesitamos todos ahora  
la fuerza de la unión,  
para encender a la vez  
la llama de la esperanza.

No puedo aceptar un futuro decretado.  
Tu lengua será la mía,  
lengua de hermanos,  
para asustar a los tiranos.  
Y gritaremos, desde el pueblo que está al borde  
de la muerte.  
Semillas amargas, según supongo,  
que engendrarán  
un mañana mejor.

Continúa con tu rumor, sin olvidar  
al hombre que está harto de rumores:  
No estoy dormido, no puedo dormir,  
no lo necesito...  
renovará tu eco

Denboren lorrindua.  
Herririk makaleenetan,  
gurasoek ere goseari hozka dihardute  
ebatsi zizkioten lurretan.  
Egoera tristea guziontzat.

Baina, begira daude, begira,  
profeta berriak,  
gogoz pitzuz  
edonongo herriak.  
Mezuz eskainiz  
iratzarkuntzak,  
laster zaurietatik sortuko diren  
bizibide berrikuntzak.

Geroari begira,  
susmatu eta miretsi.  
Etorkizunik ez etsi,  
elkartasunera iritsi,  
libertatezko zori hobeak  
badela sinetsi.

Guzion gaurko beharra  
anaitasunez indarra,  
denok batean piztu dezagun  
itxaropen garra.

Behartutako etorkizunik ezin dut onartu.  
Zure mintzoa nire mintzo egingo dut,  
anaitasun mintzoa,  
jauntxoen ikaragarri.  
Eta, oihu! hiletsirik dagoen herrialdetik.  
Hazi mingotsak, espero dudanez,  
bihar hobeago bat  
loratuko duten lurrean.

Segi zure zurmurra, ahaztutzena utzi gabe.  
Zurrumurruz beti uztarpeturik dagoen gizonari:  
Ez nago lo, ez dut loak hartzerik,  
ez dut behar...  
Hiletsirik dagoen herritik  
berrituko dut zure oihartzuna,

desde el pueblo que espera su muerte,  
desde este pueblo que vive en la agonía,  
que comenzará a germinar  
a partir de una débil llama.

Nosotros, Pueblo vasco,  
somos poco,  
pero tenemos razones.

hiletsian biziz dagoen herri hau  
gar makal batetik  
ernetzen hasiko dena.

Guk, gure Euskal Herri,  
arrazoirik aunitz dugu  
gutti izanarren.

## AGUA, COMO EL RÍO (1969)

*Para el grupo musical “Lurbe”, de Elgoibar,  
pues suyo fue el encargo.*

Así como el río agua lleva,  
trae luz la mañana.  
Alegraos, jóvenes,  
la esperanza viene con nosotros.

No deseamos el mundo  
que habitamos.  
El hombre se ha convertido  
en lobo para el hombre.

Seguiremos por nuestro  
camino, fieles a la verdad.  
Para que florezca un mañana mejor  
y seamos hermanos.

Así como el río agua lleva,  
trae luz la mañana.  
Sí, sí, sí, y con la luz  
el mundo libre que esperamos.

## IBAIAK URA BEZALA (1969)

*Elgoibarko "Lurbe"  
kantari taldearentzat prestatua.*

Ibaiak ura bezala,  
egunsentiak argia dakar.  
Alaitu gazte maiteok  
etorkizuna gurekin dator.

Bizi geran mundu hau  
guk ez nahi!  
Gizona gizonari  
bihurtzen zaionez otso.

Gaur gure bidean ariz,  
egian!  
Anaitasunarekin  
bihar hobe bat loratzeko.

Ibaiak ura bezala,  
egunsentiak argia dakar.  
Bai, bai, bai!, argiarekin,  
espero dugun mundu librea.

## ¿MESÍAS PROMETIDO? (1969)

*A Pako Juaristi, amigo.*

¿Será el Mesías prometido  
ese hombre que llevan encadenado?

¡Oh, oh, qué desgracia.

Lo he visto  
entre dos ladrones,  
entre dos ladrones,  
pobrecito.

## MESIAS AGINDUA? (1969)

*Pako Juaristi adiskideari.*

Mesias agindua ote da  
lotuta daramaten gizona?

O, o! Dohakabea!

Bi lapurren erdian  
ikusi dut,  
bi lapurren erdian,  
gaxoa, gaxoa!

## AQUÍ EN NUESTRA TIERRA (1969)

*Para el grupo musical "Lurbe".*

### I

Aquí en nuestra tierra  
en esta paz mentirosa  
vivimos angustiados,  
oprimidos de verdad.

Día y noche a merced de otro,  
vida oscura.  
¿Está nuestro Dios  
en alguna parte?

No conviene desesperar ante nada,  
hay que abrir los ojos del hermano:  
el hombre hombre sea,  
hoy, mañana, siempre.

En el mundo hay mil razones  
para amar,  
cuando hay hermanos  
y solidaridad.

En el mundo hay mil razones  
para amar,  
para vivir en respeto  
como buenos cristianos.

## HEMEN GURE LURREAN (1969)

*"Lurbe" kantari taldearen eskariz.*

### I

Hemen gure lurrean  
gezurrezko bakean  
bizi gara larri-minez  
zapaldurik benetan.

Inon mende gau t'egun  
bizitza horren ilun.  
Guretzako Jainkorik  
ez ote dago inun?

Ezeren aurrean ez etsi,  
anaien begiak ideki:  
gizona gizon bedi,  
gaur, bihar eta beti.

Maitatzeko arrazoiak  
mila dira munduan,  
anaitasuna denean  
elkartasun bilduan.

Maitatzeko arrazoiak  
mila dira munduan,  
errespetuz bizitzeko  
kristau onen monduan.

## II

Sudor cansado,  
aliento amargo,  
duramente ganado  
a costa de los necesitados.

Obrero oprimido,  
pueblo banderizo,  
levanté la cabeza  
en nombre de la justicia.

No conviene ceder ante nada,  
hay que abrir los ojos de los hermanos:  
el hombre hombre sea,  
hoy, mañana, siempre.

Se perdieron en el mundo  
las razones para amar,  
la fuerza de las armas se ha impuesto  
en lugar de la paz.

Se perdieron en el mundo  
las razones para amar,  
los hombres dominados,  
siempre están sufriendo.

Vivimos, vimos,  
vivimos en el mundo...  
en la tristeza,  
siempre en la tristeza.

## II

Izerdi larritua,  
arnasa samindua,  
behartsuaren lepotik  
hainbeste kostatua.

Langile zapaldua,  
herri benderatua,  
justizian izenean  
altxa beza burua!

Ezeren aurrean ez etsi,  
anaien begiak ireki:  
gizona gizon bedi,  
gaur, bihar eta beti!

Maitatzeko arrazoiak  
galdu ziren munduan,  
arma indarra nagusi da  
bakearen lekuan.

Maitatzeko arrazoiak  
galdu ziren munduan,  
gizonak uztarpeturik  
beti sufrimenduan.

Bizi gara, bizi gara,  
bizi gara munduan...  
Tristuraren, tristuraren,  
tristuraren barruan...

## GABRIEL ARESTI (ESTELA FUNERAL) (1972)

Rico o pobre,  
el hombre siempre está inquieto  
porque se le va el tiempo  
trabajando inútilmente.  
Pena y dolor le resultan igual.  
Parado o inquieto, sin saber lo que vendrá  
cuando deje este mundo.

Se expresó como la voz del pueblo  
en el calvario de un viejo reino,  
y convirtió en trueno el "irrintzi" vasco.

Gabriel Aresti Segurola,  
hombre generoso, de corazón grande.  
Así apareció ante todos, diciendo las cosas  
claras, abiertamente, como nadie se atrevió a decir.  
Siempre a favor de los seres y pueblos más desprotegidos.  
Tenía las manos llenas de verdades  
y miraba a la izquierda y a la derecha del País Vasco.  
Quien quiera dar sombra, ha de tener luz, escribió.  
Su corazón estaba en la izquierda  
y su sangre era roja.  
Sin salir al mar latino,  
defendió la casa del padre.  
Y, al hacerse martillo su poesía,  
la palabra de la casa permanecerá siempre:  
*Piedra y Pueblo, La piedra vasca, Este pueblo de piedra*<sup>(1)</sup>...  
Reforzó las letras vascas, con nuevo estilo.  
Cerró las débiles puertas del día y la noche,  
sabedor de que al final todo se acaba.  
Yace en esta tierra. Los hombres no le negarán este honor.  
Las campanas no dobraron por él.  
¡Alabado seas! en el Parnaso.  
Y que el alto cielo  
guarde por siempre su memoria.

(Versión de José Luis Padrón Plazaola).

---

<sup>(1)</sup> *Piedra y Pueblo, La piedra vasca, Este pueblo de piedra*, son los títulos de los principales libros de poemas de Gabriel Aresti. (Nota del Editor).

## GABRIEL ARESTI

(Hilartitz)

Gizona pobre edo aberats  
beti dAbil afanean  
Bizi modua galtzen duela  
alfeRrikako lanean  
pena ta mIna berdin zaiola  
barauan Eta janean  
ez dakieLa zer den mundutik  
sakabanatzen denean.

Ahots herrikotzat  
Reboltatu zen,  
Erresuma zaharreko  
Sufrikarioan,  
Trumoi bihurtuaz  
Irrintzi euskalduna.

## G A B R I E L   A R E S T I   S E G U R O L A

BIHOTZ HANDIDUN SEMEA, BIZITZAN AGERTU  
ZITZAIGUN HOLA, GU BIZI GAREN MUNDUAN  
GAUZA ZELAIAK,ERRAZAK, ESAN ZITUEN,  
INOR ESATERA AUSARTZEN EZ ZENEZ, GIZONIK  
UMILENEN ETA HERRI BAZTERTUAREN ALDE.  
ESKU BETEKA BILTSEN ZUEN EGIA, EZKER-  
-ESKUBI BEGIRATUAZ EUSKAL HERRIA. ITZALA  
EMAN NAHI DUENAK ARGIA HARTU BEHAR DU.  
BERE BIHOTZA EZKERREAN ZEGOEN ETA HAREN  
ODOLA GORRIA ZEN. HALA ERE, LATIN ITSASORA  
ATERA GABE, AITAREN ETXEA DEFENDITU ZUEN.  
ETA POESIA MAILU BIHURTZEN ZUENEZ, AITAREN  
ETXEKO MINTZAIRAK IRAUDEN DU ZUTIK !:  
*H A R R I   E T A   H E R R I ,   E U S K A L*  
*H A R R I A ,   H A R R I Z K O   H E R R I*  
*H A U... EUSKAL LITERATURA TXERTO BERRIZ*  
HORNITUZ ETA INDARTUZ. ETA EGUNEN BATEAN  
MUNDUAK AKABATUKO DIRENEZ, BERAK ESTALDU  
ZITUEN EGUNAREN ETA GAUAREN ATE MEHARRAK.  
ORAIN, KORPUTZ, LUR HONETAN EHORTZIRIK  
DATZA. OHORE HAU EZIN DIOTE UKATU GIZONEK.  
KANPAIEK EZ ZUTEN OTOITZERA DEITU. BAINA,  
LAUDA!, POETEN PARNASO HARTAN, GOIKO  
ZERUAK GORDE DEZALA BETIKO BERE ARIMA...

===== (1972)

## PALETA, CRISOL (1977)

A Rafael Alberti, por *A la Pintura*,  
con amable recuerdo.

Traído al lienzo de la nada,  
fuente de policromía.

Canto de color,  
paleta, crisol.  
lo que antes era oscuro  
ahora desprende luz.

Tiene ritmo  
la mano embrujada,  
y espíritu ancestral  
surgido  
por el sueño  
de la Edad de Piedra  
en las cuevas  
del País Vasco.

Cadena larga nos ata  
y aprieta  
según nuestra condición  
y ser,  
en la geometría de las líneas  
que van de la forma al color,  
de las cavernas a las plazas,  
de las raíces primeras  
al hoy,  
y mirando al inicio  
ahora es sueño el futuro.  
Sin olvidar  
que nacimos  
para ser libres  
en la corriente del mundo.  
Sí.

*A la pintura*-ko Rafael Albertiri,  
atseginezko oroitzapenez.

Hutsetik oihaleetara ekarria  
polikromiazko etorria.

Kolorezko kantuak  
paleta, arrago,  
lehen iluna zena  
orain argi dago.

Asti baten eskuak  
erritmoa dario,  
eta Euskal Herriko  
lezeetan  
Harri-aroko ametsez  
sortarazi zen  
lehen  
arbasoen gogo.

Formatik kolorerako  
marra-lerroen geometriaz,  
harpeetatik plazetara,  
lehen jatortasunaren  
erroetatik  
egungo iraupenera,  
kate luze batek lotzen gaitu  
eta estutzen gaitu  
norberekiko izatez,  
nortasunez,  
eta sorkundera begira,  
orain, etorkizuna amets.  
Ahantzi gabe  
mundu zabalaren korrentean  
libre izateko  
jaio ginela.  
Bai!

Canto del color,  
paleta, crisol,  
lo que antes era oscuro  
ahora desprende luz.

Abriendo los deseos del espíritu,  
intentando renovar los viejos sueños,  
he aquí un pueblo en marcha.  
¿Dónde están quienes deshonraron al viejo pueblo  
y quisieron impedir el espíritu creador?  
Pero, he ahí,  
traído al lienzo de la nada,  
fuente de policromía.

Pintores  
que sabéis del arte de crear,  
poetas  
que no habéis sucumbido al mercadeo de las palabras  
huecas,  
vístanse de ética vuestras reglas,  
sea vuestra gracia nuestra luz.  
Aquí tenéis al cazador cántabro,  
libre como el viento pirenaico  
desde el Ebro al Garona,  
crecido en en la cría de animales  
dueño de una lengua.  
Llegó  
la hora del labrador firme,  
y,  
un momento histórico  
gracias a los reyes de cuna navarra,  
para que no olvidemos nuestras señas.  
Trabajando el hierro  
hemos traído el día,  
gritamos  
al futuro estable.

Hijos  
que no negaron a sus padres  
hirieron la sombra de la larga noche.  
Hijos  
que no negaron a sus padres

Kolorezko kantuak  
paleta, arrago,  
lehen ilun zena  
orain argi dago.

Gogoaren asmoak irekirik  
amets zaharrak berritu nahirik,  
hara hemen, herri bat martxan.  
Non dira herri zaharraren desohoregarri  
sortzaile gogoa galerazi nahi zuten haiiek?  
Baina, hara hor,  
hutsetik oihaletarra ekarria  
polikromiazko etorria.

Sorketaren berri dakizuten  
pintoreak,  
hitz hutsen merkataritzara erori ez zareten  
poetak,  
etikaz jantzia izan bedi zuen araua,  
zuen grazia izan bedi gure argia.  
Hemen duzute kantabriar ihizaria,  
Ebrotik Garonara,  
Pirineoko haizea bezain librea,  
abeltzaingoan hedatua  
hizkuntza baten jabe.  
Etorri zen  
laborari kementsuaren eguna,  
eta,  
nafar ardatzez erregeek emana  
historiaren guna,  
ez ahazteko gure nortasuna.  
Burdina lantzez  
ekarri dugu eguna,  
oihukaturik  
iraupenezko etorkizuna.

Gurasorik uka ez zuten  
semeek  
urratu zuten gau luzearen itzala.  
Gurasorik ukatu ez zuten  
semeek  
jarraitzaile diren bezala.

son sus herederos.  
Hijos  
que no negaron a sus padres  
encenderán la gran luz de la libertad.  
Sí.

Canto del color,  
paleta, crisol.  
lo que antes era oscuro  
ahora se ha inflamado de luz.

Gurasorik ukatuko ez duten  
semeek  
piztuko bai dute askatasunaren argi zabala.  
Bai!

Kolorezko kantuak  
paleta arrago,  
lehen ilun zena  
orain argi dago.

DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA

---

APÉNDICE DOCUMENTAL

Saio gisa  
A modo de ensayo

JUAN SAN MARTIN  
“OTSALAR”

## *PIEDRA Y PUEBLO* \*

(Prólogo)

Diríase que me encuentro condenado a prologar libros dentro de la literatura vasca. A veces apremiado por circunstancias y en otras por insistencias de los editores. Pero heme aquí escribiendo a petición de su propio autor. De cualquier modo, se me hace excesivo honor el prólogo del poema *Piedra y Pueblo*; un gran honor y, acaso, un riesgo mayor aún.

Desafortunadamente, entre nuestros lectores pocos conocerán los límites de la poesía actual. Por otro lado no todos quedarán contentos. Porque a ellos se presta la razón poética de este libro. Aún así, lector, me tomaré el atrevimiento y procuraré soslayar de corazón y con severidad, argumentarme con mis razonamientos en esta breve exposición, a propósito de hacerle ver el valor esencial de su arte.

Aresti es muy conocido entre nosotros, y muchas veces hemos comentado su tendencia poética. No todas las opiniones son favorables a esta poesía que tanto que hablar ha dado. Pero diré, que esa

forma, es un estilo nuevo. Dueño de su juventud, aporta nuevos aires al terreno de la poesía vasca: nuevos alientos al viejo idioma. ¿Cuántos hay que ofrezcan otro tanto?

La mayoría de nuestros poetas de hoy, entre pequeñeces, se esfuerzan en vano. Y, no es pues de extrañar que muchos de ellos no estén de acuerdo con Aresti.

Es que, hoy, con los dedos de la mano podría contar los verdaderos poetas vascos. Un abismo separa de ellos a los que en la creencia de poetas se dedican a construir versos. Estos versificadores no hacen otra cosa que pretender seguir los caminos de Lizardi, Orixé y Lauaxeta, queriéndoles imitar desatinadamente, sin llegar siquiera a aproximárseles. Arando tierra cultivada.

Hay que dar a cada época lo que a ella corresponde. Aquéllos laboraron su propia parcela y lo actual por ley natural pide modernidad.

Quiera o no, se necesita conocer a lo predecesores, así como las reglas donde se sitúa el arte

\* *Piedra y Pueblo*, el libro más celebrado de Gabriel Aresti, se publicó en 1964 (Edit. Itxaropena, Zarautz), con este prólogo de Juan San Martín. La traducción al castellano del prólogo es del propio Aresti, y aquí se incorpora en su integridad y estilo. (Nota de los Editores).

## HARRI ETA HERRI

(Aitzin-solasa)

Badirudi euskal literaturan liburuari itzaurreak egitera kondentua nagola. Batzueta premiak beatutik eta urrengoan argiratzalleak bultzaturik. Baña, ara oraingo onetan, egillearen eskariz. Edonola ere, ohore aundiegia iduritzen zait *Harri eta Herri* poemaren aintzin-solasa; ohore aundiegia eta, bear bada, arrisku aundiegia.

Zoritzarrez, gure irakurleen artean gutxik ezagutuko dituzte gaurko poesiaren mugak. Besteak, guziak ez dira izango kontent. Orrelakoa baita bertako poesiaren muina. Baña, ala ere, irakurle, ausartu naiz eta aleginduko natzaizu biozki bezin bortizki neronek ditudan errazoiak adierazten, esan bear labur onetan dituan arimazko arterio balioak ikusi zezazkean.

Aresti oso ezaguna da gure artean, ta bere poesiaren erak, maizagotan erabilli ditugunak, iritzi guziak ez dituzte beren alde, eta naikoa zer esan eman dute. Baña esango dut, era ori, era berria dala. Bere gaztaroaren jabe dalarik, aize berriak dakarzki euskal poesiaren erresumara, arnasa berriak izkuntza zarrari. Ta, zenbat dira beste orrenbeste ematen dutenak?

Gure gaurko olerkaririk geienak, uskeritik uskerira, utsean dabilta; ta, ezta batere arritzekoak

geien-geienak Arestirekin bat ez etortzea.

Izan ere, gaur, eskuetako beatzakin kontatuko nituzke egiazko poeta euskaldunak. Berengandik amiltegi sakon batek bereizten ditu olerkari ustean ari diran ber-tsogilleak. Bertsogille oiek, Lizardi, Orixo eta Lauaxetaren bideeri jarraitu naian dijoaz, moldekaitzez antzemanaz, beren egiazko arteari urrik emateke. Landutako lurra goldeatzen.

Garai bakoitzak berea eskatzen du. Aiek beren denborako arloa landu zuten, ta oraingoa, legez, gaurkoaren bearrez da.

Nai ta naiezkoa da lengoak ezagutu bearra, ta baita gaurko poesia-ren arterioa nundik nora dabilen ere, zergaitik, eboluzio ori ezaguzeke ezta sorkunde egokirkir.

Nun ari geran jakinorean zintzoki jokatzeko, Lizardik ongi ekian bezela:

*Baña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa;  
yakite-egoek igoa;  
soña zaar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa.*

“Berri gogoa”, garai giroari jaramon egiñaz. Ala bear ere. Norperana betikoa balitz bezela. A. Machadoren agotik esango genukean eran: “Gaur oraindik beti da”.

de la poesía actual, que sin conocimiento de causa de esa evolución, no es posible creación sana.

Consciente en saber dónde se sitúa uno mismo para juzgar con sinceridad, como bien sabía Lizardi:

*"Pero yo, habla campestre, quiérote también para todo; que las alas del saber te eleven; viejo el cuerpo, nuevo el espíritu; bajo la piel amarillenta, fibra de eternidad."*

“Nuevo el espíritu”, respondiendo al ambiente de la época. Así ha de ser. Como si lo propio fuera eterno. Como diría por dictamen de A. Machado: “Hoy es siempre todavía”.

Las viejas ideas pueden perdurar mientras otras mejores o el espíritu moderno no las postergue. El cambio se produce por haber existido algo anterior. El viejo siempre tiene algo que enseñar y el joven qué aprender. Pero las viejas teorías son desterradas a fuerza de nuevas razones.

El mundo progresá incesantemente. El progreso afecta a todas las esferas y temáticas sociales en torno a su corriente. Y cada época tiene su peculiar ambiente. Sin ello no habría evolución posible, y la falta de evolución negaría el espíritu creativo del hombre, cuya virtud es una de sus principales características.

Nunca nos faltarán fundamentos para profundizar la temática. Es cosa que Aresti bien nos demuestra. En estos días que a la

razón se le da su valor, verdad es que muchas ideas andan revueltas. El futuro es la máxima inquietud de la sociedad: en la tierra y más allá de la muerte. Semejante preocupación embarga a Aresti cuando ruega:

*La cuarta virtud,  
la voluntad  
de creer en algo,  
de esperar de algo,  
de amar a algo.*

*La voluntad:*

*La cuarta  
virtud  
que viene  
después de la fe, de la esperanza  
y de la caridad.*

La inquietud le arrastra a decir cosas semejantes. Dicen que la luz no se ve. Pero el peso del dolor y los agobios se sienten. Esta es la situación actual. Las dudas y las contrariedades han introducido una angustia profunda en el ser del hombre.

Los predecesores no poseían los mismos conceptos y problemas. Y ¿los problemas actuales no merecerán un canto? Los antecesores nos explicaron sus inquietudes en un arte creado ex-profesamente. ¿Por qué los actuales no habrán de expresar las suyas propias en un nuevo estilo? En la esencia humana existe la ley transmisora de la generaciones. Además, en otras lenguas avanzan con sinceridad entonando nuevos ritmos. ¿Y por qué no nosotros?

Idea zaarrak iraun dezazke, obeak edo eguneuko giroak menderaturik baztertzen ez dituan artean. Ta aldakuntza ere, sarri, lenari esker. Zaarrak beti du zer irakatsi eta gazteak zer ikasi. Baña teoria zaarrak baztertzen dira errazoi berrien indarrez.

Mundua aurrera dijoa. Aurrerapenak, gizartearen gai guziak eta malla guziak lotzen ditu bere mugimentu korrontaren biran. Ta garai guziak dituzte beren giro bereziak. Ori gabe, ez lego ke eboluziorik, ta, eboluziorik ezak sorketa ukatzen du. Ta, sorketa uktzea, gizonaren doairik aipagarriena dan artea ukatzea litzake.

Gaia sakontzeko iñoz ezta zergaitikan palta. Ori Arestik ongi erakusten digu. Errazoiari bere balorea ematen zaion egun auetan, egia da idea asko naasturik dabiltzala. Gizartearen kezka nagusia dugu etorkizuna: munduan eta eriotzaren ondorean. Ta, orrelako zerbaitek larritzen du Aresti, eskariz bezela dionean:

*Laugarren bertutea,  
zerbaitean sinisteko,  
zerbaitetik igurikitzeko,  
zerbait maitatzeko  
borondatea.  
Borondatea:  
Fede, esperantza eta  
karitatearen ostean  
datorren*

*laugarren  
bertutea.*

Kezkak esan eragiten dizkio orrelakoak. Argia ez omen da ikusten. Baña, munduko neke ta larritasunak, ikusi ez-ezik, sentitu egiten bai dira. Au da gaurko egoera. Zalantzak eta ezbearrak sortu dute larri-miña gizonaren ezur muinetaraño.

Lengoak etzitzuten uste eta problema berdiñak. Eta, gaurko problema auek ez ote dute kanturik merrezi? Lengoak beren kezkak azaldu zizkigutenean, berek sortutako arterio batean. Eta oraingoak zergaitik ez, gaurko kezka, molde berrian? Mendeen lege bat da gizonaren izakeran. Gainera, beste izkuntza batzuetan zintzoki dijoaz kanta ots berriekin. Eta gu zergaitik ez?

Dana dala. Arestik aize berriak dakarzki euskal literaturara. Arnas berriak euskera zaarrantzat. Ta, ori naikoa ez bada, euskera gutxi ornitu dugun alde batetik dijoa gainera: ezkerrekotik. Baña, badakit, ori gora-bera apaiz zintzo bat baño geiago pozik egongo dirana.

Era berrien eragille bikaina izan dugu Zelaya (Rafael Mugica) ernaniarra; Espainiako poesia simbolismu utsetik ateratzen geien alegindu dana, mundu orduaren ritmoan jartzeko<sup>(1)</sup>. Urte askoan jardun zuten esanaz berea etzala poesia, ta berak tinko jarraitu

<sup>(1)</sup> Ikusi J.M. Castellet-en *Veinte años de poesía española* (1939-1959). Seix-Barral, S.A., Barcelona, 1962. Euskal poetak ere badute zer ikasi liburu onetan.

De todas formas, Aresti aporta soplos renovadores a la literatura vasca. Nuevos alientos a la vieja lengua. Y por si ello fuera poco, juega una carta poco usada en vasco: la de la izquierda. Pero sé que a pesar de ello más de un sincero sacerdote se alegrará.

Promotor de nuevos estilos ha sido el hernaniano Celaya (Rafael Múgica); quien más se ha distinguido en sacar a la poesía española del puro simbolismo, al objeto de acompañar al ritmo mundial<sup>(1)</sup>. Su poesía no fue considerada durante largos años, pero él siguió impasible su ruta, hacia las formas populares defendiendo su teoría de la "razón narrativa". Algo por el estilo entreveo en Aresti, cuando dice:

*A manos llenas recojo la verdad  
de las cosas que están en torno  
mío.*

Y, más adelante, siguiendoanáloga idea, dice:

*Mi poesía es muy barata,  
la tomé de balde  
de la boca del pueblo  
y de balde se la devuelvo  
a la oreja del pueblo.*

Nuestros paisanos siempre han demostrado desbordante realismo en la literatura castellana,

como Baroja, expresando las cosas con sobriedad, dando ideas luminosas, siempre con miras objetivistas, respondiendo en su trayectoria al clamor de las corrientes mundiales; y nosotros los escritores vascongados, paradójicamente, aún no hemos podido sacudir el hedor romántico.

Hoy nadie niega la poesía de Gabriel Celaya. Es más, todos los jóvenes han seguido sus huellas, y no pocos de los viejos.

Además de expresar con sobriedad, existen otros modos para seguir la corriente actual, como cité anteriormente, captar los problemas sociales que nos vinculan dentro del ámbito de ideas de nuestros días. Lo que conceptualizamos justicia aún no ha logrado leyes propias que amparen algunos aspectos sociales: en casa del herrero, cuchillo de palo. Esta es la tragedia de la tierra en pleno siglo veinte.

Aresti, últimamente, ha optado por el verso libre. Y sin negar los ajustados a la métrica, anda más cómodamente, expresando con mayor claridad la esencia de su abundante fluir poético. Los vascos tenemos habituado el oído a la música de los versolaris, y

<sup>(1)</sup> Ver José M<sup>a</sup> Castellet, *Veinte años de poesía española* (1939-1959). Editorial Seix Barral, S.A. Barcelona, 1962. Los que escriben poesía en vasco mucho pueden aprender en este libro.

zuan bere bidetik errikoi tajurara, bere *razón narrativa* teori aldetik. Antzerakoa derizkioz Arestiri, dionean:

*Esku beteka biltzen dut egia  
aldamenean dauden gauzetatikan.*

Ta aurrerago ere, idea berdin-tsuarri jarraituaz, dio:

*Nire poesia osoa merkea da,  
herriaren ahotik hartu nuen  
debalde,  
eta debalde ematen diot  
herriaren belarriari.*

Gure erritarrak beti azaldu dute errealsismurako grīna erdel literaturan, Barojak bezela, gauzéri zuzenki deituaz, ideak argi dizdiraz emanaz, beti ojetibista munduko jokeren zantzoari erantzunaz; ta gu, euskaldun idazleok, páradoja bada ere, oraindik erromantiku kutsua ezin astinduaz.

Gaur iñork eztu ukatzen Gabriel Zelayaren poesia. Geiago da, bere bideetara jo dute poeta gazte guziak, eta zaarrak ere ez gutxik.

Gauzak zuzenki esanez gainera, bada beste zera ere, gaurko ideen korrontean ibiltzea; eta, aurrean esan dedan bezela, gaurko ideen barnean geuri agiri zaiguna da gizartea, bere bizitzaren problema nagusiekin. Justizia deritzognak oraindik eztu lortu lege berezirik gizartearen gordegari: errementariaren etxearen, zurezko gani-beta. Au da XX. mende ontan munduaren buru-bidea.

Arestik, azken bolara onetan, bertso librea aukeratu du. Ta,

bere bertso neurtuak ukatzeke, lasaiago dabillela dirudi, bere poesi jario ugariaren muina argiago azaltzen duelarik. Euskaldunok belarria oitua dugu bertsolari doñura eta, bear bada, ez gaude orren gertuak neurri ta puntu gabeko poesiara, baña ona dala dudarik eztago. Orrela gutxiago galtzen bai du gaiaren muinak. Ori ongi irakutsi zigun Leon Felipe-k bere *Antología rota-n*.

Arestiren era berri onek, bere barnetikako solasean ari dalarik, badu galletean Nerudaren *Canto general*-en aidetasun bat; moldez ere egile beraren *Odas-en* kidetasun bat; baita ere Oteroren *Pido la paz y la palabra* eta *En castellano*-rena. Senidetasuna duten ideak ere arkitu genezazke; adibidez, Oterok eskuak betean gosea, eta Arestik dio, eskuak betean egia. Ezta arritze-koia influentzia ori, bere poeta maitea izanik.

Arestirentzat, poesia, mallua da, eta Zelayarentzat, mallua, pakea. Orrela gurutzatzen bai dira beren izjokoak.

Iturburuak, noski, oiengandik finkatuak ditu, baña Arestik berebereak ditu *Harri eta Herri-ko* poesiak. Eztu besterik egin, aiek markatutako bidean gaurkotasunez jardun baizik. Gaurko poesia gazteak daraman ritmoa da. Gañera, euskaldun onak bezela, lastoa baztertuz dijoa muinera zuzenki. Nerudak baño apaingarri gutxiagorekin.

acaso, no estamos tan acostumbrados a la poesía sin rima ni medida, pero no hay lugar a dudas que es buena. Porque de esa manera se vierte con más fidelidad la esencia de la temática. Ello, bien claro nos demostró León Felipe en su *Antología rota*.

Este nuevo estilo de Aresti, al coloquiar con su intimidad, guarda cierta afinidad con el *Canto general* de Neruda; y hay en su forma cierta correspondencia con la *Odas* del mismo autor; aunque también con *Pido la paz y la palabra y En castellano*, de Otero. De igual modo encontraremos ideas afines; por ejemplo, Otero recoge el hambre a manos llenas, y es la verdad lo que Aresti recoge a manos llenas. No es de extrañar esta influencia, siendo como es su poeta predilecto.

Para Aresti la poesía es un martillo, y para Celaya el martillo es la paz. Así se cruzan sus juegos de palabras.

La poesía de *Piedra y Pueblo* es íntimamente de Aresti, a pesar de sus afinidades en las fuentes de los poetas anteriormente citados. Ha continuado por el camino trazado por ellos, revistiendo de una más próxima actualidad. Es el ritmo de la poesía joven. Además, como buen vasco, separando la paja, va directamente al grano. Con menos adorno que Neruda.

Cuando menos se piensa entona la métrica del zorcico, entonces me recuerda el cantar po-

pular vasco de allende del Pirineo:

*Cantar nuevo  
en un tono antiguo.*

Su inquieta poesía no está exenta de sátira. ¿Que se necesita más seriedad? Tenemos por hábito el poner de ejemplo a los clásicos. Y Quevedo ¿no es un clásico? La lápida del cementerio de Derio nos trae el recuerdo de Quevedo, ya que en la poesía de éste se halla más de un epitafio humorístico.

No es del todo serio. Pero las ligerezas que nosotros no llegamos a comprender, si carecen de sabia, él mismo reconoce, de esta manera:

*Como soy poeta  
no espero cielo alguno.  
Tengo nueve coplas,  
cuatro sensatas y cinco locas.*

A menudo, a través de las páginas, encontraremos alguna idea suelta, la cual nos parecerá carente de sentido, pero la mayor parte de las veces las habremos de enlazar con cosas anteriores o posteriores. Todo el poema tiene una razón de unidad. Porque está sujeta a la factura de un nuevo estilo.

Tiene riqueza de imaginación. Emplea un vascuence popular y fácil. Y si tiene defectos –lo cual no creo, al menos de importancia–, serán pequeñeces que no debemos considerar. Es euskeldunberri (como decimos en nuestra lengua al vasco que ha recuperado su idioma), y entre los escritos

Gutxien uste danean zortzikoaren neurri zatirik ateratzen da, ta, orduan iduritzen zait, mugazandiko errikantak dion bezelatsu:

*Aire zahar batean  
kantari berria.*

Bere poesia urduriari etzaio palta eztenkadarik. Seriotasun geiago bear dala? Zaleak gera klasikoak eredu jartzen. Ta, Quevedo ez al zan klasikoa? Derioko illobian idatziatkoak Quevedoren oroitza dakar. Arek bai ditu anitz epitafio bere poesian.

Ezta ez, guziz serioa. Gure zentzuan sarrerarik ez duten arinkeriak, mamirik ez badute, berak aitortzen du:

*Poeta naizen ezkero,  
eztut zerurik ezpero.  
Bederatzi kopla ditut,  
lau zuhur eta bost ero.*

Maiz, orrialdeak barna, arkituko ditugu zenbait idea azkatzentzu gabeko idurituko zaizkigunak, baña batean irakurriak beste koekin jozkera dute, geienetan. Poema guziak du lokarritzko zerikusia. Era berriko tajureri erantsirik bai daude.

Irudimen aberatsa du. Euskeria errikoia darabil, erreza. Ta akatsik badu, -nik ezetz uste, garrantzizkorik beintzat-, oso txikiak izango dira eta parkamena merezi du. Euskaldun berria da, eta idazle diran euskaldun berrien artean onenetakoa, noski. Lan onetan eskeintzak egiten dituan bezela, Altube eta Barandiaran izan ditu bere maixurik onenak. Bata *Erderismos*-gaitik eta bestea *Eusko-Folklore* orregaitik<sup>(2)</sup>. Ta, nere aburuz, izan ditu beste maixu batzuk ere, auek lirake gure idazle zaarrak, Axular, Leizarraga eta Etxeberri buru dirla. Ta bere errikoitasunari, erribat ezin diogu aukeratu, ezta euskaldi bat ere; erriengaindik beste bai du idazle zaar oietatik. Orotarik jantxitako izkuntza du. Euskeria amagandik dakigunori, sarri, etzaigu bere doñua egokia iduritzen. Jatortasunezko esaeretan badu orrelako biur une bat. Badirudi, Zelayarena bestaldera geratatu zaionaren erako zerbait<sup>(3)</sup>. Bakarrik ori, Zelayari erderaz gertatzen zaio, gure zoritzarrerako. Zergaitik, euskaltzaleok oso pozik artuko genuke bera bezelako poeta bat.

<sup>(2)</sup> Lan oiek, *El mundo en la mente popular vasca* izenarekin, Donostiako «Colección Auñamendi-k» bildu ditu iru liburutan. Siniste, ipui eta kontu dira, erriz-erri bilduak, baikoitza bere euskalkian eta erderazko itzulpenez emanak. Egokia euskeraz ikasi nai dute nentzat.

<sup>(3)</sup> Ikusi *Hablando en castellano* Zelayaren *Pequeña antología poética*, 89. orr. «Colección La Cigarra». Santander, 1957. Eta, Sin lengua, bere *Rapsodia Euskara*, 11.gn. orr. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. Donostia. 1961.

res de su condición se le puede considerar como uno de los mejores. Así como alude en las dedicatorias de esta obra, Altube y Barandiarán han sido sus mejores maestros. El primero con su *erderismo* y el segundo con las hojas de *Eusko-Folklore*<sup>(2)</sup>. Y es mi opinión, que ha tenido otros maestros, y estos serían nuestros clásicos, Axular, Leizarraga y Etxeberri a la cabeza. A su popularismo, no podríamos elegirle un solo pueblo, ni una sola comarca, ni siquiera un solo dialecto como base. Tanto como del pueblo ha recogido de los viejos autores. El suyo es un idioma ecléctico. A los que aprendimos el vascuence desde la cuna, muchas veces sus giros no nos parecen los más acertados. Las dicciones castizas no van con el matiz apropiado. Díriase que le sucede algo similar a Celaya, sólo que a la inversa<sup>(3)</sup>. Ya que a Celaya le ocurre en castellano, para desgracia nuestra. Puesto que los vascongados gustosos admitiríamos entre nosotros a un poeta semejante.

Por ese lado es de agradecer el brío de Aresti. Aún así no se lo

agradecemos conforme se merecía, no precisamente por el ímpetu demostrado hacia el vascuence, ni tampoco por la poesía que él ha aportado a nuestra literatura, sino por esta poesía vanguardista.

*Así es el mundo  
y hoy en día  
nadie es profeta en su tiempo.*

Pero aquí quedará el nombre y el ser. La posteridad proclame:

*Aquí está el hombre. En  
este papel. Estoy.*

Para que los vascongados de buena voluntad comprendan mejor el lenguaje empleado en este fecundo empeño, diría lo que Axular en el prólogo de su libro *Gero*: “Dejando a un lado las diferencias y maneras de hablar y de escribir en vascuence –ya que ellas son como la corteza y la flor– reciba el fruto de este libro, su esencia interna...”.

Por si todo lo dicho no fuera bastante, quiero mencionar que recibió el primer premio del concurso de poesía que en homenaje a “Loramendi” se celebró en Be-

<sup>(2)</sup> Estos trabajos los ha recogido la «Colección Auñamendi» de San Sebastián en tres libros titulados: *El mundo en la mente popular vasca*. Que son creencias, cuentos y leyendas recogidos de pueblo en pueblo, y vertidos cada cual en su correspondiente dialecto y traducción al castellano. Apropiados para quienes quieran aprender vasco.

<sup>(3)</sup> Ver *Hablando en castellano*, en la página 89 de la *Pequeña antología poética* de Celaya. «Colección La Cigarrilla». Santander, 1957. Y, *Sin lengua*, en la página 11 de su *Rapsodia Éuscarra*. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. San Sebastián, 1961.

Alde onetatik, eskertu bearrezko da Aristiren kemenia. Ala ere, ez degu eskertuko bear aña, euskeraren alderako duan kemenori, ta bear bada, ezta berak gure literaturara ixuri duan poesiagaitik, batez ere, poesi aurreratu onegaitik:

*Halaxen da mundua,  
eta gaur egunean  
iñor ezta profeta bere mendea.*

Baña emen geldituko dira izena eta izana. Geroak esan bezalau:

*Hemen dago gizona. Paper  
honean dago. Nago.*

Gai giartsu onek daraman euskera, borondate oneko euskaldunak konprentitu ditzaten, Axularrek Gero-ren itzaurrean diona jarriko nuke: “Euskararen mintzatzeko eta eskiribatzeko moldeak eta diferentziak utzirik –zeren hek azala eta lorea bezela baitira ar ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia;...”.

Esan ditudanak naikoa ez balira, aipatu nintzazke, 1959-an, Bedoñan “Loramendi”-ren omenez egin zan poesia sariketan lenbizioko gelditu zala

*Maldan behera lanarekin<sup>(4)</sup>.  
orrez gañera, 1961-ean, Euskaltzaindiak eratutako “Toribio Alzaga” teatru saria irabazi zuan *Mugaldeko herrian eginikako toberarekin*<sup>(5)</sup>. Ta, azkenez, igaz, *Harri eta Herri* onekin, aurrekaldean dion bezela, “Orixé”-ren omenezko poesia sariketan lenengo aterazuan, Tolosan.*

Nai dana esango da, baña euskal literaturari orrelako gatza ematen zaion artean, lasaiago esan genezake:

*baina nire aitaren etxeak  
iraunen du  
zutik.*

*(Eibar, otsaila, 1964).*

<sup>(4)</sup> Euskaltzaindiaren «Euskeria» aldizkarian argitaratua. V. alea, 189-234 orr., Bilbo, 1960.

<sup>(5)</sup> Julio Urkijo Mintegiaren «Egan» aldizkarian argitaratua. 1961-eko 4-6 zenbakian, 262-289 orr., Donostia.

doña el año 1959, con su trabajo *Cuesta abajo*<sup>(4)</sup>. Además, en el año 1961, el premio de teatro "Toribio Alzaga" de la Academia de la Lengua Vasca, con la comedia *Cencerrada en el pueblo fronterizo*<sup>(5)</sup>. Y por último, el año pasado, con este *Pueblo y Piedra*, como reza al comienzo, el premio de poesía "Orixé", en Tolosa.

Dígase lo que se diga, pero mientras a nuestra literatura se le siga dando esta gracia, podremos decir con más tranquilidad:

*pero la casa de mi padre  
seguirá  
de pie.*

*(Eibar, febrero de 1964).*

---

<sup>(4)</sup> Publicado en la revista «Euskera» de la Academia de la Lengua Vasca, Tomo V, pág. 189-234. Bilbao, 1960.

<sup>(5)</sup> Publicada en la «Egan» del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urkijo», núm. 4-6 de 1961, pág. 262-289. San Sebastián, 1961.

## MUNDUAREN GURPILA

Maiz izaten ditugu norperekiko- etan murgiltzen garenean pentsamen iheskorrak, era astraktoan, pilaka bururatzen direnak eta arrapaladako bizitza estu hau delata edo, idazteko zaletasuna iza-nagatik, horretarako betarik gabe gelditzen direnez, behelainoa bezalaxe desegiten zaizkigu, kea bera baino arinago etorri eta une batzuetan ideia lauso bezala buruko irudimenean erabili ondoren, idazteke, laster suntsitzen diren gogoetak.

Horrelako uneetan, sarri izan ditugu bestelako lanik gabe bizi nahiaren opariak, baina orain bizi tzak berarekin duen estutasunak debekatzen digu gure gogo-ihardunezko bizitza horretatik alde- tzea. Zein nekegarria den behartsuaren izamena. Aberatsak bagina, norperaren gogoko gauzetañ ihardutzeko aukera genuke. Zoritzarrez ez gara, eta bagina ere, behar bada, aberatsik gehienek bezala burgesia ustean ahulduko ginateke. Eta inoiz ez dakit zer litzaiguken hobe: burges horien antzerako bizitza lasai eta egintzaz antzua, ala estua baina eraginkorra, nahiz eta batzuetan norperak izaten dituen pentsamen horiek aidean gelditu, haizeak ezerezteko.

Baina askozaz ere tamalgarria- goa deritzat norperaren etorkizu-

na aukeratzeko eskubiderik eza. Eta gaitzerdibizimoduaren bide- ak hain garratzak ez balira.

\* \* \*

Iruñean nago, "Cafe Iruña"ko beladore batean, Plaza Castillo au- rrez-aurre dudalarik. Neguko egun sargori batean. Noizik behinean hegoaizeak firi-firi matrailak ferekatzen dizkidalarik. Azkenengo Euzko-gogoa dut esku-artearen eta Etxeberria jesuitaren "Nik ez!" irakurtzeak zenbait gomuta- pen iheskor dakarzkit.

Txinako ipuin bat da guztia; ipuin laburtxo bat, sorkaldeko filosofiaz kutsatua.

Herri guziek dute, edo izan dute, etnografia kontutan harturik, beren folklorezko edo folklorearen filosofia, horrelako ona eta txarra bereizten dakiena. Herri batzuek beste batzuek baino hobeto sendotu dutena. Ozeaniako uharte askotan, Txinan, Indietan eta bai Ameriketako zibilizazio zaharretan aurkitzen dira horretariko herri ipuinak. Maiz, naturalezaz bertako gauza askotan aurkitzen ditugun bi indar dira: gizonen gogoaren izakeratikako txarra eta onaren indarrak. Gizonaren jite edo istintoan sakon dau- den bi indar. Bi indar horietako bat faltako balitz, gizonak bere

oreka galduko luke. Txarrik gabe ez lego ke pekaturik, eta pekaturik, non neurrik gabe gizona ez litzake berean aurkituko, istintoak dakarren ahalmenetariko bat ahulduko litzai oke; txarrak berak ere bizi beharrari arrazoia ematen baitio. Sortzetikako pekatu nagusi hori ere horrelako zerbait izan daiteke, herri literaturan oinarritzen den Etorkian, oraingo gizonarentzat non aurki daiteken genetikaren hastapena, Adan eta Ebagan sinbolizaturik.

On hutsetik bakarrik ez da bizi nahiarentzat pizgaririk; on hutsa oso ahula da. Seguru asko, alde txarra ez bagenu hain tentakorra, gure gogaketetako alde ona ahulduko litzai guke, bien arteko oreka galduz. Hori gertatzen da fisikako legeetan, hori berori da politika arazoetan ere gertatzen dena, eta munduak bi nazio handi elkarren etsai gisa izan beharra, aurrerapenak lasterrago bultatzeko.

Herrien filosofia horrek, garaia k aldatu ahala, beti izan ditu berraldakuntza beharrak, bere oinarriak hein batean lehenean iraun izanarren, era berriez eska tzen dute horrela jokatzea.

Filosofiak, sarri, gizonen bat izanarren eredu, herriaren uste izanak ditu bere oinarritzat, eta uste edo kontzeptu horiek, aro bakoitzean bere tankera izaten dute, garai bakoitzeko zientziak eta us teak eskatu izan duten neurrian. Horrela dugu Sokrateren filosofia analitikoa.

Sokrate, giroak bultzaturik mintzatu zen, bere ingurua gizon hautatuekin horniturik, bestela garaikoek ez zioten ulertuko. Problema bat aztertzen denean, problema dagoelako izaten da. Horrela, Sokrateri, orduko bere herrikideen idiosinkraziatik sortu zitzzion, berak biribildu, eraberri tu, egokiagotu eta maila batzuk gora garatuz herriari irauli zizkion gogoeta hariek. Hori dela eta, herri bakoitzaren baitan esarek, ipuiek, alegiek eta gainerakoek, bere muina dute gizartearen barnean, arau eta eredu izango dituenak. Horrek banantzen ditu herri bakoitzaren zentzuak, eta zentzu horietaz mintzatzen garen nean, germaniar mentalitatea, latino mentalitatea, ipartarren mentalitatea edo sorkaldearen mentalitatea eta abar erabiltzen ditugu gure ihardukizunetan oinarritzat.

\* \* \*

Onak berriz, bere alderdia du, eta hain zuzen bere alderdi ona. Eta, gizonagan, onak txarraren hainbat indar ez balu, gure mundu honek bbreak aspaldi egin zituen.

Bizitza sortu zuten lehenengo zelulek ere, berentzako giro egoki batek sortu zituen. Ondotiko biologiaren eboluzioak ere hor ditu bere oinarriak. Izadian zehar, giroak aldatuz, asimilatze rik izan ezin zuten biziak, hilzori ra joan ziren. Zoologiaz aritzean anitz abere ditugu bizitzaren ma galetatik betiko galdu zirenak.

Gizonak, biologiaren gailurrak hartu zituen eta oraindainokoan lortu du naturalezaren aldakuntzak eskatu ahala bere bizi-beharra iraunaztea. Noiz arte?

Arraziaren bideak indartuz hasi zirelarik, gizonaren zentzuna gehituz etorri da. Bere izatearen gauzetaliko bat: arraziak pentsamenaren hegoak txertatu zitzaiokiolarik, eta horrek, heriotza ondorerako zerbaitean beharra edo nahia.

Berekiko gogamenetan sakonduz, aurrera doa gizona, misteriorik-misterio zamalkatu izanda; berarekin dituelarik ona eta txarraren borrokak. Ezkutu hori berori ez ote da nahikoa arrazoi bere ulerkaiztasunean haruntzagoko zerbaiti begira jartzeko? Izatearen sortzetik txertaturik daramagun zerbaite horren ezkutuak, ez ote digu ipini bizirik barne borroka hori? Lausoartean zerbaite estaltzen da. Eta hori gabe ez zegoen gizonaren alderdi onarentzako indarrik ere. Bakotzak daramagun kezkadun borrokak gordetzen gaitu bizi honetan aurreruntza.

Baldintza hauetan, onaren faltaz, askok beren buruak erailduko lituzkete; eta txarraren faltaz, nagikeriak eta axolatasunik ezak bizi-pozik gabe etengo luke gizonaren bizitza. Zentzunetik eta osasunetik neurri xamarrean dabilen gizonak, txarra eta ona bere baitan izango ditu. Eta beste askogan, kanpoko itxurok gorde arren, ikustekoak izango

lirateke beren barruko borrokak.

Txarrarentzako, barruko arra, misterioz beterik aurkitzen da; ar hori: kontzientzia da. Eta, jakina, badakigu kontzientziaren parte asko bakoitza zelan hezitzen deñaren gora-beheran dagoela. Bain, baita, jakinekoa da, bi gizon berdin hezituak, beti ez direla berdinak izaten kontzientzia kontu horretan. Ikus besterik ez dago famili berean anaia desberdinak nola ateratzen diren.

Gizonaren izakerazko misterioetan sakontzeak, orduan eta gehiago sartzen gaitu ulertu ezi-nezko leze sakonetan. Horregatik, hemen ere, garai bakoitzak bere uste izateak ditu. Gehienbat ere, zientziak eta beragandiko gogoetak aurrerapenak aurkitzen dituen bide berriei loturik. Hortik datorkigu: *Doctores tendrá la Santa Madre Iglesia, que le sabrán responder*, esaera bitxi hori.

Baina ez da horretan kittorekin bukatzerik. Darwin aspaldi iragan zen mundutik, eta oroi Linneo suediar sistema jartzaileak berak, biologia kodeetan gizuna, tximua bezala, primateen ordenan jarri zuela. Jarraian beti dato gizonak bide berriak urratuz. Heard, Oakley, R. Broom, Georges G. Simpson, J. Hürzeler, Teilhard de Chardin eta abar. Beraz, antropologia bideak ez dira atzokoak, atzokoei loturik egonarren.

Gizonagan aurkitzen diren pentsamenarekiko borroka hauek, herrietan ere berdin azaltzen dira. Nonbait, izamenean bilatu behar beren arrazoia.

\* \* \*

Errukarriak ditugu txarrean indar gehiago agertzen duten herri horiek. Bainan onaren aldetikoak, maizenik kontzientziaren altxo lasaian lo daude. Hori adierazten digu Etxeberriak Euzko-gogoa-n dakarren Txinako ipuina-ren arabera.

Txina, bere erlijio eta filosofietan etzanda dago edo, gaur behar bada hobeto lego ke, etzanda ego-tean. Lin Yutang-ek aski argitasunez erakutsi zigun mendebaldekoi txinarren jakintzaz. Aldiz, Ameriketako Mayak, Aztekak eta Inkak ere horrela egon ziren, eta europarrok kendu genizkien bartzak. Egipto eta Sumeriako zibilizazioak ere horrela galdu omen ziren. Haientzako gu izan ginen beren kulturaren zapaltzaile. Eta, egia esan, besteak txartzat eginaz hamaiaka gerra eman dugu europarrok. Zuzena zer den, zer den zilegi eta zer ez den, ez da erraza jakitea. Bainan inondik inora ukatu ezinezkoa zaigu, beste kontinentetako erresuma guziak guk zapalduak izan direla. Indarrez edo zentzunez aldatuaraziz menderatu arte, loak harturik zeudenak eta esna zirenak, denak.

Inperio egarriz bizi izan diren herriak, ez dira, edo ez gara, berez izan hain herri onak eta

orain, barruko arrak ez, baina kanpoko etsaiak beldurtzen gaitu. Lehenago gure menpeko izan eta orain gu baino gorago aurkitzen diren herriak beldurtzen gaituzte. Gure pekatuen ordainen beldurrez gara. Txinak zapalduko gaituela? Napoleon batek aspaldi eman zigun aditzera Europaren batasunik ezagatik, esanaz: "Ikusiko duzute Txina erraldoia itzartzen denean". Berak Europa guziarekin egin nahi zuenaren zurikeriaz noski. Bainan, esaldia hor dago. Okerrik egin ez bagenu, munduan gauzona bakarrik zabaldu izan bagenu, behar bida, orain ez ginateke etsaien beldur izango, ez horixe.

Baina ez da hori bakarrik. Txinarrak ere kontzientziaz hornituak izango dira noski; gutxi edo asko, alderdi ona ere berekin izango dute. Guk, europarrok, kristau garenok, beti pentsatu dugu gu bakarrik garela munduan onak, gu arrazoidunak eta gu guzien jaun eta jabe. Zientziaren aurrerapenek eskuatu dizkiguten aldakuntzak hausnartu eta gero ere, uste dugu bakar-bakarrik garela arrazoidunak. Pearl S. Buck bezalako gutxi izan dira gure artean, beste herriak aintzakotzat hartzeko.

Baina beltzagarik badugu gu-regan. Guk egindako makina askoz azkarriagoa dugu. Gu bere menpeko bihurtu behar gaitu, kontzientziarik gabeko makina horrek.

\* \* \*

Aurrerapen honek errotik eten dizkigu gure moldeak. Makinaren zientzia, teknika soila delarik, gizarterik gehienetan baino bizkorrago doa; maiz, Alexis Carrel, Ortega y Gasset eta bestek aditzera eman ziguten bezala.

Bestalde, mundua geroago eta azkarrago biztanlez gainezkatzen doa eta aurrerapen horiek ere beharrezkoak zaizkigu guziok bizi-ko bagara. Baina, aurrerapenok, herri bakoitzaren idiosinkrazia berezia gorde ahal izatea ukatzen dute. Herrien gogo-arimak nahasturik dabilta. Eboluzioaren ordez kataklismoa ote den ere. Horrelako gogo urduria datorkio gizonari, eta kataklismo hori, ez jakin behar den neurrian irentsi ahal izango duen: zortzikotik Jazz-era, Velázquez-egandik Van Gogh-engana, sagardantzatik rock and roll-era, Descartes-egandik Kierkegaard-engana, Adanengandik oreopithecus-era...; alde handiak daude hain denbora gutxian aldatzeko.

Munduaren gurpila biraka dabil. Eta horrelako gauzak ikarrik eragiten ez dioena ere, ez jakin bere onean dagoenik.

Uste izanak aldatu dira, filosofia ere bai, etika zer esanik ere ez. Filosofia bat bide delarik jarri izan dira bizitzaren iritziak, agian bizi beharrarenak, eta horrek eman izan dio gizonari beharrezko itxaropena, mundu honetatik baikortasunean igarotzeko bestetarako izan ez bada ere. Gizonaren pentsamenek eta iritziek,

orain baino lehenago ere izan dituzte aldakuntzaren krisialdiak; baina, ez hain denbora laburrean, noski.

Etsipena eta itxaropena, hor beste bi indar arrazoietaan bakanrik babestu ezinezkoak. Hauek ere neurtzeako lirateke.

Askorentzat, problema hauek oso xinpleak dira, guzia erabakita dute; baina nik ez; nik ez baitut zerura osterarik egin.

Horrelako pentsamenetan murgildurik jarri nau, itxuraz garrantzigabeo ipintxo batek. Baina, garrantzirik gabekoa ote? Badu ipuin horrek non ikasirik.

\* \* \*

Ohartzeke, eguzkia jaitsiz ziojan, Plaza Castilloko etxeen itzal luzeek moteldu dituzte lehen bizi-bizirik ageri ziren koloreak, Itzal hriek, nirekiko irudimenean, Oswald Spengler zenak ikusten zuen Mendebaldearen gainbera bezala nabaritzen zaizkit; gizonak bere aurrerapenen teknikarekin ito beharrean.

Lazgarri zait horrelako pentsakizunak azaldu beharra, baina gaurko giroaren arnasaizeen lekuko dira, uxaz ezinezko arnasaize indartsuak.

Alperrikakoa izango litzateke horrelako indar baten aurka jardutea, eta mingarri bazaigu ere, ideia asko aldatu beharrean gaude. Hala ere, euskaldunok, gure mendi artetik mundua txikiagoa ikusten dugun euskaldun-

nok, gure itsumustuan besteen onik ere ikusi nahi ez dugularik, elkarrenganako zapukerian bizi garelako.

Gureari eutsi? Hori bai! Ahal den guzian eutsi, baina asko ditugu herbesteko haizeak ikutuak, gehienak noski, eta hori ere ezin genezake ukatu. Mundukoak dira eta mundukoak gara.

Gu, oraindik “Geografia” hitza euskarara hartu edo ez-hartu eztabaidaka gabiltzan artean, gure herria, Ameriketatik bueltan datorren Afrikako beltzen ohitura asko hartzen ari zaigu. Eta alperik guk nahi ez izan, hala da.

Gizonaren bizia laburregia da elkarri mutur joka ibiltzeko. Usteak, uste dira; eta, guziok gara, gure ez-jakin gorrian, ona eta txarraren jabe...

Iruñea, gure hiri zahar nagusia, ilundu da, nire barneko kezka ukakorrap bezala. Baino pesimismo hauen barruan, adiskide euskaltzale batzuekin biltzekotan nai-zela eta, argi apur bat susmatzen dut. Unerik etsigarrienetan ere beti agertzen zaigun itxaropen urri horrek ez ahal gaitu inoiz abandonatuko.

(1959, abendua).

## POETA IRATZARTUA

Gandiaga, *Elorri* (1962) poema liburuaz geroztik isilaldi luze batean murgildu zen. Garai hartatik, gauza guziek bezala, poemagintzak ere bere abantailak ezagutu ditu eta ez zen erraz jakitekoa potetaren harrobia ahitua ote zegoen edo amets berriak loratuko zituen lozorro atsedenean aurkitzen zen. Orain, bat-batean iratzartu zaigu poeta, berebiziko liburu eder bat eskainduz: *Hiru gizon bakarka*.

Oteitza berriz Arantzazuratu zenean, bere apostulu eskultura obra bukatzera, zer idazten ari zen egin omen zion galdea:

*Nik ez dut orain idazten  
paper saskirako baizen.  
Aitorpen honi hara irudigileak  
/nola erantzun zioen:  
Euskalerri ez al dago  
paper saskiz, hutsik asko?*

Eta egun hartatik Oteitzak jarri zion bere lantegian paper-saskia, Euskal Herriaren paper-saskia, berak zioen bezala, eta egunero han entregatu behar zituen bere olerki saioak. Hara hor poeta iratzartua, epe labur batean azken urte hauetan Euskal Herrian idatzi den poema libururik ederrena burutuko zuena. Harro-

bi ordez meha-zilo aberatsa aurkitu zuen eta menasta ederrik ateradu.

Bai irudimena eta bai hizkuntza bera, ugari eta aberats agertzen ditu, asmatu ezinezko liburu liluragarri batean. Artistari ez zaio gustatzen imitaziorik eta ez du erabili nahi bere lehengo erarik ere. Nahiago du, esan-nahi zaharrak ere, era berriz agertu:

*Doinu zahar baten inguruz dator  
euskal kantuen mezua  
hitz eta doinu bi-biak dute  
osatzen gure salmua  
herri-kantuen aide artean  
ikusi nuen mundua  
ipuiak ziren edo kondaira  
edo-ta frutu santua?  
Haien oihartzun eraginzalez  
erein zidaten barrua.*

Liburuak, Mikel Lasaren hitzaurrea daroa, ez edozelakoa, baizik une larritz oharturik herriaren alde eta predikari salduak uxatuz, giroaren inguru inoren zerbitzupean eroriak salatuz. Honegatik dio, erabakiak hartzeako ordua heldu delarik “Euskal Herriruntz ausardia izan du Gaudiagak, hiriko plazaren erdian deiadar egitera, txakolinaren ospakizunak antzestera, erregearen profeta ustelak salatzen eta herri xehearen hondamendia tristurazko salmuetaan murmuratzera”.

Egileak, bere lanaren ekintzan, ez dio guti zor J. Oteitza adiskideari, aritzeko kemena eman diola-ko. Gainera, liburuaren azala ere

Oteitzaren apaingarriz aurkeztu da.

*Hiru gizon bakarka*, euskaldun zintzo guziek irakurri eta bere sakontasun guzian ulertzten ahalegindu beharrezko dute. Kantari berrieik ere hor aurkitu ditzakete nahikoa gai olerki pizgarritz. Liburuak duen mezua gure jatorriaren iturri gardenezik datorkigun zerbait da, eta esperantzazko bideetara abiatuko gaituena.

Zazpi zatitan banatzen ditu bere poemak: Lehen biak, txakolinaren ospakuntzaz, herri baten heldu nahi eta heldu ezinaren irudimenez, mingostasunez beterik:

*- Heltzera heldu ez den Herriaren  
heldu-egarria.*

*Hiru gizon bakarka-n* (liburuak hemendik du bere izenburua), hiru ikus-moldez ari dira herriaren heldu nahi hori dela-eta:

*Baina nahiaren bultzada dugu  
indar eta esperantza:  
Ai, eskuetan dugunarekin  
baliatuko bagintza.*

Alegiak eta beste, gertakariz, anekdotaz, esaldiz eta hitz-jokuz ere ongi hornitua, “Ibarrera, ibarrera!” deiadar larria tarteko dela-rik; euskarari laudoriorik ez zaio falta, baina hala ere:

*Badakit  
Euskal Herria  
ez dela  
euskarra  
bakarrik.*

Aitortuko digu. Korupekoek, maiz, bizkaiera samurra hartzen dute adierazbide. *Hamaseiharrieta*, Oteitzari eskainia eta bere es-kulturaren inguruuan osatua,

*Begiak dakustenetik  
bihotzak nahi lukeenera...*

erditzetik heriotzarako sofrika-rioz, tristeziaren errebeliaz, he-riotza atariaren aurrez-aurre. Eta, bukaeran, Artasoko salmoak. Ar-tasoko dolmenaren inguruuan gure arbasoen lurrarekin burua-bat eginik ditu poetak bere gogoe-

ta-solasak, eta odolarene deira bere zainetako iturriak aurkitzen.

Urteen ihesian zutik iraungo duen obra dugu *Hiru gizon bakar-ka*, Gurasoen deiadarrera, arnasa eman zion lurrarekin bat eginik, zutik! euskara den arteraino, ar-basoen lurrarekin bat egin arte:

*Hilgo naz,  
eta lurrago  
jarraituko dot lurrean.  
Aleluia.*

(1974, uztaila).

---

## GABRIEL ARESTI POETAREN HERIOTZA ORDUAN

*Lur honetan  
ehortziko naute.  
Ohore hau ez dautate ukatuko.  
Gizonek.*

Behin horrelako bertso librean mintzatu zen euskal poeta hil zaigu, berrogeita bi urte bete baino lehen.

Aresti, denen gainetik edo ezer baino lehen, poeta handi bat zen, mundu hobeago baten alde sufrizten zuena. Eta trantze hone-tan, adiskidearen doluminez, poe-taren hitzez esan nezake: "Neure dolorea bularraren lezean".

Bilbon jaioa, 1933ko urriaren 14an. Hamasei urterekin hasi zen euskaraz ikasten eta hogeita bat zi-tuenerako hasi zen euskaraz idaz-

ten Guatemalako Euzko-gogoa al-dizkarian. Ogibidez Profesor Mer-cantil zen, eta 1957an Euskaltzain-diko urgazle izendatua izan zen. Ai-patutako aldizkari *horretaz* gainera *Egan*, *Euskera*, *Olerti*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan idatzi izan zuen euskaraz.

*Maldan behera* (1960), *Harri eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967) eta *Harrizko herri hau* (1970) poesi-liburuen egilea, eta *Lau Teatro Arestiar* izeneko liburuia, Lur editorialak R. Saizarbito-riaren hitzaurrez 1973an argitaratutakoan biltzen dira 1961etik 1964ra bitartean idatzi zituen antzerkiak, eta hauez gainera 1969an *Beste mundukoak eta zoro*

*bat.* Beste lan berezi batzuk ere baditu: *Malgizonen abenturismoa* (1972) izendun kontaerak; *Mundu-munduan* (1965) erdi antzerki erdi eleberri; *Hiztegi tipia* (1973), A-tik D-ra arteko hiztegia; eta bere azterketa lanik berezienak: "Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous" eta "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", Fontes Linguae Vasconum-en 11 eta 13. zenbakietan argitaratuak (1972-1973).

Beste honako lan hauek itzuli zituen euskarara: B. Brecht-en *Xixima zoriontsu bat*; T. Meaberen *Hamalaú alegia*; F. Marcos da Portela-ren *Nekazariaren doctrina*; eta Nazim Hikmet-en *Lau gartzelak*.

Gainera, Kriselu argitaldarien sortzailea eta egun argitaldari berritu honen zuzendarietako bat.

Euskal poesia berriaren eragilerik handiena noski, batez ere Harri eta Herri liburuko bertso libre eta sozial gaietatik hasita. Antzerkian ere era berritzearen alde ahaleginak egin zituenetako bat. Poesiaz jaso zituen saririk ai-pagarrienak: "Loramendi" izeneko 1959, "Orixé" 1963, "Lizardi" 1966 eta "J. M. Iparragirre" 1968; antzerkian ordea "T. Alzaga" 1961.

Lanok ikusi besterik ez dugu langile borrokatua zela igartze-ko. Baino, denen gainez, esan dudanaren arabera, poeta handi bat. Konformagaitza. Nekeak

gaindituz euskararekin jabetu zenez, gure herkideok ardura gehiagoz bide bera har zezaten ahalegintzen zena. Hizkuntza, herria eta batez ere langileria zi-tuen maite eta haiengatik edo haien alde sufritzen zuena kantatzen zekien erarik errazenean adiaraziz:

*Gauza zelaiak,  
errezzak  
edonork konprenitzekoak.*

Eta era horren bidez sentiara-ziko zituen bazterrak, eta poeta berriak sortu ziren hor-hemenka gure hizkuntza zaharrari gogoa berritzeko.

*Kantabriako itsasoaren kostaldera  
Ijoan nintzen,  
eta Izaroren aurrean negarrez,  
nire poemaren urezko orriak  
entregatu nizkien  
entregatu nizkien  
uhinieri,  
hobe baita itorik hil,  
goseak baino.*

Mundu honetako gehienak bezala, lasai bizi zitekeen, ezerekin arduratu gabe; baina ezin, justiziazko mundu hobe baten ega-riak zeraman eta "...mundu hone-tan isuri den odolarei espilu" nahi zuen izan. Inoiz, poetak, honelako galdeak egiten zizkion bere buruari:

*Zergatik metitu ote naiz  
halako enplego txar batean?  
Zergatik sartu ote nituen  
sudurrak  
hain kirats txarreko  
zer-egin honetan?*

*Baina zergatik?  
Ez nintzen ni ederki bizi  
Bilboko hirian,  
gaztelaniaz,  
hispanidadean?  
Baina ez.  
Nire leinuaren ezagugarria da.*

Poetak, emaztea eta hiru alaba uzten ditu, bere sufrimenduzko poesian maiz presente aurkituko ditugunak. Bere azken poema liburuaren bertso batean hara nola azaltzen zituen herriarenganako maitasun etsipendua eta familia-renganako lotura:

*Inor ez da profeta  
bere mendean.  
Berriz etorri naiz  
pentsamendura,  
eta andre alabarik ez banu,  
pozik  
hilen  
nintzake,  
ene esanak konsidera litzan  
euskar herriak.*

Poetaren bertso asko eta asko kanta bihurtu dira gaurko gazteen

ahoetan. Eta, une horietan, hemendik aurrera, errusinola bezala ari diren kantariok ez dezatela atertu bere hitza, zeren gogoko izanen zuen hotsa:

*Errusinolaren kantuak  
nire arima  
bakez  
bietetzen du.*

Azkenean, urte bete baino gehiagoan sufritu behar izan duen eritasunaren ondotik, betiko bakea aurkitu du:

*Hiltzeko edo ez hiltzeko  
beti geratzen baitzaio  
gizonari  
esperantzaren  
bat.*

Esanez bukatzen zuen bere azken poema liburua, *Harrizko herri hau*. Bere penak, gogoz nahi zuen bakea aurkituko dute heriotzaren barruan. Bego atsedenean.

(*Eibar, 1975-VI-6*).

## JON MIRANDE, ORHOITUZ

Jon Mirande zenaren beste liburu bat plazaratu da. Gazterik joan ziizaigun idazle oroigarri hark zigilu berezia utzi zuen euskal literaturan.

Kriselu argitaldariak, bere ekintza ederrean berriki eman digu Jon Miranderen poema guziez hornituriko liburua, *Orhoitzu* du izenburutzat, liburuaren bederatzigarren poematik hartua eta galdu genuen poeta parista-rez gogoratu nahirik. Poemok Andolin Eguzkitzak bilduak dira eta bere hitzaurrez aurkezten dizkigu.

Mirande euskal poesia berriaren gurasoetariko bat izanik, liburu honen garrantzia agiri-agirian dugu. Haren poemak ezagutu gabe ezinezkoa litzagu ke gerraondoko poesia berria behar bezala ezagutzea. Liburu sailik berriena dugun Kriselu argitaletxearen hamaseigarren alea da. Kriseluk, bere bizitza laburrean, hainbeste liburu eman dituelarik ere, harritzekoia izan da Eibarren maiatzaren 29 eta 30ean izan den liburu azokan ale bat bera ere ez agertzea. Honelako hutsuneak ulertu ezinak dira, eta ez dio onik egiten gure literaturaren mugimenduari.

Jon Mirandek 47 urte zituen hil zenean, 1972ko abenduaren

28an hila aurkitu zuten. Parisen bertan sortua zen 1925ean, eta garaiko kezkei loturik, beste zenbait joeren artean, bere gizaldiko esistentziari buruzko pentsakerak ere ikutua zen eta eragin horrek era-man zuen honako poemagintzara:

*Bihar edo etzi  
non naiz neu izango?  
(Ai! ez naiz ordungo,  
negar dagit asko,  
gorputz, bihotz-minez,  
gauzetako minez.)*

Baina bere poeta nortasuna ez zen esistentziaren aldetikako joera horregatik, baizik beste zenbait gauzaren artean, bereziki, gerriaondoko poetei mezu berria ekarri zielako. Aspertutako topikoetatik at eta erromantiko atzeratuetatik at, esan-nahi berriak ekarri zituen, arnasa irekiagoarentzat haize berriak ekarriz.

Gogotik estudiatzeari eman zen, baita beti bakardadeetan ibilia eta buruan sartzen zitzaizkion ideiak aski erradikalizatzen zituen. Europaren egoeraz, nazi-faszista politikaren joeretakoa zela jakitza aski da, bere kasketaldien berri jakiteko. Bere kaxara ihardutze honek ez du esan nahi ideietan eta ekintzatan alde onik ez zuenik, ez da gutiagorik ere. Maiz, holako izakerazkoegandik

probetxuzko ideiarik asko irten izan du eta Mirandegandik ere ikaskizunek jaso dugu. Batez ere gerraondoko gizaldia literatura berritzera bultzarazi zutenetatik pertsonaiarik berezienetako bat zen Jon Mirande.

Emakumezalea zen eta amoriozko poesiari ere libreki emana zen, hemen garai hartan ohi ez bezala. Behar bada Etxeparekoaz geroztik euskal literaturan ez zen aditu bera bezalako poesiari:

*Ez lotsa izan,ene hau, othoi,  
bekhatu del'egiten degun hoi.  
Nurk daki bekhatia zer dene?  
EZ zuk, ez nik!... Zerbait dakit hale  
zirela eder badakit doi-doi.*

Honela, lasai agertuko zituen bere usteak inguruko giroan nola hartuko ziren begiratu gabe. Dena dela, zintzotasunik inork ez dio ukatuko.

Era berean agertu zituen bere ideiak “Euskaldungoaren etsaiak” izeneko lan hartan (ikus Gernika aldizkariaren 23, zenbakia, 85-87. orrialdeak. Buenos Aires-en 1953an argitaratua). Horrek ez zuen bere alderako giroa hobetu. Eta Euskaltzaindiak “bereak eta bost jasan” zituela, ez zen izan A. Eguzkitzak liburuaren hitzaurrean dion bezala. Urgazle zen, baina euskaltzain oso izateko ezin izan zuen arautegiak eskatzen duen gehiengo kopurua lortu. Horren arrazoik argi daude. Eztabaidarik izan bazen ere, gehiengoa bere alde ez zuenez, alperrika-

koa zen bere izena aurrera eraman nahi izatea. Nazien ekintzekin sofrikarioan bizi behar izan zuten ifarraldeko euskaltzaineik ez zuten gogozko. Hori zen guztia. Beraz, hobe da gauzak beretik atera gabe uztea.

Euskal poemagintzara ekarri zigunik hoherena, zera zen, hizkuntza poetikoaren indarra, adierazpenak egoki agertzeko era beretza, irudimenari bide irekiagoak ematea; aldiz, esakuntza, neurri eta puntuari hainbeste garrantzi ez ematea. Eta, hori, bere irudimen paregabeearen bidez ongi agertzen zaiguna da. Hizkuntza erabiltzeko eraz, holako goxotasun eztitsua nabari baita haren poemetan. Har dezagun adibidetza Undina-ren lehen beretsoa:

*Itsaso hurrunen harmonietan  
Uhinen alhaba jaio zinaden.  
Geroztik zabiltza zure orhoitzan  
uharte gardenak ezin eriden.*

Egia esan, Parisen sortu bazen ere, gurasoak Zuberoarrak zituen, eta Zuberoaren artean ohi den bezala, herri kantak ongi ezagutzen zituen. Zeren Miranderen poemetan eta gaineko zenbait lanetan argi asko nabari da herri kanten ezagutza hori.

1970ean, Lur editorialak Miranderen *Haur besoetakoa* deritzan eleberri laburra argitaratu zuen eta hura izan zen bere biziak euskal euskarazko lehen liburua.

Artikuluak, ipuinak, saioak eta itzulpenak pilaka argitaratuak dira

euskarazko aldizkarietan: *Gernika*, *Euzko-gogoa*, *Elgar*, *Egan* eta *Igela* izenekoetan bereziki. Orain, A. Eguzkitzari esker, lortu dugu bere olerkien bilduma.

*Orhoituz* liburu honetan bada poesia polit eta hunkigarririk eta oharretatik ikus genitzakeen urteak gogoan edukitzen baditugu oraindik gogozkoago izango di-

tugu. Honako hauek politeneta-koak noski: Igelak, Akelarre, Jauregi hotzean, Orhoituz, Neskatxak, Paris-beuret, Zakhur hil bati, Nil igitur mors ets... eta Oianone.

(1976, *ekaina*).

## G. ARESTIREN POEMAK

Azken hilabete honetan asko idatzi da Arestiz. Bi liburu handitan bere poemak argitaratzeaz, gure poeta diskutigarri baina handi honen hotsa zabaldu da Euskal Herriean. Ez nuke esango denak ez direla izan bere obraren ongarri, baina, zalantzak gabe, gure poeta hau lehen baino zutituago, lerdenago eta aldi berean sakonago kokatu da.

Kriselu argitaldariak berebiziko merituak irabazi ditu Obra guztia ikango den lanaren bi tomo mardulen bidez Gabriel Aresti zenaren poemarik gehienak argitaratzeaz. Poemarik gehienak, baina ez denak. Hasierako oharrean esaten denez, "garai zoriontsuagoen zain" gelditu dira beste zenbait poema; zentsuragatik nonbait. Baina horren beldurrik gabe argitaratzekoak ziren lehen parteko *Euzko-gogoa*-an argitara eman zi-

tuenetarik asko eta Europako literaturan modaren bizkortasunean igaro eta suntsi zen absurdoz duela hamabiren bat urte egin zituen haietako bat ere bai. Gainera, ez dakit non izango diren ber-berak irakurtzeko utzi zizkidan haitari-ko batzuk. Garai hartako modaren saio bat zen, *Harri eta Herri-gandik* laster idatzia. Askorentzat poeta madarikatua bazen ere, garai hartan era hartako guziak argitaratzera heldu balitz madarikatuagoa bihurtuko zen, bere buruan kaltean.

Dena dela, guztia ez bada ere, argitaratu diren bi tomo hauetan agertzen da bere poemagintzaren mamaia.

Ibon Sarasolaren hitzaurreak irakurleari argi asko ematen dio G. Arestiren poemak ulertzeko. Jon Juaristiren ondoko hitza bera ere interesgarria da.

Hiritar poesiagintzan, hala gizarte auzia gaitzat harturik, Lauaxetak beste inork baino lehen idatzi zuen euskal literaturan. Bainan hala ere, Aresti altxatzen zaigu era horren pioner. Lauaxetak, euskal literatura garaiko modetara eramateko era askotariko saioak egin zituen, baina Arestik gogotik ekin zion bere barne muiñetatik sentitzen zuenez, sufritzen zuenez.

G. Arestik, *Maldan behera* (1959) baino lehen ekin zion bere bide berezi bat. Bere izate-gogoak markatu zion olerkari bidea eta inguruau sumatzen zuen girotik bere barne kezkatian egosirik irauliz jardun zen. Holako gogoak bultzaturik zetorrenak adierazpen tresnak hartu zituen eta lanerako jakintzaz hornitu zen. Ez zen bat-batean sortutako poeta. Eta *Euzko-gogoa-ko "Godalet-dantza"* (1954), bere hizlaxozko oharrez hor dugu lekuko, gure poetaren egunsentian. Shakespeareren hamalaukoak emango zion bertsoak taxuratzeko irakaspena, Krutwigek kultur euskararen egarria piztuko zion eta J. Mirandek hizkuntza libreagoarekin baliatzeko sena.

I. Sarasolak argitasun anitz eman badigu ere, sakonago aztertu nahi duenak, "Godalet-dantza" deitu iturburueta jo beharko du.

Gabriel zena ez dakit zerkeraman zuen bere poesi-tresnatztat euskara hartzera. Gazteleraaz errazago zuen, gurasoegandika-

ko hizkuntza zuenezkerro. Bainan hau argitzeko ere kaku anitz badugu bere poemaintzaren barna. Mespreziaturik, bazterturiak, marjinaturik dagoenaren alde maiz, maizegi edo kasik beti, agertu zitzagun. Marjinazio horrekin bat eginik aukituko dugu, bere buru marjinatuaz oinaze mingotsak leporatuz. Gure herri honen egoera lazarriaren bidegurutzean noraezean, eta era berean gure gizon izatearen esistentzia larriaren aurrean. Gainera, ber berak zioenez, "Bilbao deritzan infernu honetan...". Problema larrietatik irten ezinik. Izatea bera ere aski problematikoa aurkitzen zuelarik, ez da gauza erraza irten biderik aurkitzea. Holakoa zuen poetak izatearen malura. Besterik eskatzea, alperrikakoa zen.

Ibonek, bere hitzaurre jakingarrí horretan, gizandien erortze eta ehortzez Arestik zeraman larrimina agertuko digu *Maldan behera*-ri egiten dizkion aburuz. Gero, baita ere, bide urratze haiek utzirik eta gizon zapalduetan bere burua bat eginik, justiziaren aldeko borrokara jotzen, hizkuntza gihartsu eta zuzenago batetikin. Bertako esaldi eta humanismoak, 1963an, benetan liluratu ninduan, eta *Maldan behera* deritzanari ezer kentzeke, *Harri eta Herri* goraipatu nuen eta dut. Nik orduan esan nuenaren haina Mikel Lasak bere iritzietan agertuko zuenagatik. Honegatik, gaur, euskara edozeinentzako tresna dugu. Honekin ez dut esan nahi

gizon bakar baten eragina zenik eta gizon hori G. Aresti zenik. Baizik, giro baten inguruko seme eta inguru horren adierazpengarriena berau dela baizik.

G. Aresti poeta handiaren bi era nagusiak ordea, hor aurkitu genezazke, *Maldan behera* eta *Herri eta Harri* liburueta. Hala ere, gainerako guzia ez da baztergarri, ezta gutiagorik ere. Ondorenkoak bigarrenaren jarraipenez datozen, eta azken poemetan, *Azken Harria* deritzanean, gora-behera handiak nabarituko ditugu, maizegi minkor eta irainkor. Hilobira eramango zuen gaixoaldiaren lekuko.

Batzuegandik entzuna dut bere poemagintzaren topea jo zuela. Nik ez dut halakorik uste. Oraindik gazte zen, sortzaile ahalmenen jabe gainera, eta denborarekin aurkituko zuen bide berririk ekintza berri baten barna, beste poeta askorekin gertatu izan den bezala. Hori bai, aitorru beharrezkoa deritzat, bere azken poemak ez zirela 1958-1964 urteetan egin zituenen mailakoak.

Arestiren poesiak askok uste baino erresuma zabalagoak harzen ditu, gizonaren esistentziaren larriminezko kezkatik gizarte auziak zehar gizon apal eta langilerien eskubideen borrokara artekoak. Izatearen gogoetazkoak ez

dute izan gizarte borrokakoak hai-nako harrerarik, gizonok barne-gogoetazko saioeri gutiegi emanak garenez, baina Arestiren lana sakonki aztertu nahi duenak bi eratako munduok gogoan izan beharko ditu. Sarasolak aski ongi erakutsi digu hau, eta oraindik ere zirrikitu asko, ilunbeetan ere argi mehar asko eta zigilurik ere anitz dugu Arestiren poemetan zehar.

Berekiko kontradizioak izango zituen, baina besteentzat ere kontradiziorik aski utzi du. Poeta euskalduna erdaraz isilpeko paperen bidez salatzen zuten "abertzale" haitaz hobe dut hitzik ez egin. Baina bai aitorru behar dut kanta-berrigintza bere poesiak bultzatu zuela. Baina, aldi berean, kanta berrieta ere, maizenik, borrokazko kantak soilik hartzen dituztela, bestelakoik ez balu bezala. Eskergarria da G. Arestiren omenez Oskorrik atera duen LP diska, doinuz oso ongi jantzia eta N. de Felipek ederki kantatua. Baina hemen ere joera batekoak soilik hautatu dituzte.

Kontradizioak berriz, gure herrian bizirik dauden errealtitatea besterik ez dira. Har poetaren muinetik, azaleko gauzak albora-tuz.

(1977, otsaila).

## ZUBEROA GAINDI

“Orhiko xoriak Orhin du lakezten”, hala dio Zuberoako esan zaharrak, eta ez da harritzeko ziberoarrei beren lurraldea laket iza-tea; ez bai du Euskal Herri guziak Zuberoan pareko den tokirik, lurrez ez ezik herriz eta herritarrez. Hala ere, Zuberoa hustutzen ari da. Barkoxeko Etxahun (Pierres Topet) zenak Ofizialenak deitu khantorian esanak iraunen bai du oraindik orain ere:

*Oi laborari gaxua,  
Hihaurek jaten arthua;  
Ogi eta ardu geñhatzen auherren  
/asetzekua,  
Halere haiñ haie maite nula artza-  
/ñak otsua.*

Koblakariagandik mende bat geroztik ere egoera berak iraunen du eta xiberotarrek ez dute beren herrian bizibiderik. Etxez kanpotik behar diren osagarriak oso nekezak dira lortzen; eta Zuberoak behar dituen erremedioak Parisko gobernuaren esku daude.

Aspaldi delarik, Zuberoara osterraren bat egin gabe urterik igarotzen ez bazait ere, aurtengo udaran bi egun t'erdi eman ditut Zuberoan, oroitza zaharrak berrituz eta egungo egoeraz jabetuz. Pirineoetatik itzultzean, Olorondik sartu nintzen Pettarra haranera. Olorongo erromanikoa-

ren arte aberatsa ikusiagatik, hala ere, bikaina iruditu zitzaidan Ospitale-píako Saint-Bladi. Izan ere hain da berezia erromes ospitalaren eliza erromaniko hau, griego gurutzadun zoladura eta sabai-uztaiak zortzi puntadun izarra osatzen dutela, Nafarroako Torres del Río-koaren erara. Bere tipian ere badu bizantino arkitekturaren tankera.

Ospitale-píatik aisa ginen Mau- len, Zuberoako hiriburuan. Baina, Zuberoak, Pettarra baino atseginagoa du Basaburua eta harat abiatu ginen, baina ez lehenago Arballa handiko Gotañen geldiune bat egin gabe. Bertako elizak, Ziberoako beste anitzek bezala, dorre hirukoitza du. Hauetako gehienak Pizkunde garaian eraikiak dira eta teilituak ere, bertako etxeak bezala, arbelezkoak eta gailur zutiz eginak dituzte, Pirineoan barna aurkitzen direnen bezala, elurrik errazago erortzeko eginak.

Gero, Zalgize igaroz, Irurin sartzen gare Basaburuako Ibai-exker eskualdean. Barkoxetik igarotzean lehengo Etxahunekin goratzan garen bezala, Irurin ere Etxahun koblakaria (Piarres Bordacarre) datorkigu oriomenera. Eta, Atharratzera heltzeaz, abuztuaren 26an, ostiralez, azokarekin

aurkitu ginen. Euria gora-behera, jendetza handia bildu zen salerosketaren inguruan eta egun euskarra da nagusi. Gu ere, jendartean nahasirik, entzumena eta ikusmena adi, harat-hunat genbiltzan. Plazako liburu-denda batean euskalrazko sail bat ageri zen eta hara nondik izan nuen *Etxahun-Iruri Khantan* liburu ederra erosteko aukera. Txomin Pellen idazlea ere egun han zela jakin genuen baina ez genuen elkar ikusi.

Xuberotar euskalkiaren doinua goxoa iruditzen zaigu. Ongi uleritzeko inoiz ez dugu izan eragozpenik, poliki mintzatzeko ohitura dutenez, konpreniarazitzeko eraz jarduten dute. Gure eleagatik laster esaten zigutene: "manesa zira", baina ez arrotz. Non-nahiko euskalduna anaiatzat hartzeko herri jatorra dugu Zuberoa.

Urteak dira xuberotarren artean halako egunak igaro nituela, eta iraganaren oroitza datorkit bihotzaren alaigarri.

Hurrengo egunean, Atheréitik Lígi barna, Santa-Engraziko Kakuetara heldu ginen. Inguru haiiek ikusiz, gure Unaik esaten zidan: Gipuzkoako parterik politenak bezalakoa edo politagoa da Zuberoa guzia. Hala da izan ere. Bainax bertako jende atsegina lurrualdea baino estimagarriagoa noski. Non-nahi duzu adiskide bat laguntzeko gertu, eta arratseko azken orenetan amestu ezinezko kanta hunkigarriak entzuten dira edonon. Tristuraminez kutsaturik gehienetan, baina hala ere, nork

lezakeen horien abotsez eta sentipenez barneminak haizetara ager.

Ibai-exker garaian Kakuetako haitzartean ibili ginen, euria ziharduen arren, ibaian zehar, bide-txihurrez eta zubitxoak igaroaz, mendarte mehar haiiek inoiz baino politagoak iruditu zaizkit. Euria gora-behera, urak irtetzen diren haitzuloraino heldu ginen. Ur hauek Ernazko lepoan dagoen leza batetik lurpeko eremuetan aurkitzen den ibaiarenak dira. San Martin Harriko leza, orain Lepineaux leza deitua (aurkitu zuenaren deituraz) bezala ezagunagoa da.

Duela hamazazpi urte zortzi egunez ibili ginen leza horren barrutik Verna deritzan tokira arte. Orduko ikerketa eta neurketari esker ireki zen Santa-Engraziko Harphidiatik tunela eta egunen batean turismorako eran jarriko den ustea dugu, zeren hain ederra eta handia baita harpe horren Verna delako parajea.

Eguna bukatzeaz, Santa-Engrazia bisitatu ondoren, Montoritik zehar ginen, Aretatik (Biarno) Arlasen hegietatik gora Ernazko lepotik Belaguara jaitsi eta hemendik Izabara (Erronkari) joateko.

Hurrengo egun batean Orhiko gailurrera heldu ginen, "Arranoak bortietan gora dabilta hegaletan..." kanta gure ezpaintedan genuela. Gaur oraindik, oroitzapenok berritzean, hartuko nuke ofizia Iratirat Unai, baina... Zuberoatik hain urrutti bizi beharraren damua.

Euskal Herrian ez da mendirik Orhik bezainista ederrak dituenik. Ekiadlera, Pirineoko mendi katea, lehen partean Auñamendi eta Hiru Errege Mahaia direla; hegao dera, Saraitzutik behera Nafarroako erresumaren zabala agerida; mendebaldera, Iratiko ohianak eta Atlantika aldera eten gabeko mendi tipien kate luzea; ifarrera, azpikaldean eta hurbil, Larrañe, baserri txuriak mendi maldetan di-tuelarik, Bereterretxen khantorian oroitza dakarkigun Andozeko ibarluzea, Atharratze, Zuberoa oro, Garaziko Behorlegitik Biarnoko Aramitze aldera, gibelean Frantziazko zelai zabala agerida. Hain bat-karti eta zut egotetik du Orhik ikuspegien aukera eder hau, Pirineoko mendebaldetik bi mila metroko mendietan lehena. Orhi, Nork ez laket? Orhi eta Zuberoa, elkar txarmangarriago egiten duten parajeak dira.

Edozein euskaldunentzat interesarria da Zuberoarekiko harremana. Euskaldunok elkartzen gaituen sustraien erroak modako politikarien uste arinak baino sakonagoak dira. Eta hau berau ondo konprenitzeko ere, eukaldunok, guk geuk, geure herri eta herritarrok hobeto ezagutu beharra dugu. Honetaz eskolatik ez baitzuten ezer irakatsi.

*Orotarik baztertua eta ahantzia,  
Ihala dugu Zuberoa:  
Mertxikaren loriaren ederra  
Barnean du hezurra gogorra.  
Maitatu dut izanen ez dudana  
Horrek baitaut bihotzean pena.*

Eta behar bada halako samin-duraz sentitzen zaitutene barnean hain zorabiagarri zaren Zuberoa.

(1977, iraila).

## VICENTE ALEIXANDRE ETA

### 27. BELAUNALDIAREN ERAGINEZ

Pozgarria iruditu zaigu aurtengo Nobel saria Vicente Aleixandreri ematea, batez ere, saritzearen muinean, 27garreneko belaunaldi edo gizaldiaz gogoratuz eman dutenez. Suediako Akademiak bere politika jokatu du hemen, Espainia egoera berri baten aurrean ikusirik. Guk nahiago genuen sari hau lehenago etorri izan balitz, bidezkoagoa ez ezik zuzenagoa ere izango zen... eta suediar Akademigandik joko garbiagoa ikusiko zen. Bainan, hala ere, betor ordu onean.

Vicente Aleixandre Sevillan jaio zen, 1898an, baina bere haurtzarorik gehiena Malagan iragan zuen, eta hiri eta itsas-hegal honek bere poesian zer ikusi handia du. Poesiako etorriaren eta adierazpenaren indarrak nabari ditu Aleixandreren obrak; kosmosarekiko elkartasuna lehen batean eta gizartearena gero, inguru hoien muinetalik aritu da urteen buruan.

1928. urtea daroa bere lehen liburuak, *Ambito* deritzanak. Geroztik eten gabeko lana eraman du. 1960an, Madrileko Aguilar argitalxeak eman zuen poesia bilduma bat, orduarteko guziak, Carlos Bousñooren hitzaurrez. Bainan, nire ustez, ez da ezagunegia izan, 27eko beste asko bezala.

Izan ere, belaunaldi honen i-tzali nahia gogorra izan da. Bainan, hala ere, ondo zabaldua jarri da bere eragina. Gaztelerazko literatura, lehen lehenago poesiaz hain aberatsa zena, urte askotan motelasunean eroria egotetik salbatu zuen belaunaldi honek. Orain, bere eraginari esker, berriz ere poesia irakurtzen zen, konsideratzen zen, eta ez da guti. Ondorenez belaunaldi berriak etorri ziren. Eta euskal poesian ere igarri zen haien eragina.

27eko belaunaldi honetatik entzutetsuena Federico García Lorca zen, heuren artetik bizkorrenetako, bai ideia berriak ekartzeaz eta baita ere irudimeenez. Berak eraman zuen heriotzak ere fama zabaldu zion. Aleixandre berak hala esango zuen ehortze honengatik:

*¡Ah, ciegos hombres que banales  
/marcháis  
pisando un pecho! ¡Ah, ciegas, deli  
/rantes que un día  
segasteis una vida poderosa! ¡Ah,  
/espumas  
instantáneas, ah, humanos sin ma  
/ñana, ah, olvido!  
¡Ah, corazón constante que, inmor  
/tal tú, retumbas!*

Federicoz gainera beste izen batzuek ere hornitzen zuten talde eraginkor hura; hitzekin jalasean

ari balira bezala literaturaren aloorra eraberritu zutenen arteko: Jorge Guillén, Emilio Prados, Gerardo Diego, Rafael Alberti, Dámaso Alonso batibat, baita ere barnean sartuaz taldeko zaharrena zen Pedro Salinas eta gazteena zen Luis Cernuda. Eta, azken gudatean, Federico García Lorca pagurik txarrena eraman bazuen ere, batzuek presondegia irabazi zuten eta gehienek herbesteetan barreiaturik ikusi ziren. Aleixandrek Pedro Salinasen heriotzari eskainitako poesian hala aitortu zuen. Denak irten ziren, denak batean une berean, bide desberdin tarako.

Baina batzuk ez ziren inoiz itzuliko. Herbesteko lurretan utzi zituzten beren hezurrak.

Belaunaldi hau, simbolismoaren ondorenatik errealtitateari aurpegia emanez lirika berriaren sortzaile bihurtu zen. Beren eraginaren kutsapenak gazteleratik harat ere joan ziren. Euskal literaturara ere bai zerbait. Bizkaitarretan Lauaxeta eta Sabin Muniategi ditugu lekuko. Bainan, egia esan, Lauaxetak beste iturri batzuk ere bazituen. Izan ere, Lauaxeta, euskal poesia eraberritzearren zale zenez Europako korront berriestatik ibilia zen. Mallarméren ondorengoa etatik,

Valéry-rengandik Ungarettira arte behin behin, eta 27.eko belaunaldikoak ere hortik ibiliak ziren, nahiz eta beren aitabitxirik hurbilenak Antonio Machado eta Juan Ramón Jiménez izan. Rubén Dario-ren ere zerbait bazuten eta behar bada gure Unamunorenik ere bai.

Aleixandreren Nobel saria 27.eko guzien ohoreraso heldu da, guzien ohoreraso baina Vicente Aleixandre ber berari ezer kentzeke.

Poeta honek, bere estudioak Deretxo eta Komertzioa izan zituen eta gai horietan irakasle izana. 1934an ezagutu zen Literaturazko saririk handiena hartu zuen *La destrucción o el amor* zeritzan liburuagatik. 1950ean Real Academia Española numeroko izendapena hartu zuen.

Hitz-lauzko liburuak ere idatziak ditu: *Mis encuentros, Nuevos encuentros* eta abar. Bainan bere dohainik berezienak poesiaz agertu ditu. Arestian aipatutako *Poesías completas* (1960) delakotik aparte, nik dakidanik, geroztik *Poemas de la consumación* (1968) edo izanen da.

(1977, urria).

SALBATORE MITXELENA,  
ABERRIMINAK ERAGINDAKO OLERKARIA

*Zein ederra dan  
olerkaritza  
bihotzak min duanean!*

Aitortu zigun Salbatore Mitxelena zenak bere poema batean. Zerk mintzen zuen? Sukarrezko kristau fedea eta aberriak mintzen zuela esango nuke.

Bere gaztaroko giroak eman zion gogoetarik aski hitzaren artegintzarako. Gudu izugarri baten ondorena eta bere herriaren galzoriak eskaini zizkion gaiak, baina baita fedea larrimindurik aurkitzeak ere.

Bere poemak epikoak dira gehienbat, baina lirikaz ongi jantzirik. Bertso egituretan berriz euskal kanta zaharren eta bertsolartzaren estiloak erabili zituen gehienbat; baina, baita ere, bertso libre erritmoz hornitua.

Gerrak haustutako zaborretatik nekeza zitzaion lirika berri bat sortzea. Inguruau aurkitu zuen egoera latzak minberaturik, gogoa jaso nahirik eta ideal bati begira. Ideal hau, fedea eta Euskal Herria zituen. Eta hemendik, garai hartan, ezin zen atera oinazezko ez zenik.

Baina, oinazezko egunok, bere gogorako, bazuten gordeleku bat: Arantzazuko Amaren itzalpea. Horretatik sortu ziren *Arantzazu, euskal poema* (1949)

liburutik hasi eta *Ama-Semeak Arantzazuko kondairan* (1951) eta *Ogei kanta Arantzazuko* (1952).

Arantzazu abarotzat hartze hau, L. Villasantek dioenez, Montserrateko Virolairen bertso hora ezagutu gabe izan behar zuen:

*Amb vostre nom comença nostra  
/historia,  
i es Montserrat el nostre Sinaí.*

Zure izenarekin hasten da gure historia, eta Montserrat da gure Sinaí. Arantzazuko kondaiaren poemok izan baitziren Salbatore zenaren lehen lanak, lehen aberriminak. Sofrikario baten aterpe Arantzazu zelarik. "Euskal fedea, beratan, bidazti, aldapaga, nora datorren jakiteke". Bere ikuspegitik eta bere gaztaro hartan hala ikusten baitzuen:

*Zuk zer dezu, Arantzazu!,  
ames-kabi, erti-leku?...  
Euskalerria oso-osorik  
kantari dijoakizu.*

Aztertzeko litzateke orduko giroa, Salbatore zenak hala ikusi zuen hora: herri baten iraupen nahia edo hil nahieza. Zapaldurik ere bizitzaz iraun nahirik, baina izu eta ezin aurrerapiderik aurkitu. Eta ezin honek bultzatu zuen, hala deritzat, herria bera Arantzazura babes bila. Ahalmenik ez zu-

tenek ere zerbait nahi; nahi baina ezin. Aldi ilun hora ezagutu zuen gure poetak, bere obrak hala jasoa duenez. Horregatik aitoratu zuen: "honako poema hau ez dala iñorena, ez nerea. Baizik Herrirena!".

Bere garaiko gizonarentzat kantatzen duen poetak, betiko gizonarentzat kantatzen du. Giza esistentzia ez baita belaunaldi soil batena, baizik trasendentziarena, ororena, betikoa eta toki guzietakoa.

Honegatik esango nuke, lan ederra egin digitela bere obra guzia bi liburukitan jaso dutenek. Behar beharrezkoa genuen, zeren aspaldi ezkutuegi gelditua zen euskal literaturarentzat hain garrantzitsua den autore bikain hau, batez ere gerraondoko lehen ekintzaren eragile eta egi-lerik aipagarrienetako bat zenez gero.

Aldi hartan, gure poeta hau, ohartua zen transizioko poemagintzaz ari zela, berbilaketa aldia zela. Honegatik beronegatik hartu zuen herritar estiloa, ber- tsolari nahiz koblaikari eskola za- harretatikoa, lokarturik zegoen herria iratzartzeo hain beharrezko. Hala ikusi baitzuen "Herri bat guruzbidean", nahi eta ezinarekin borrokan. Urte ilunak haiiek, aterpe edo babes leku bat nahirik eta herria izuaren isilean. Dena zen eremu, eta eremuaren erditik Salbatoreren oiartzun ozena jaiki zen: "Aberriak min dit".

Beretzat, "Euskalerria lehenago, barruko edozein alderdi baino". Gaur ere oraindik zer leizio ederra gure ikasbiderako.

Sentipen horiengatik hartu zuen "Gurutz bidean"erako Una-munoren esaldi hora: "*Un misere-re cantado en común por una mu-chedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía*". (*Del sentimiento trágico de la vida*) Bizitzaren sentipen trajikotik hartua dela laster ohartuko gara.

1954. urteko garizuman, Eibarren Mixioa eman zuen, E. Agirretxerekirik batean. Hortarako ohiturrik ez zuten eibartar asko ere han zen San Andres parro-kian. Asis-koak berak ere ez dakit eibartar gehiago bildu ahal izango zuen, baina bai badakit han zen pizti bat ez zuela baretu, eta laster joan zela Donostiara Gobernu Zibileko agintariengana salatari. Gerrotzik apenaz uzten zuten baketan eta, uste dut, asperturik joan zen Ameriketara mixiolari.

Bihotza hemen zuen batentzat ez zen aukerarik hoherena. *Erraun ta amets* (1955) liburua kaleratzeear zeukan une berean abiatu zen:

*Lur ezaguna utzirik  
banoazu iraduz.  
Zurekin bat eginda  
nik atseden Jesus!*

Herbesteratzean argitaratu zituen *Euzko-gogoa-n* "Gurutz bidean" eta "Bizi nahi" (1955) zeritzan poemak, lehenago idatziak non-

bait. Oso biziak, eta biziak haina minak. Hori bai, poema bizkorak eta eraginkorak. Gure artean egin den epikarik gailenenetako bat.

Orduan ez zen zabalkundea eratzeko biderik. Ez zen ahal. Eta bere poemaren mensajeak etzuen izan hedakunderik, beste olerkari guti batzuen baitan edo izan ezik. Bainan, Arantzazun han utzi zuen eskola: bere lagun Julian Alustiza "Aztiri", bere ikasle izan zituen B. Gandiaga eta A. Bilbao, horrela, Joxe Azurmendira arte katea bat luzatuz eta orain, beren fruituak, poeta berri askoren emaitzetan nabari dira. Salbatore gabe oso nekez edo hain aberats izango ez zena, noski.

*Unamuno ta abendats* (1958) saiakera liburua, bere azken lana, aurretikoekin loturak gabekoa itxuraz, baina funtsean honek ere zer ikusi handia du, bere barnekezkaren prolematika eboluzioa hain nabarmen aurkitzen delarik. Lan hau, lehen aldiz, bertsoz idatzia zuen, bertso librez gehiena eta, argitaratze orduan, zenbaiten eskariz hitz-lauz jarri zuten, irakurgai errazagotzat. Zaitegiren eskuak ezagutu nuen bertsozko hura, "Unamuno ta gu" izenburuz, eta hunkigarriagoa iruditu zitzaidan. Bere taxuraren eredu zitekeena *Unamuno ta abendats-en* azken orriean aurkitu dezakegu.

1970ean *Jakin* sortak elkarlanean prestaturiko liburua eskaini zion, Salbatore Mitxelenaren bi-

zitza eta lanen berri emanaz. Bainan lan batzuk oraindik argitaratu gabeak zeuden eta beste batzuk aldizkariaten sakabanaturik. Poetaren lana ezagutzeko, horregatik genuen hain premiagarria lan guzien bilduma hau, orain bitomatzen horniturik datorren bezala, are gehiago poeta bera aldi berezi baten seme eta adierazle zezagatik.

Zarautzen sortua zen, 1919an. Gaztetxo hartu zuen fraidetzarako bidea eta Zarautzen hasia zituen ikasketak Arantzazu, Forua eta Oliten osatu zituen.

1954. urtearen azkenaldera joan zen Ameriketara eta gero handik Suizara 1962an. Handik hiru urterak hil zen Suizako La Chaux-de-Fonds hirian 46 urte zituela.

Herriari herritar eskolatik hain bikain kantatzen jakin zuen poeta bihotz-mindua, egoera latzean, etsi ezinez, atsekabeturik joan zitzai gun. "Aberriak min dit". Eta, maitasunak sufritu eragin zion herrikilik urrutti, arrotzen lur hotzeten, aurkitu zuen heriotzak. Bainan gure literaturan ondo merezia du ohorezko lekua.

*Urretxindor kantaria  
baso-basoan gordia  
gau eta egun ospatzen da ari  
maiteño ta habia.*

(1977, azaroa).

## BAKARRIZKETA MIKELI

Mikel: Nahiago neban orainarte lez alkarrizketaz jarraitu, inoiz eztabaidatzoren bat gora-behera, zintzotasunaren indarrez alkarren lagun ginalako; baina nork uste izango eban hain gazte joango zinanik? Orain, zure gomutaz, bakarrizketaz natorkizu.

Abade egin barri Geriako egotaldian ezagutu ginan alkar, *Zirikadak* eta *Eztenkadak* eskuan, inguru honetako umoreaz liluraturik gure etxera etorri zinanean. Txorierriko guraso hizkera jatorra zenduan iturburutzat, zeure amamaren esaldi eta berbetako erak gogoan harturik; harrobi aberatsa zenduan hizkuntzaren zimentarri. Honegatik, zu lez hornituentzat bihurtu zan euskara batua ebakuntza. Baina, halabe, ulertu zenduan bizi beharraren txertakuntzaz eta, nekeza izan baiatsun be, baturantz jo zenduan. Holan dira bizitzak lagatzen dituan zauriak.

Bizkai aldeko idazleak geuregan izan doguzen gora-beheretan, Azkue hartu zenduan mai-sutzat eta, honek irabazi eban ustekoa zinan, Bergarako Batzarrretan (1978. urtea) agertu zenduanez. Uste berekoa nozu. Norbaitek esana da, euskaldunon eta euskararen bakanaren kezkaz leherturik hil zarala. Horrek be, gehienori lez, bihotza eragingo

zeutsun, bai; baina, nire ustez, askoz be gehiago hainbeste lan zeure lepora hartu beharrak eta batez be hainbeste abertzaleren euskaraganako arduragabetasunak. Zerk eroan zinduzan bestela deituren eztabaidea eta matrakak sortzera, poesi liburuaren sarre-ra haretan?:

- “*Yo soy Barayazarra*”.
- “*Yo soy Apraiz*”.
- “*Yo soy Laibarra*”.
- “*Ni... Pérez naiz*”.

Egia esan, euskararen esparruan ez zenduan mugarik, euskaltzalerik gehienok eritzien gai-netik garalako anai. Hola agertu zenduan –agertu genduan–, De-rioko hilerrrian, gure Arestiren ehortze egunean, zu abade eta ni, Eibarren esaten dogun moduan, “*Kura laiko*”. Nire berba ahulak haizeak eroan ebazan eta zure otoitzta hor gelditu jakun:

*Gure Aita  
esan dut, Aresti,  
kaleko arkaitz,  
aurkako bidezi  
kontentagaitz.  
Gizarte kutsuaren  
parmaso berriko  
aintzindari,  
hizkuntza urbanoaren  
sortzaile taldeko  
mailukari,*

*Harri eta Herri:  
harritxo bat izan nahi nuke,  
harritxo bat nik ere,  
egunotan,  
harrizko herri hontan.*

Inork ez daki gogoaren indarra zer dan, neurtea nekeza danez, baina zertxobait probatua dogu euskaltzaleok gure aldazgoran. “Harritxo” bat baino gehiago izan zara harrizko herri honetan. Zure lumatik ipuinak, eleberriak, olerkiak, saiakerak... berrogeita sei urtera heltzeaz hamasei liburu eta beste bat bidean. Horrezgainera, jakintzaz jantzirik zinan, eta gazteak eskolatzen egin dozun lanez, hor ditugu euskaltzale helduak, euskaldun barriak eta idazle ikasiak, zure bakardadeko:

*Numenaren inguma,  
isilaren atsegina,  
mahai, liburu, luma...,  
eta anitz zeregin.  
Zure eten bako gogo betean ekinaren  
Ifrutu.*

Herriaren euskara bizitik jasotako gatza eta piperra be erabili zenduan, gure literatura indartzearentzat uulta eskainiaz. Umore bizia, umore zintzoa. Hori azaldu zenduan zeure ipuineta, baina batez be lagunarteko alkarrizketak alaitzeko. Zuk kontatutako pare bat hizkirimiri edo txiste agertu nebazan “Usteak” zeritxon artikulu batean (Donostiako *Hoja del Lunes*, 1978-XI-13) eta, handik lasster, Timoteo de Urkiri, CMF, dalaiko bategandik, asto-baltzarenak jaso nebazan, gutun irekiz (*El Diario Vasco*, 1978-XI-16), “su escrito

*podría figurar, y, con bastante empaque, en una antología de prosas anticlericales” esanaz. Gertaera hau zuri kontatu neutsunean, aze barreak egin zenduzan. Eta, nik dakidanez, egundo ez neban idatzi hura baino artikulu klerikalagorik. Abadiak kontatua gainera.*

Kepa Enbeita “Urretxindorra” zanaren omenaldi egunean, Autsgagan alkarregaz afaldu genduan hara hizlari joan ginenak eta, ohi zenduan lez, danbolin ederra ipini zenduan afalkideen alaigarri. Nork esango leusku orduan hilebatzuk barru heriotzak eroan behar zinduzela?

Gure artean amaika jatordu alai ipinitakoa zinan. Agur eta gorazurre, adiskide maitia. Zuk emona, gure artean, ez da makala izan. Bai, Mikel Zarate adiskidea, zure heriotzagaz langile on bat eta adiskide hobe bat galdu dogu. Euskal-literaturan betirako leku egoki bat izango dozu; baina oindinok beharrezko zinan gure artean.

Bete ote zan zure gogoak gura ebana? Ezetz esango neuke. Bainaz ezta izan zure ahaleginen faltaz, ez. Nekeak ito zaitu bidean, Mikel, baina zuk ereindako hazia lerden dator eta itxaropena etorkizunean:

*Europa zaharreko  
erlikia lerden,  
bitxi zapalduaren  
nekezko iraupen:  
Europa berria dun  
hire itxaropen.*

(1979, ekaina).

## J. ZAITEGI JOAN ZAIGU

*"Gizonen eta aingeruen mintzaira oroz mintzatuko banintz, baina maitasunik ez banu, soinu egiten duen metala edo zinbal burrundari bat bezala [nintzake]."*

(Paulok korintioei, lehen gutunean. XIII, 1).

Gaur, abuztuaren hamazazpia, egun tristea izan dut. Erronkariko Izabara Jokin Zaitegi adiskide minaren hilberria heldu zait. Atzo hil omen zen Donostian, Probintziko Ospitalean, eta handik Oñatioko babesetxera eraman gaur arratsean Arrasaten ehortzeko.

Bihotzekoaz aspaldi zetorren osasunez gain beheraka eta itzaltzeko ordua heldu zaio, hiru eroialdiren ondotik. Lehen bietan Arrasateko Poliklinikan bisitatu nuen eta hirugarren honetan Donostiako Ospitalean. Ekainaren 19an, gure teknokrata kaxkagogor horietako bati "teknokrazia gehiegia ez zela ona, baina humanismo gehiegia ere ez", entzun ondoren. Baino, zoritzarrrez, gure herri honetan humanismo gehiegirik inoiz ez da eza-gutu. Ez dakit oraindik enteratua denik.

Ekaineko arratsalde beroa zen bera zegoen gelara iritsi nintzenean. Behar bezalako jabetasunik ez zuelako, han zen Pelikete Arrese

Paristik beste gabe etorria, hilzorian zegoenaren oheburuan. Jokiniek, ni ikustearaz bat, indarrez baino gehiago bere gogoaren eraginez, eskua luzatu zidan; nireen artean hartzeaz, so samur batez agertu zidan bere eskertzaren sentipena. Nik ordea, gizontasuna baino gizonkeria gehiago agertu guran, nire barne indarrok ahalegindu nituenene begiok malkoz ez bustitzeko.

Han konturatu nintzenez, euskararentzat hondasuna eta osasuna eman zuen gizonaren alde apeñas inor gehiegia arduratzen zen, Pelikene izan ezik, bizitzaren eta heriotzaren mugan egonarren. Nemesio Etxaniz jaunak maiz bisitatu izan du, baina gainerako euskaltzaleok, deus ez.

J. M. Satrustegirekin mintzatu ondoren, Euskaltzaindiak ordainduz, gaueroko zaintzaile bat jartzea erabaki genuen. Zeren, ohorezko euskaltzaina izateaz aparte ez zen alperrik gure historian euskararen alde gehien eman duen gizona.

Jokinek gizontasunean eta lan-giletasunean zuen kemena iaz adierazi nuen, bi artikuluren bidez (ikus, *Bidez liburuaren 424-432. orrialdeetan bildurik*). Orduan ez nuen pentsatzten heriotza hain hurbil zuenik.

Gure jakitun eta langilea, Goian bego. Bainak herriak, bereziki herri abertzaleak, oraindik ez daki nor galdu duen. Gure hizkuntzaren alorean inork goraipenik merezi baldin badu, lehenetakoan dugu orain joan zaigun Jokin Zaitegi jauna.

Gure historiaren ilunalditik etorkizunera begira bizi zen gure gizon hau, profeta baten gisa, herria bere mintzairarekin zuzpertu nahirik. Jaunak Isaiasen ahotik esana, beretzat pentsatua balitz bezala:

*Zoaz herri horrengana eta esaiozu:  
Belarriz entzuna, ez duzue adituko,  
begiz ikusia, ez duzue nabaituko.  
Mokortuta bai dago herri horren  
/bihotza,  
eta belarriak entzuteko gortuta  
eta begiak hertsia dituzte,  
begiz ez ikusteko,  
belarriz ez entzuteko  
eta bihotzez ez ulertzeko,  
onbidera etorririk, sendatu ez ditzan.*

(Bidalien eginak. XXVIII, 26-27).

Fariseorik ez zuen maite eta publikanoekin adiskidetasunez ibili zen. Apostolu grina zeraman, eta 1950ean, gure herriak jasan zituen ekaitzurteen ondorean, kultura aldizkari bat sortu zuen euskaraz, gure hizkuntza hau zapaldurik eta kinka larrian agertzen zen garaian, *Euzko-gogoa*. Non eta Guatemalan. Eta lortu zuen gogo-en iratzarpena eta bildu zituen bere inguruan munduan zehar deserriturik zebiltzan euskal idazleak eta aberrian argi bila zebiltzan gazte batzuk.

Guatemalako puntan lau urte- ren buruan iraunarazi ondorean, bere asmoak eta kemena indartuz, bere Lizeoa saldu eta Miarritzeria etorri zen, herriari bertatik hobeto zerbitu nahiaz. Eskuartean zekarren, euskarara itzulia, *Bidalien eginak*, eta bertako mezua ere bai nonbait: “*Itzuliko naiz, eta Dabiden etxe eroria berreraikiko dut, zati urratuak osatuaz berriz zutituko dut*” (Bid. e. XV, 16).

Eskaini zitzaison laguntzarik hartu gabe eta ekarri zituen hondasunak ahitu zitzaizkionean, berriz Ameriketara itzuli zen. Gutik ulertua izan bazen ere, aberriarekin eta bere gogoarekingo kunklitzak bete zituen. Euskara kultur mailarik gorenetara eramatea zen bere asmoa. Antzinako klasi-koen lanak zituen bere esperientziatzat. Hauek euskaraturik beharko dituela biharko euskal Unibertsitateak eta bere lanaren bidez exenplu ederra emanez gazteria bultzatu zuen bide berriatik, bakoitzak bere esperientziatik euskara lantzen.

Sofokles, Euripides, Platon..., hor ditugu euskaratuak.

Biharko lanak, lan ilunak; gaur egun gutik aintzat hartzen baditu ere, biharkoan ezagutuko dira bere merituak. Euskarak, biziko bada, hain beharrezko dituen lanak.

Ameriketan, berriz ere goldaketen, gure ikerriñaz olerki epikoa-ak osatzeko adorea izan zuen. Handik berriz itzultzean burutapen bakarra zuen bere gogoan; bizi zen artean Platonen lanen i-

tzulpenak bukatzea eta argitaratzea. Baino asmo hau zeharo bete gabe joan zaigu.

Horrez gainera, ahantzi ezinezko dira bere olerki sorketazko liburuak: *Goldaketan* (1946) eta *Berriz ere goldaketan* (1962). Zeren oroi 1934an “Tori nire edontzia!” zeritzan olerkiarekin Euskaltzaleak antolatu zuen Eusko Olerkiak lehiaketaren lehen saria irabazi zuela.

Bere ekintzarekin adierazpen ederra utzi digu. *Bidalien eginak* (1955) itzuli zuenean, haien gisa, lasai esan zezakean:

*Ikus zazute, nardatzaileok, harri  
/eta itzali zaitezte.*

*Zeren lan bat eginen bai dut zuen  
legunotan,*

*inork esan balezaizue ere sinetsiko  
/ez duzuena.*

(Bid. e. XIII, 41).

Testamentu berriko aipamen hauek, ez uste izan buruz nekizkienik, baizik noiz behinka gustatzen zait eta beharrezko dut Bibliaren irakurketa eta aurtengo oporraldietan nerekin ekarri du danez, egun triste honetan nire gogoaren kontsolagarri izan dut.

Bukatzeko esan dezadan, gure gizaldiko unerik nekegarrienetan Jokin Zaitegik egin zuen lana oso nekez sinestekoa dela izan ere. Honegatik, gaur, Euskal Herriko bazter honetan, doluminezko egun triste honetan, Agur! Jokin.

(1979, abuztua).

# BI POETAREN OROIMENEZ

## I

### BLAS DE OTERO

*Gizonarentzat ezer ezta beharrez-  
/koago  
itsas zati bat baino eta itxarope-  
/nezko  
bazter bat heriotza baino harun-  
/tzago.*

Blas de Otero.

Gure bizitzan zehar, giza-jakintza eta aberastasun guziak hutsa lirake poesiaren berotasunik gabe. Berotasun honek barne gogoa girotzen baitu, gizona gizonago egiteko.

Honegatik, irakurle, ez harritu erderetan idatzi duten bi poetari buruz idazteagatik. Idazle bakotza bere sentipenak mugitzen baitu. Poeta onen artean ez da mugarik. Gainera, gure azken urte hauetako ekintza eragineta badute zer ikusirik galdu berri ditugun bi poeta hauek: Blas de Otero eta Celso Emilio Ferreiro. Bata Euskal Herriko semea eta bestea gurea bezalako herri marjnatu batekoa. Biak, euskaldun poeta berrientzat aski ezagunak eta Gabriel Aresti poesia berritzai-leak hoiengan zer ikusirik izan zuen.

Hogeiren bat urte dira Blas de Otero izatearen naturalezaz, esistentziatz, arrazoi bila larrimindurik *Angel fieramente humano* zeritzana burutu zuela. Europako esis-

tentzial filosofiaren prolemak zera maten gizon hau. Bainan, bere kasoan, hasieretako kristautasunaren krisialditik sortu zitzaison frustrazioak ere zer ikusirik izango zuen, garai haretako beste pentsatzaile askogan bezala.

Esistentzial larriminezko pensakeren aldi hori gure literatura-ren alorretaraino ere heldu zitzai-gun kezka da. Besteak beste, gizarte giro desberdinatik kutsatuarren, nik neuk ere hor eman nituen nire kezken lehen olerkiak.

Blas de Otero, izanaren au-ziaz, ezer erabakitzerik ez zuela ohartu zenean, giza izatearen malurak eta eternitate aburuak alde batera utziz, gizarte arazoen aurrez aurre jarri zen. Lehenean ez baitzuen bere kabuz ezer era-bakitzerik eta bigarrenean ordea gizonen eskubidezko justiziaren alde borroka egin zezakeenez. Erabaki hau hartu zuen une beretik klase borrokan partaide izatera heldu zen. Bazekien ekintza honen zama nekegarriaz: “*El cielo es de color indefinido, el niño está llorando en la terraza, sabiendo todo lo que le espera*”. Bainan Tristán Tzara-k zioenez, “Kopeta garbi guzietan errebel-dia eratzen da”.

Gaztelera ongi menderatzen zuen eta literaturagintzarako dohain bereziak zituen. Bere ekintza honi gogotik lotu bazen ere, iragan urteetako zentsura ahalegin du zen bere lana isilarazten. Bainan, hala ere, duela hogeirenbat urte, Unibertsitate mailan konsagratura izan zen Emilio Alarcos Llorach irakasleak sarrera hitzaldiko iker gaitzat hartu zuenetik.

Aurtengo udaraz sartzean hil zaigu Otero bilbotarra eta egunkarietan irakurria dugu sozial poesiaren sortzaile izan zela. Gaur “social”-tzat hartzen dugun kontzeptuan. Bainan, sortzaileen artekotzat jo genezakeeanarren, E. de Nora, V. Crémier, J. A. Goytisolo eta beste batzuekin batean, ezingo genuke har egia osotzat. Miguel Hernández eta Rafael Alberti izan baziren egungo usteetako sozial poesiaren hasiera batean, eta aintzinean jarri beharra dugu Gabriel Celaya hernaniarra. 1952an gaztelerozko poeta gazteak orduko poesia berria zertan zen *Antología consultada de la joven poesía española* zeritzan bilduman adierazteaz aparte, José María Castelllet eta Leopoldo de Luis-ek beren antologietan diotenagatik, Celaya bide hoietan soilik arduraturik abiatu zirenetarik lehena omen zen. Eta Blas de Otero berak *En castellano* deritzan liburuan bertan hala aitortzen du. Bainan olerki-sozial kontuan oraindik mugaz harantzago joango bagina, oroi Paul Eluard eta beste batzuk ere hor direla.

Blasek Arestirekin harreman onak eta aspaldikoak zituen eta honegadik jakin nuen gure herria nola maitatzen zuen. Euskararenganako begiramena ere ba omen zuen. Bainan, Arestiri esaten nion, begiramen soila antzu bihurtzen dela, eta gure euskara maitatzen dutela diotenen pekatura hor dagoela, fedea egintzen bidez ez agertzean. Euskara egiaz maitatzen duenak ikasten du, edo ikasten ahalegintzen da ondotik euskaraz mintza, irakur eta idazten jarraitzeko. Gainera-koan, ahuntzaren gauerdiko eztula. Zeren bestela, ez ahalegindu eta ez erabiltzekotan, zertarako dugu ba hizkuntza?

Blasek, bere izateko moduagatik asko sufritu beharra izan zuen; bere osasuna galtzeraino. Era guzietako injustiziak salatu zituen, beti hitz gutxitan argi eta apain azalduz. Bera joan zaigu, baina bere giroko hitz sotilak hor gelditzen zaizkigu gizonaren pentsamendu eta gogoetaren ageritzat:

*Si he perdido la vida, el tiempo, todo lo que tiré, como anillo, al agua,  
si he perdido la voz en la maleza,  
me queda la palabra.*

*Si he sufrido la sed, el hambre, todo lo que era mío y resultó ser nada,  
si he segado las sombras en silencio,  
me queda la palabra.*

*Si abrí los ojos para ver el rostro  
puro y terrible de mi patria,  
si abrí los labios hasta desgarrármelos,  
me queda la palabra.*

(1979, irailak 24)

## II

### CELSO EMILIO FERREIRO

*Jendea heriotzetik ihesi dabil  
baina jendeak barruan daroa he-  
riotza*

Celso Emilio Ferreiro

Mundua Celanova deitzen den lekuaren oraintsu hil zaigu Celso Emilio Ferreiro, *Longa noite de pedra* eta beste zenbait libururen egilea; bere proletargo herri-hizkuntzaren alde era honetan agertu zena:

*Nire herriaren proletario hizkuntzan  
mintzatzen naiz, hala nahi dudalako,  
guztatzen zaidalako, gura dudalako*

*leta*

*gogoak ematen didalako;  
barnetik irtetzen zait, barne sakona-  
ren tristura  
mingots batek eraginik, hainbeste ezja-  
kin eskergaiztoko,  
errorik gabeko ūnuk  
gorbata jarri orduko arbasoen  
maitasunez ez dakitenok  
guraso hilen hizkuntza mintzatuaz,  
eta izan, burua jasoaz,  
hizkuntzaren marinel, nekazarria,  
erraun eta golde, beti branka eta  
Igoldenabar.*

*Ez naiz mintzatzen arroputzentzat,  
ez naiz mintzatzen doilor eta ahal  
[tsuentzat,  
ez naiz mintzatzen handikikeriaz  
[koentzat,  
ez naiz mintzatzen ergelentzat,  
ez naiz mintzatzen hutsentzat,  
gezurrez injustiziak jasanez etengabe;*

*izerdi eta negarra darienentzat  
eguneroko mitxeleta negarra,  
suz eta haizez begi biluzietan.  
Nere hitzak ezin ditut apartatu  
mundu guzian sufrizten dutenengandik.  
Eta zu munduan bizi zara, nire herria,  
nire leinuaren seaska,  
Galizia, Spainien pena goxoa,  
itsas ondoan etzanik, bide hori...*

Honelako hitz bizi bezain gorrez sentitzen zuen Celso Emilio Ferreirok bere herrianganako maitasuna, bere hizkuntza eta bere leinuaren kultura defenditu beharrez.

Garai hartan hemengo gazte asko zen “felipismo iraultzaile” z kutsaturik (E.L.P. edo horrelako zerbaitek deitzen zen burgeskume taldea), gure herriko hizkuntza naturala, gure euskara, burgeske-riaren azpiegiturazko zela esanez ari zirenak. Heurak ziren burgeskume eta heurak egositakoa heurak janaz eta besteei janarazi nahirik zebiltzan. Zertaraino heldu ginen! Baina, hamaika aldiz erre-pikatu genien: “Lingoa proletaria do meu pobo...” poema hori.

Behin baino gehiagotan nahi izan nuen, Eibarren bertan, berta-koen jakingarriz eta Galiziako etorkinei begira, hango literaturaz mintzatu, elkarren herri problemak ezagutzera hurbiltzeko asmoz; baina, batzuk alde bateko-

tzat, besteek bestekotzat, inork ez zuen nahi bere eskema hertsietak irtetzerik. Beraz, hor geldituziren nire asmoak, besteak beste, Rosalia de Castro, Currus Enríquez, E. Pondal, R. Cabanillas, R. Otero Pedrayo, Castelao eta orainagoko C. Emilio Ferreiro, Alonso Montero, Manuel María,... idazle bikainek azaldu duten literatura gihartsuaren berri emateko aukeratu nituenak.

Demokratak direnen artean ere gehientsuenak, berrogei urteko diktadura itsuak joak daude eta beraiek igarri gabeko zentralistak dira. Horretaz oharturik geuden eta argia emanaz bidea erakustearen aldeko ginenok zerbait egin nahi izatea ez zen harritzeko.

Etorkinok gure etsai ez bihurtzeko lana egin beharra zegoen; beraien herri prolema adierazi beharra. Zer zen bestela “itsas ondoan etzanik, bide hori...?”. Garapen edo hazkuntzazko plangintza batetako aurkibideak? (Ikus *Si la pildora bien supiera no la doraran por fuera*, I. zenb. 133. or., 1968). Arestik ordea, lan ona egin zuen Barakaldoko galego elkartean. Horrez gainera, itzulpenekin ere anitz arduratu zen, *Agiriak* liburuaren hitzaurrean aditzera eman genuenez.

Dena dela, gutik, oso gutik kantatu du gure mende honetan, bere herrianganako abertzalesunez, Celso Emilio Ferreirok hainako kemenez. Galegoz idatzi zuelako, sozial zeritzan mugimendu hartan Espanian agertu ziren

antologietan ez zuen lekurik izan. Gezurra badirudi ere, Estadu zentralista baten ukapenezko eraginak justizia eskariz ari ziren ezkertiarrengana ere iristen ziren. Hortik ikus herrizaletasuna ezker-eskubitik apartekoa dela. Eta, Celso Emilioren lanen berriak, zabalkunde egokirik gabe, askatasun minez eta justizia egarritz arizenaren lanak, bila ari ginenzontzat ere nekeza zen aurkitzea.

Galego hizkuntza bera ere beretza da poesiagintzarako, baina horrez gainera, galegoaren gizarte egoera latzak markatzen du Celso Emilioren ekintza, inoiz ettsipenik hartu gabe: “*Para ser libre o home ten que saber decir creo na esperanza*” (Gizonak libre izateko jakin behar du esaten itxaropenez sinesten dut). Eta, hizkuntza sotil hortan honela adierazten digu bere poesiagintzan:

*Preguntome un literato,  
¿qué poesía fas ti?  
Eu non fago poesía,  
faime a poesía a min.  
Cómo son eu non o sei,  
soio sei cómo non son.  
Non son un poeta-ouxeto,  
non son un poeta-sport,  
non son un poeta-fámulo,  
non son un poeta-mol  
pra darrle gusto ós burgueses  
que andan buscando o folclor.*

Curros Enríquez sortu zen hiri berean, mundua Celanova deitzen den lekuau, hauek triste bat zegoen, umezurtz sentitzen zela: “*Pono, señor, a túa man dereita,*

*pois era un neno triste e non xu-gaba, nin tiña outra ledicia que o balbordo dunhas campás o albo-re-xar o día*” (Jar zazu, jauna, zure eskubian, jostatzen ez zen haur

tristeak ez baitzuen beste pozik egunsentiko kanpai hotsa bai-zik).

(1979, urriak 1).

## POETAREN MEZUA

*Gauari ohosturiko liraren hariak  
Idira;  
ohianean apurtzen diren izarren  
/printzak;  
kristalean jotzen duten zain-kolpeak;  
gurdí xixtu-jolearen arreo musika  
/duna...*

eta ez dakit nik zenbat gauza gehiago dakarren nire gogoetara aberri eta gizarte bizi nahiaren larriminezko borrokaren garai hon-tan, euskal poetak mezutzzat, *Ilargiaren eskolan* berekikoetan ikasi duenetik.

Literaturagintzan urri ematen diren frutu umatu horietako baten aurrean gaudela esan neza-ke. Hala deritzat Juan Maria Le-kuonaren azken liburuari.

Poeta hau, behar bada, inoiz ez da izanen emaitzaz ugaria, baina galburua anitz eta lasto guti emanen dakien poeta horietako da.

Gerraondoan poesiaren alo-retik hasi ginenok maiz entzuten genuen, aurrerapidean bizkortze-ko beharrezkoa genuela olerkari ospetsu bat lortzea. Zenbaitek

Orixeren *Euskaldunak* poeman jarri zuten esperantza, baina bes-tek, poeta askoren ekintzatik sor-zezakean girotik berez lortuko zen ustean. Hizkuntzaren jazkera, irudien erabilera, ideien etorria... gizarte baten gogoari egoki eran-tsi beharra zegoen. Beraz, ordu-ko gehienon ustez, ekintzak bera-kin zekarren gauza zen.

Adibidez, *Agiriak*. Euskal poe-tak eta artistak G. Arestiren ome-nez (1978) deritzan bilduman oraingo 47 poeta euskaldunen za-tiak erakusten dira, eta liburu-aren bukaeran, poeta bakoitzaren fitxa laburra azaltzean olerkarion poesiaz edo poesiari buruz argita-ra eman dituzten liburuuen zerren-da agertzen nuen: 51 titulu, 1954tik 1977ra bitartean argitaratuak. Euskal literaturaren hedape-nerako kopurua hain arrazoizkoa baldin balitz, uzta ederra deritzago azken urte hauetan poesiaz ar-gitara eman denari. Baino, kalita-tez, zer esan? Ekinak omen dakar egina eta kopuruak, behin-pehin, hobetze giroa eta hautape-

netarako aukera. Argi agertzen zaiguna, zera da, euskal literatura-ren alorrean poesia beste sail edo jenero batzuk baino aberatsagoa dela. Kantitateak, gehienetan, bere barne dakar kalitatea.

Estate baterako, Omar Khayyám persiarrik, *Rubáiyát* liburutxoa, 170 bertso (estrofa) laukoan besterik ez zuen idatzi; baina bere inguruko Firdousi, Mólavi, Nizàmi eta gainerakoek milakak bertsoak idatzi zituztenek baino ospe handiagoa lortu zuen. Bere gogoetazko mezua, poetaren mezua, luzarora begira beste haien baino irakurgarriago bihurtu zenez. Baina, kontutan hartu beharrezko iruditzen zait beste haien ekintza Khayyám-ek zio eragile izan zela.

Poeta baten lanak irakurgarria-goak izatez aparte, badago beste-lako mailakatze bat ere. Alde bate-tik, garai bakoitzeko pentsaera gi-roak iritziak alda lezazke, baina bestetik, formaziozko desberdin-tasunez aparte, bakoitzaren bar-netikako gogoeta eta sentipenen hari meharrek ere badute zer iku-sirik.

Adibidez, har dezagun Espai-niako 27. belaunaldia. Vicente Aleixandreri Nobel saria eman zi-tzaionean, gure arteko idazle “gi-zarte iraultzaile aurrerazale” batek duda-mudarik gabe agertu zuen sari hura Rafael Albertik me-

rezi zuela, eta horrela ez izatearen arrazoia politikazkoak iruditzen zitzaizkiola. Gauzen xinpletasune-tik begiraturik hala dirudi. Baina batak herbesteratu beharra izan bazuen, bestea presondegian egona zen. Beraz, ez dut uste sari hautapen horretan politikak ezer ikustekorik izan zuenik. Batak egunoroko gizarte auzien borrokeri gehiago kantatu bazion, bes-teak barne-gogoetatik izatearen metafisikazko pentsamendu sakonagoak eskaini zituen. Eta balioen mailakatze hontan ezta gauza erraza nor aurretik jarri. 27. be-launaldikoek berek, orotara har-turik, maiz aipatu dute behar bada talde guziaren gainetik jartzeko a zela Pedro Salinas. Baina nork ezagutzen du P. Salinasen lanik, poetak heurak izan ezik? Ez da al-perrik aipatua eta deitua izan poe-ten poetatzat.

Euskal literaturan bertan ere holakorik gertatzen zaigu. Baina lasai esan genezake puntarengoen artean jartzeko dela J. M. Le-kuonaren *Ilargiaren eskolan* deritzan lan argitara berria.

Urrengo artikuluan iharraitu-ko dugu liburu horren bidez poe-tak “*Gauari ohosturiko liraren ha-riak...*” dakarten mezuaz.

(1980, maiatza).

## ILARGIAREN ESKOLAN

*Hasieran hitza zen;  
hitza haragi egin zuen profetak,  
haragia hitz bihurtu zuen poetak.*

Baina nor da hitzezko irudigintzaz baliatuko den artista? Esango nuke, gauzak sorkunde egunaren bihamarunean modatik pasatzen ari diren garai honetan ez dela ekintzarik onena poetaren ofizioa. Hala ere, aspalditik ildoz ildo datorrenak badaki zerbait eta *Ilargiaren eskolan* bildu duenetik Juan Mari Lekuona garaile irten dela esango nuke.

Bitan banatzen duen liburu horretan, gauzak bere inguru egoki batek bildurik adierazten ditu. Gauza bakoitzaren, hitzaren bidez, bere ingurua iradokiz mamia eta sena emango dio. Hala dira: Bizilekua, Esku, Ille-adats, Haragizko estatua eta Begitarte, liburuaren lehen partean lau hirukoitz eta laukoitz bat osatzen dutenak.

*Eta baliapide, lanabes, elkartasun  
eta festetako kriskitin ziren eskuak.  
Arimaren ispilu ere bilakatu ziren,  
izaera baten salatari,  
behatz nerbadura gorrien kupula  
faldakorrean.*

Eskuz gidatutako lumak, artistaren gogoz, balio estetikoak adierazten ditu iradokigarri direnak, bertso librez edo hitz-neurtuz

(zortzikoz edo kopla zaharrez gehien bat), gorpuzkeren komunikapen ilunetan argia egin nahiaz.

Euskal poesian ere mila aldiz kantatu da emakumearen edertasuna, baina hara Juan Marik nola berritzen duen emakumezkoaren irudi adierazpena, *Haragizko estatuan*, kontzeptu berrien araura:

*Emakumezko irudi biziaren orekan,  
bularrak berezko pentsamendu dira.  
Bizia elikatzena behartuak;  
aho gosetien forma dute hartzen,  
kutxa barruko ogiak bezala.  
Mehea gerria;  
haurgintzaren ezpalek  
hozkatu gabeko zurubia.  
Eta sabelaren eusgarri  
izter geldoak,  
marfilezko zutabe sendoak,  
jeminatuak,  
jainkesen irudien  
tinka-harria lerden-airosak.*

Horiez gainera, usario zaharrei jarraituz, asmakizun erakoak ere bere tokia dute.

Liburuaren lehen zatian irakurleari gauzen sena iradokitzen badio, bigarrenean, gure bertsolarien gisako ironiaz, azken urteotan euskal literaturaz eman diren liburu handien kritika agertuko du. Hau da *Liburuen karroxa*. Oharrez adierazten duenez: “Ka-

rroxa" hitzak, karrikako antzerki mota herrikoia esan nahi du hemen. "Karroxa", "astolaster" edo "toberak", antzerki satirikoen atal dira.

Bost bertso sorta dira guztiz, guziok doinuz emanaz eta liburuaren bukaeran aurkituko ditugu pentagramaz.

Liburu azalean koloreen arabera, honela dator: lehena, *Liburu Horia* deritzana, Berrondok euskaratutako Don Kixotez ari da; bigarrena ordea, *Liburu gorria*, Aresti zenaren Lan osoak bildu nahirik agertu ziren bi tomoena; hirugarrena, *Liburu urdina*, Torrealdayren Euskal idazleak: laugarrena, *Liburu berdea*, Xalbadoren *Oadolaren mintzoa*; eta bostgarrena, Euskaltzaindiaren *Liburu zuria*.

Adibidez, har ditzadan azkenengo hortatik bi bertso edo estrofa:

*Euskarakiko bulda  
taldeak dakar;*

*berena on den gisan  
besterena txar.  
Bietan da luma prestu,  
bietan idazole extu;  
sena duenak badu, ta  
ez duenak ez du.  
Deabru huts da hatxe,  
adar ta buztan;  
edo hegala txurizko  
aingeru laztan.  
Gaitz txarrak gaitu kutsatu;  
armetan gara altxatu;  
inoiz hain gutxik ez gaitu  
hainbeste saltsatu.*

Xenpelar eta Txirritaren herri eskolatik ari zaigu horietan.

Bi zati desberdinez taxutzeaz, liburu horrek badu bere bizitasuna, edonork atseginez irakurtze-ko eran.

*Eder zibota lur-zolan;  
maite-minduek auzu-lan...  
Txorkatil finak tximista dira  
ilargiaren eskolan.*

(1980, ekaina).

## GAZTELU JOAN ZAIGU

Inongo hots handirik gabe, isilik joan zaigu Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu" olerkari aipagarria. Errege egunez Donostian hila. Iruditzen zait, haren balioaz ez ginela gehiegi ohartu, eta haren galera zer esanik ere ez. Gaztelu, bere gogoz, inorekin burua bat eginik bazegoen, bere herriarekin zen eta gure nortasuna hizkuntzaren bidezko elkartasunean ikusten zuen. Axularren esaldi huraberetzat hartuz: "Mihian da ezagun nor den bat bederen". Eta, bere olerki batean hala azaldu zugun:

*mintza, kide,  
nahiz garbi  
edo lizun,  
nahiz gordin  
edo txukun,  
mintza bederen  
hil ez gaitezen...  
hitza da  
elkarren  
ezaugari,  
ba gerala  
jakitearren...*

Apal ez ezik, barnerakoiegia zen bere gogoaren garra, herriaren aurrean kementsu azaltzeko, eta horrek ezkutatzzen zuen gure uste zintzoan oso goiko mailetan jarria behar zuen olerkariaren izena. Jakintza mailan ere, ez zen nolanahikoa, eta horren kezka ere bere olerkietan nabari da:

*hutsetik bizi da  
nere jakin gosea  
zulo bat bezela  
ondorik gabea:  
ez da iñolaz betetzen  
nere jakin-gurea...*

Olerkiok dira pertsona beraren irudiz eginak eta, Gaztelu joanaz, poeta bat gutiago euskal-parnasoan.

1908. urtean jaio zen Gazteluko Bordatxuri baserrian, Larte mendipean. Kaputxino ordenan osatu zituen bere ikastaroak, Altsasun, Hondarribian, Lizarran eta Iruñean. Gazterik hasi zen olerkigintzan eta 1934an eman zion lehenengo Yakintza zeritzan aldizkarian argitaratzeari. Gerrak barreiatu zuenetarikoa genuen eta Ameriketan zenbait urtez bizia, Argentinako Llavallol, Mar de Plata, Córdoba eta Mendozan. 1958an itzuli zen eta geroztik apez, Donostian. Baino, buru-bela-ri euskal gaieri emana. Buenos Airesko *Euzko-Deia*, Guatemala eta Miarrizeko *Euzko-gogoa* eta hemengo *Zeruko Argia*, *Egan* eta *Olerti* aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak.

Inoiz saritua ere izan zen, eta saririk aipagarrien artean 1970 eta 1971. urteetan Irun sariak jaso zituen poesian.

Bere olerkirik gehienak etsipe-nezkoak dira. Bizitzako gertariak eta harat-honat ibili beharra-en eraginak tajutu zuen bere izakera:

*otanik gabe  
gabiltza gizonok  
galdu  
gordean,  
norakorik gabe  
ontzia bezala  
jitoan.*

Baina ez ordea bizi nahirik ez zuelako, ez. Ohartzen zen mutur batetik bestera, ezkortasunetik baikortasunera, ez eta bai elkarrengandik hurbil zebiltzala mai-zenik. Horregatik, esango zigun:

*alkarri musuka dabiltz  
gaua eta eguna  
argia eta iluna.*

Gizonaren neurria, izanaren kosmos barnean txiki zela adierazteko; baina, biziari ukorik egin gabe, zeren,

*ona da bizia  
bizitik at deusik ez da  
bizia du gizonak hazta ta neurri  
horregatik dario alai iturria  
horregatik doa kantuz txoria  
horregatik da usaidun lilia...*

Ausart agertuko zigun, gizonaren dimentsioa bere tokian koka-tu ondoren, gutietsiaren barnean, bizitzaren zentzua edertuz.

Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu"ren lanik entzutetsuena Musika ixilla deritzana da, 1962. urtearen azken aldera argitaratua. Fray Luis de León eta San Juan de la Cruz-en

olerki euskaratuak dira. Orixe ze-naren hitzaurre aberatsa zeraman eta Gaztelu beraren zenbait ohar, gaztelera-zko autore bien bizitza eta euskal metrikari buruzko eraskina. Itzulpenean saiatu zen neurriaz gainera hitz-neurtuak azentu bidezko erritmoz ematera, irakurgai aldetik hotsen doinuz jazteko, atseginago izan zezan.

Gaztelu ez zetorren ados Etxe-paregandik orain arteko poesien metrika hertsiez jarraitu denarekin. Bere ustez, horrez gainera bazen beste edergarri bat ere, azentuaren erabilkerarena. Euskaltzaindiko urgazle zen aldetik, igazko ekainerako hitzaldi bat eskaini zigun gai horretaz, baina ordurako osasunez oso makalik zebilen eta agindua ezina bihurtu zitzaion. Gai horretaz zituen pentsamenen zati batzuk argitara ba-zituen ere, tamalez, gehienak berakin eroan ditu hilobira.

Auñamendi argitaldariko *Espa-ñol-Vasco* hizategia, B. Estornés La-saren eragintzaz eta zuzendaritzaz eroan bazen ere, antolaketan A le-tratik C-ra arte baizik ez dira argitaratu. Guztiz burutu ezarren, tajuz egina da eta merezi luke lan horren jarraipenak, bereziki Gazteluk burutu zuen partearena.

Hala ere, Gazteluren baliorik handiena olerkaritzan datza eta *Olerti* eta beste zenbait aldizkaritan argitara zituenez gainera, Irun sari-ko biak hautatuko nituzke: *Gauean oihu* eta *Biziaren erroetan*. Bietan bada gauza bitxirik, bai azalez eta bai mamiz. Lehena, Vietna-go

gerra oraindik hurbil eta bizirik zegoen garaikoa, hango gertakariak eta heriotzak gizonki salatuz. Bere barnerakoitasunetik inoiz ez zen agertu hain ausarti. Azaltzen digunaren arabera, badirudi bere erraietaraino erretzen zuela gerra mingarriak. Baino, bigarren liburua, bere izenburuan dioen bezala, Biziaren erroetan dabilen olerkima da. Bere izatea bere herriko lurraldekin lotzen du, maiz panteista tajurako ideiak agertuz bere sentipenik sakonenean lurrauen barne- taupadak jasoaz:

*hire muño gurietan  
hire baso ta oihan itsuetan  
hire mendi ta arkaitz gorrieta  
etzin nadi naizen hau zabal...*

Bere heriotzaren loa oparitzat sentituko zuen bezala. Lagun ur-

koenganako maitasuna bizi agertuko zigun, etsipenen barnean ere. Liburua, amona Gregoriri es- kainitako hileta soinuz bukatu zuen, maitasunaren lokarriak heriotza bera baino haruntzago era- man nahirik:

*zein gogor den biziak alkartu  
Igindunok  
bereiztea alkargandik.  
Beste honako hitz hauekin bere  
Iguraria bete nahirik:  
Amona Gregori:  
oraindaiño bizian lagun zindu  
Igunok  
lagun gaituzu aurki hilik  
lurrean  
guztioan altzoan...*

(1983, urtarrila).

## LIZARDIREN GARAIA

Gure mende honen hasieran oraindik errromantiko kutsu gehiegi zebilen euskal poesiagintzan, hala ere, zenbaiten baitan grazia berezia hartzen zuen tradiziozko bertsolaritzaren erak erabiltzen zituztenean. Baino, kultur ekintzak ere izaten dituzte beren aldi eta modak eta, baita ere, sorketa berak lege duen aldakuntza. Batez ere, bigarren hontan oinarritzen dira egiazko kultur ekin-

tzak eta hortaz ohartuak ziren Euskaltzaleak zeritzan mugimendua asmatu zutenek. Era berri- tzea egosiko zuen salda beharreko zen eta horrek ekarri zuen el- kartearen sorrera.

1926 eta 1927. urteetan egosi zen ideia "Euskeraren Eguna" ospatzeaz, zenbait jaialdirekin batean literatura lehiaketak eta bertsolari saioak antolatuz. Horren ondorioz, 1930. urteko martxoan

ren 9an, Zumaian bildurik, “Euskeraren Eguna” ospatu zuten, ordurako ehun pertsona inguruko taldea osatzen zutenek, Euskaltzaleak deituriko elkarteari eman zioten hasiera. Beren deiak erantzun ona izan zuen eta bat batean bi mila bazkidera hurbildu ziren: Olerki, Antzerki eta Eleberri lehiaketaz eta euskara eskoletara eroateko ekintzak bideratzeko. Urte bereko irailean, Bergaran Eusko Ikaskuntzaren babespean eratu ziren batzarretan Euskaltzaleak parte hartu zuen lehen aldiz bere egiturazko nortasun osoan.

Erakundeek izaten dute gizon eragilerik eta Euskaltzaleak zeritzanean Jose Ariztimuño “Aitzol” nabarmendu zen gehienik. Kulturaz jantzia zen eta ondotxo zekien literaturak gizartean zuen garrantzia eta literaturgintzaren barnean olerkariek zer nolako balioa zuten. Irakurri besterik ez dugu 1930. urtean bertan Errenterian eratu zuten olerki sarketa-ren bildumari egin zion hitzaurrean zioena: “Oraingoan, euskaldunak gure izkera apaindu eta aberastu bearrean gera. Eusko-elertia oparotsuenetako ez bada ere, ez da askok uste lezateken bezin argal eta makala. Euskaltzaleak alaz guztiz, gure elertiari mendu gazteak txertatuaz sendotu nai luteke. Ortarako biderik egokiena ordea, elerti gaiari eragitea zaigu. Goitar indar meeak, almen-biotzeta, darabilkiten gazte azkarrak bai bai-ditugu”. Eta, ondorean, holako ideiak agertuko zituen:

“Olerki opari-ugaritsu gabe euskera ez da ernaituko, iñungo izkeriarik poesi-neurtitzik gabe garatu eta sendotu ez dan bezela... Izkeria-langille bearrenekoak, olerkariak dira...”. Eta aurrerago ere jarraituko du esanaz: “Izkera guzien lurrealdeetan sasi eta larrak garbitu dituztenak, soroetan azia lendabizi erain dutenak olerkariak izan dira.”

Nire aldetik, behin eta berriz errepikatuko dut: literatura lan-tzen ez duen herriaren hizkuntzak ez duela etorkizunik. Baino, zenbait ahalmen lortu dugun garaian, gure kultur ahulezia nabar-men ageri da. Hizkuntza baten ondasuna literatura izanik ere, euskal idazleei laguntza emateko plangintzak, nonbait gerorako utziak ditugu. Zeren, oroi Lizardi berak zioenaz: “Euskerak eman digu erri-izena. Euskera da gura bereiz-alderik nabariena. Euskerak etxekotu gaitzake oraindik se-nide guztiok: euskeragabetzeak arroztu”.

Asmoak bultzatzeko oso ongi hornitu zituzten olerki lehiaketa haiek, egitura egoki baten barnean. Zazpi urtez egin ziren eta uzta eder eta aberatsak jasotzen ari zi-relarik, anai arteko gerra-zibilak eten zuen ekintza bikain hura. Ospatzen zen hiri bakoitzean idazle-ren baten gorazarrea egiten zen, hitzaldiekin eta jolasekin herriari partearaziz. Hots handia izaten zuten eta euskaldunagan literatur irakurketarako gogo-egarria txer-tatuz.

Lehen lehiaketa, esan bezala, Erreenterian ospatu zen Luis Jaurregi "Jautarkol" zenaren *Biozka-dak* liburua aurkeztuz. Aitzol bera izan zen hizlari, liburuari buruzko kritikaz. Eta, urte hartako saria Esteban Urkiaga "Lauaxeta"k irabazi zuen "Maitale kutuna"rekin. Lizardi ere partaide izan zen, lehenari zorrik gabeko hiru olerki laburrekin: "Agur!" (*Maite* zeritzan poemaren zati bat), "Paris'ko txolarrea" eta "Otartxo utsa". Partaidetza haren-gatik hara zer zioen Aitzolek: "Euskerari bide berriak idekitzearen, bide xiurrak utzita zabalera jo dezan, almen bikañeko olerkariak agertu zaizkigu, Agirre jauna Lizardi izenordez, eta Tapia"tar Alexander, Iruña"koa".

Hurrengo urtean (1931), Tolosan ospatu zen, Emeterio Arrese-ren omenez. Bonifazio Etxegarai izan zen hizlari, Arrese zenaren obraren aburuz, eta urte hortako olerki saria Lizardik jaso zuen "Baso-Itzal" zeritzan olerkiarekin. *Urte giroak ene begian* poema hunkigariaren zati bat zen.

Handik laster agertuko zen *Biotz-begietan* liburua. Nikolas Ormaetxea "Orixek" zenak izan zuen Lizardigan zer ikusirik, euskarazko orraztapenez gainera lehiaketa haietan parte har zezan eta liburu hori argitaratzen, bere hitzaurre jakingarri batekin aberastuz. Hala aitortu zuen *Itz-lauz* liburuaren hitzaurrean, Orixek bere lerro pozgarriak jarriz: "Ni izan ez banintza, oraindik argitara gabe ze-

goan Lizardiren liburu txoragarri ori. Egia esan, ni izan ez banintza Yainkoak besteren bat sortuko zun; baña ni izan naizelako ez al daukat pozbiderik? 'Etxeak bear ta bideak ekarri', dio esan zaa-rrák. Arentzat ontan ni ekarri nindun...".

Lizardiren olerkari balioak ez dira erraz neurtzekoak. Garaiko mugimenduaren inguruan loratu zen, han nabarmendu zirenetarik ere aski olerkari berezia. Bere go-gotik sortzen zitzaizkion olerkiok, gogamen aberatsa zuten eta eka-rrria ere halakoa; sorketarako ahalmen berezia, irudimentsua, ikuspegi berezia zuena eta txukun adierazten zekiena. Hizkuntza bera, esaldiz labur, ideia osatuak, metaforak, edertasunez jabeturik, hizkuntza poetikoan inori zorrik gabea.

Lehiaketa haien berritasuna, bizkortasuna eta bizitasuna ekarri zioten euskarari, arnasberritze baten itxaropena eskainiz. Sarietako partaideen artean ziren, bes-teak beste, Orixek bera, Tapia-Pe-rurena, Txomin Kortajarena, Jau-tarkol, Imanol Enbeita (Kepa "Urretxindorra"ren anaia), A. Ezenarro, A. Zugasti eta abar. Baina, lehiaketa haien bultzaturik, geroago olerkaritzan ospea har-tzera etorriko ziren gazteagorik ere bazeen, laster hil zen Loramen-diz gainera, gero gerraondoko be-launaldiarekin zubi egingo zute-nak. Horien artean: J. Zaitegi, S. Onaindia, B. Ametzaga, E. Erkia-ga eta J. I. Goikoetxea "Gaztelu".

Ekintzaren zuzpertzaile zen Aitzolentzat ohorerik handienetakoa izanen da, neurri handi batean, zuzpertze horri esker agertu zelako aldi berri bat eta bereziki

Lizardi, euskal literaturak duen olerkari baliotsuenetako bat noski.

(1983, *martxoa*).

Otsalarren mozorroak  
Las máscaras de Otsalar

MIKEL ZARATE

¿Por qué no decir la verdad clara y llanamente? ¿A qué viene convertir la evidencia en jeroglífico? Si todas las pruebas fueran “dos y dos son cuatro”, no se diría nada igual. Pero, tal y como hemos dicho anteriormente, la verdad es precisa y sucede que resulta embarazoso mostrar el alma de su integridad, y para hacerlo, el hombre, inevitablemente, da miles de rodeos y padece miles de quebraderos de cabeza. Pero no tan sólo ese interior, hasta el mero hecho de ver y alegar su exterior le supondrá una ardua tarea. Además, cada cual la expresa a su manera. Y en consecuencia es ahí donde surgen las desemejantes culturas.

El lenguaje de los símbolos (lenguaje éste colmado de máscaras, revestimientos, alegorías, comparaciones) es uno de los accesos, antiguo sendero abandonado, esencia misma de los pueblos, surgidos a raíz de todos los esfuerzos realizados para poder ver y poder expresar lo más hondo de la verdad, como podemos comprobarlo en los cuentos, las paráboles, las fábulas, las adivinanzas y los refranes. El lenguaje de los símbolos no pertenece sólo a niños, poetas y locos. Atañe al ser mismo; es una maravillosa senda donde explicar y conocer la naturaleza de la existencia de los seres, y hasta es más avanzado que el de la razón (lenguaje analítico), y más profundo y más extenso. Y la imaginación nos

permite apreciar (por supuesto, hasta cierto término) el mundo íntegra y plenamente, e incluso podemos contemplar lo que no alcanzamos a distinguir con las ideas. “Tener imaginación es ver el mundo en su totalidad, porque la misión y el poder de las imágenes es *hacer ver* todo cuanto permanece refractario al concepto. De aquí procede el que la desgracia o la ruina del hombre que “carece de imaginación” sea el hallarse cortado de la realidad profunda de la vida y de su propia alma.” (Mircea Eliade, *Imágenes y símbolos*, Madrid, 1955, pág. 20).

El lenguaje de los símbolos es la representación de la imaginación, y más parece un lenguaje de brujos. Por consiguiente, sólo podrá entenderlo quien posea una fértil imaginación, y quedará fascinado por su embrujo, herido de belleza se entusiasmará. Y por el contrario, el infeliz poseedor de una imaginación estéril, no entenderá nada. Hemos dicho que el lenguaje de los símbolos nos sirve para poder ver y poder expresarnos de manera más hoyada. A decir verdad, ha sido utilizado incluso origen del miedo.

“... servitus obnoxia

*Quia quae volebat non audebat dicere*

*Affectus proprios in fabellas transluit.*”

(Fedro)

“Zergatik ez egia argi ta garbi azaldu? Zer dela ta egia jeroglifiko bihurtu?” Egia guztiak “bi ta bi lau dira” bezalakoak balira, ez litzateke horrelakorik esango. Baino, lehen esan dugunez, egia biribila da ta biribilaren barnea azaltzea oso zaila izaten da sarri askotan ta mila buruhauste ta jirabira egin behar izaten ditu gizonak hortarako. Biribilaren barnea ezeze, azala bera bakarrik ikusi ta adierazteak ere nahiko zereginik ematen dio gizonari. Bere erara ikusi ta adierazten du, gainera, bakoitzak. Eta hortik sortu dira gure kultura ezberdinak.

Egiaren biribila ikusteko ta adierazteko egi diren ahaleginetik sorturiko bide bat dugu irudi hizkuntza (mozorroz, estalkiz, alegoriaz, konparazioz jositako hizkuntza), bide zuzen zahar baztertua, herri herriaren bidea, ipui, parabola, alegi, igarkizun ta erre-frauetan ikusi dazakegunez. Umena, poetena ta zoroena bakarrik ez da irudi hizkuntza. Giza-izateari berari dagokiona da, izakien izatearen izatetasuna adierazteko ta ezagutzeo bide jator zoragarri bat, arrazoi-bidea (hizkuntza analitikoa) baino aurreragokoa, eta sakonagoa eta zabalagoa. Eta osotasun batean eta betean ikus-ten da (ahal den neurriko osotasunez, jakina) mundua irudimenaz, eta ideien bidez ikusi ezin dena ere ikusi egiten da. “Tener

imaginación es ver el mundo en su totalidad, porque la misión y el poder de las imágenes es *hacer ver* todo cuanto permanece refractario al concepto. De aquí procede el que la desgracia o la ruina del hombre que “carece de imaginación” sea el hallarse cortado de la realidad profunda de la vida y de su propia alma.” (Mircea Eliade, *Imágenes y símbolos*, Madrid, 1955, 20. orr.).

Irudi hizkuntza irudimenaren irudipena da, bai, eta sorgin hizkuntza dirudi. Haugatik, irudimen jori ugaridunak ondo ulertuko du ta sorginkiro liluratuko da, ta edermindu ta poztu. Irudimen antzudun gixaxo tristeak, ostera, ez du ezer ulertuko.

Irudi hizkuntza egia sakonagotik ikusteko ta adierazteko dela esan dugu. Baino, egia esan, beldurak eraginda ere erabili izan da.

“... servitus obnoxia  
Quia quae volebat non audebat dicere

Affectus proprios in fabellas trans-tulit.”

(Pedro)

Zenbat literatura-lan eder dugun mozorroz jantzirik! Eta zenbat egia biribil mozorropean! Ihauterietaz esaten zena datorkit burura: “Karatulaz jantzirik esaten dira egiarik handienak, aurpe-gia estaltzean barrua hobeto agertzen delako.”

¡Cuánta buena literatura hay oculta! ¡Y cuánta preclara verdad disimulada! Recuerdo ahora lo que se decía acerca de los carnavales: "Las grandes verdades se dicen al amparo de una carátula, porque al ocultar el rostro, se revela más claramente lo secreto."

Otsalar, inclusivamente el nombre del autor de este poema que vamos a analizar, es del mismo modo una máscara. Porque Otsalar, cobija en su interior a Juan San Martín. No obstante leamos antes de nada el texto de Otsalar.

#### INAUDITO

*"Lo he visto,  
respiraba penosamente,  
se moría de hambre,  
su frente de pobre  
sudaba sangre...  
¡Calla!  
Lo he visto,  
en el palacio del gobernante  
placer  
y oro  
nadan en la abundancia...  
¡Calla!  
Dueños y señores de todo,  
velando la paz  
con espadas afiladas,  
lo he visto,  
sobre sus caballos Cartagineses...  
¡Calla!  
¿La danza de Aquelarre  
en la plaza de oriente?  
Por si todo lo sufrido no fuera*

*/bastante,  
lo he visto...  
divinizado bajo palio...  
¡Calla!  
Hablan los ojos...  
¡Calla, cállate! ¡No digas nada!"<sup>(1)</sup>.*

¿Qué se esconde bajo la máscara de este poema? Cuando lo leí por vez primera, no lo consideré demasiado bueno, no lo entendía, y me pareció una adivinanza. Sin embargo presentí un algo maravilloso que me animó a leerlo por segunda vez. Y al hacerlo detenidamente, quedé sobre cogido. En este denso, enérgico poema de Otsalar, vi y sentí de pronto la vida, la fuerza, la valentía, el olor, el color y la belleza de la primavera de la poesía social de las letras vascas.

Creo que fue primero Lauaxeta quien compuso poesía social: *A un trabajador asesinado*<sup>(2)</sup>. Pero, desde entonces, quizás por miedo, ha permanecido ausente durante muchos años, hasta que se han manifestado con fuerza Juan San Martín, Aresti, J. Azurmendi, o Lete entre otros.

*Inaudito* es un poema estructurado a modo de pirámide. Tiene cuatro estrofas y cuatro temas, que reflejan cuatro clases sociales. En el primer nivel, en la parte inferior de la pirámide, debajo, está el grupo mayoritario, el de

<sup>(1)</sup> *Ikurrin*, 1965. En *Olerti I-II*, Bilbao, 1965, pág. 37-38.

<sup>(2)</sup> *Arrats-beran*, Bilbao, 1935, pág. 79.

Otsalar, aztertzena goazen olerkiaren egilearen izen hau berau ere, mozorro bat da. Otsalar-ek Juan San Martin bere barnean estali duelako. Baino goazen, lehenbizi, Otsalarren textua irakurtzera.

### MIRARIA

*"Izerdi odoldua,  
arnasa larria  
ta gose bizia  
ikusi dut  
beartsuaren kopetan...  
Ix!*  
*Ugarian igariz,  
irriparrea  
taurre dizdira  
ikusi dut  
ugazabaren jauregian...  
Ix!  
Jaun eta jabe,  
ezpata zorrotzez,  
pake zaintzez,  
ikusi dut  
Cartaginesa zaldian...  
Ix!  
Akelargo dantza  
urioko plazan?  
Lena gutxi bazan,  
ikusi dut...  
bedeinkatua itzalkipean...  
Ix!  
Begiak dira mintzo...  
Ix! ta ixi! Ago ixilik!"*<sup>(1)</sup>

Zer ote dago olerki horren morropean?

Lehenbizikoz irakurri nuenean, ez nuen olerki ona zenik uste, ez bait nuen ulertu, ta igarkizun bezalako zerbait iruditu zitzaidan. Hala ere, bigarrenez irakurtzera bultzatu ninduen zer edo zer miresgarri ohartu nuen. Ta, bigarrenez astiro-astiro irakurtzean, harriturik gelditu nintzen, euskal lettretako poesia sozialaren udaberriko bizi, indar, adore, usai, kolorre ta edertasuna ikusi ta sentitu nituelako bat-batean Otsalarren olerki mamitsu hortan, giharratsu hortan.

Lehenengo poesia soziala Lauaxetak egin zuela uste dut: *Langille eraildu bati*<sup>(2)</sup>. Baino, harrez gero, beldurragatik edo, bertan behera utzirik egon zen urte askotan, Juan San Martin, Aresti, J. Azurmendi, Lete ta abar ausarti agertu arte.

Piramide bat bezala egindako olerkia da *Miraria*. Eta lau ahapaldi ta lau gai ditu, lau gizarte maila adieraziz.

Lehenbiziko mailan, piramidearen behe aldean, azpian, behartsuen, langileen, proletarioen talde haundia dago.

*"Izerdi odoldua,  
arnasa larria  
ta gose bizia  
ikusi dut  
beartsuaren kopetan..."*

<sup>(1)</sup> *Ikurrin*, 1965. I-II *Olerti-n*, Bilbo, 1965, 37-38. orr..

<sup>(2)</sup> *Arrats-beran*, Bilbo, 1935, 79. orr..

los pobres, el de los trabajadores, el del proletariado.

*"Lo he visto,  
respiraba penosamente,  
se moría de hambre,  
su frente de pobre  
sudaba sangre..."*

Es una denuncia de la condición de ese grupo oprimido, una dura y cruda denuncia. El hombre deberá ganarse el pan de cada día con el trabajo y con el sudor de su frente, pero sin tener que llegar a sudar sangre, ni a respirar penosamente, ni tampoco a morirse de hambre, porque al proletario se le debe un sueldo legítimo. El oprimido, una vez más, a decir del propio Otsalar, está sediento de amor.

*"Matxin, humilde como nadie,  
me enseñó  
que los pobres y famélicos  
viven sedientos de amor.  
Lleva el yugo del trabajo,  
y a cambio del cielo  
le niegan el mundo.  
Guarda en silencio Matxin  
su desgracia.  
A pesar de todo,  
vive sediento de amor.  
Amaba a su madre,  
le prohibieron amarla;  
amaba la luz,  
le prohibieron amarla.  
Y en la frente lleva la tristeza  
de amar lo que le negaron.  
Se quedó sin madre,"*

*ahora calla.  
No vio la luz,  
y mira el suelo.  
A pesar de todo,  
sediento de amor.  
Sediento de amor,  
siempre,  
qué angustiosa condena.  
Esclavo del trabajo,  
luchador  
sin descanso,  
Matxin, siempre  
su ruidoso quehacer:  
¡Pum, pum!  
Su estruendo,  
martillo ardiente  
y gélido amparo.  
¿Quién guarda un recuerdo para él?  
El sufrimiento del proletariado  
[miserio,  
tiene siempre  
escaso premio.  
Trabajosa existencia..."<sup>(3)</sup>*

Otsalar, sitúa a ricos y gobernantes en el segundo nivel de la pirámide, en contraposición al primero, denunciando de tal forma las insólitas y vergonzosas diferencias.

*"Lo he visto,  
en el palacio del gobernante  
placer  
y oro  
nadan en la abundancia..."*

Y por encima de pobres y de gobernantes, custodiando la ubicación de esos dos dispares gru-

---

<sup>(3)</sup> *Bertso urratuak*, 1965. En *Olerti III-IV*. Bilbao. 1965. pág. 11-12. Presentamos aquí sólo la primera parte.

Talde zapaldu horren egoeraren salakuntza bat dugu hori, salakuntza gogor ta gordin bat. Lan eginez ta bere bekokiko izardiz irabazi behar du gizonak bere eguneroko ogia, baina ez izardi odolduz, giro desegokiko arnasa larriz ta gose biziz, zor zaio ta lanileari bidezko duen soldata.

Beste behin, Otsalarrek berak esaten zuenez, maitasun egarri da behartsu menperatua.

*"Behartsu fameliko  
maitasun egarri,  
Matxin, gizon umillak  
zidan irakatsi.  
Bere gain duelarik lanaren uztarri,  
zerua eskeindu,  
mundua ukatu.  
Matxinek zoritzarra  
ixil gordetzen du.  
Ala ere,  
maitasun egarri.  
Maite zuan ama,  
ukatu zien maitatzea;  
maite zuan argia,  
ukatu zien maitatzea.  
Ukatu ziena maitatzearen  
darama bekokian tristura.  
Ama gabe uztearren  
orain mutu da.  
Argi ez ikustearren  
begietan lurra.  
Ala ere,  
maitasun egarri.  
Larrimiñezko kondena onetan,  
beti,  
maitasun egarri.*

*Lanaren menpean,  
ekin eta ekin,  
ari eta ari  
Matxinen durunda,  
beti:  
Danba, danba!  
Lanaren otsa,  
maillu beroa  
ta laguntza  
otza.  
Nork du beretzat oroitza?  
Langille beartsuaren nekeak,  
beti  
sari motza.  
Izakera latza... ”<sup>(3)</sup>.*

Aberatsak, ugazabak jartzen ditu Otsalarrek piramideko bigarren mailan, lehenengo mailako-en kontraposizio bezala, ezberdin-tasun harrigarri ta lotsagarria salatuz.

*"Ugarian igariz,  
irriparrea  
ta ure dizdira  
ikusi dut  
ugazabaren jauregian..."*

Eta behartsu eta ugazaben gai-nean, talde ezberdin bi horien egoera zaintzen, piramideko hirugarren mailan, Faraoiaren zerbitzari leial bezala, Anibalen soldadu indartsu eta adoretsu bezala, militarrak ditugu, ezpata eta kartaginesaren morropean. Beste literato askok egin izan duten antzera, Otsalarrek ere ez ditu zuzen salatzen militarrak, irudi bidez baizik.

<sup>(3)</sup> *Bertso urratuak*, 1965. III-IV Olerti-n. Bilbo. 1965. 11-12 orr.. Lehenengo zatia bakarrik jarri dugu hemen.

